


PERU LEARTZAKO

Txillardegi



euskal literatura

ELKAR

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.

Azaleko ilustrazioa: Luis ASTRAIN

- © Txillardegi.
- © ELKAR S.A. Esterlines 10. Donostia 1987

Legezko gordailua: NA. 1.153-1987
ISBN 84-7529-474-X

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

PERU LEARTZAKO

*«Ezin daiteke esan makinak egiten
ez genekienik; baina gure asabek
bazekiten arreta horrelako
eginkizunetan jarritz gero, jopu
bihurtuko ginela, eta Moralaren sena
arras galduko genuela. Horregatik, eta
luzaroan gogoeta eginda gero, gure
eskuen eta gure oinen bidez egin
daitezkeen gauzak egitea erabaki zuten.
Eta ez besterik»*

(Gandhi).

HITZAURREA

Berriz ere bihotzaren ikara, arimaren larri-mina, gaurko gizonaren barne-urduritasuna darabilzkigu Txillardegi-k bere bigarren liburu honetan.

Nobela ote dugu «Peru Leartzako-ko» hau? Ezin ezetzik esan; azken urte hauetan era askotako nobelak idazten baitira. Egungo anitz izkribu, nobelatzat hartzen direlarik ere, «nobela» egiazkoak ote diren zalantzan dabilta maiseatzaileak.

Era berean, «Peru Leartza-ko» hau ere, ez da ildoaz edo egituraz batere klasikoa; batere «nobela» beraz. Ahaide bat aipatu behar izatekotan, Franz Kafka da-torkit oroimenera, zenbait puntutan batez ere.

* * *

Zanpatuta zeukan Leturia (lehenengo obran) «aukeratu-behar»raren larritasunak. Bide bat hautatu arte, etsita dabil Leturia; eta hautatuta gero ere, etsiago. Gi-dari dituen absolutuak ez baitzaizkio sasi-absolutu bai-zik. Horregatik, nahiz eta ezaguerarik argitsuenean

aukeratuta ere, lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta haren gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu, hauts bihurtuta.

Alferrik dugu dena, dio Leturia-k; ezin daiteke ezer absoluturik aurki; geure inguruan topatu dugunak zeharo kutsatzen gaitu. Guk ez ditugu arazoak ez helburuak aukeratzen; baina bai berek gu.

Ia hitz horietxez dio Camus-ek; «Guk ezin aukera ditzakegu geure problemak. Elkargainka, berek aukeratzen gaituzte. Eman dezagun ontzat horretara aukeratuak izatea» (L'homme révolté).

Nahi eta nahi-ez, sasi-helburuak dira gizonarenak.

Beraz, aukeratzeko gauza ez garenez gero, hobe dugu geure burua eskaini («zakurrak bere nagusiari legez»), eta geure inguruan tokatu zaizkigunak maitatu. Hauxe da, gainera, bidezkoena.

«Leturia» liburuan, bestalde, irudipenetan aurkezten da dena: parkea, Miren, eta honekiko maitetasuna, Paris-a joatea, eta abar, sinboloak dira.

* * *

«Peru Leartza-ko» honetan, berriz, esan dudanez, egungo gizonaren larrimin hori agertzen digu berriz Txillardegi-k; baina lehenekoan aukeratu-beharra bazen larriminaren iturria, oraingo honetan igarokortasunaren oinazeak erdibitzen du Leartza-ren bihotza.

Lan egin beharra sasi-kezka bat da: berehala ikasten du Leartza-k.

Dena doa, dena iraungitzen da, dena ahazten da; dena, ahatik, alferrik da. Denak dakar gerora tristura eta dolorea. Horra hor Leartzaren irteera eta benetako kezka. Horra hor liburuaaren kakoa.

Sustraizko sendimendu horri, beste batzu erasten zaizkio gero; eta hau batez ere: gure nortasuna, gure «nitasuna», gure «ni» hau, egiazkoa al da? Ez ote gara amets beldurgarri baten jopu?

Aieru eta uste hauek txit zabaldurik daude. Oso berrikitan (1960ko Otsailaren 21-ean) esan zuen Karlos Santamariak, ia Peruk darabiltzan hitz berberak erabiliz: «Eta, ametsetan bezala, harrigarri ikusten du nork bere burua; bere bikoitza bera bailitzan gogoz eta ganoraz aztertzen du, gauza harrigarriak egiten eta esaten dituelarik. Nire kontzientziaren ispiluan agertzen den izaki hori «nor» ote den ere galdetzen diot neure buruari; nirekin benetako zer-ikusirik ote duenez; ez ote den ausaz, bere buruari axolarik batere ez zaion ikutu ezinezko mamutzar bat».

Horrela abiatzen da Leartza ere, eta berehala ikutzen dute Ekialdeko ideiek.

Leartza-ren tentazioa guztiz egiazkoa da, gainerakoan.

Aita Taysmann jesuitak, existentzialismoaren eta budismoaren arteko gora-beherak xehetasunez aztertu ondoren, hau dio: Joera bizia dago European budismoaren alde. Eta «arrazoinik sakonena hauxe da: antz harrigarria dutela Buda-ren pentsakeraren joerak eta gaur gure erresumak astintzen dituzten pentsakera batzuk. Existentzialismo batzuk eta budismoak dituzten antzak hain dira handiak, ezen baterekiko senditzen den atseginak, bestera eramaten baitu».

Ez pentsa, gainera, hau baitazpadako asmazio bat denik, edo literaturan aurkitzen den arte-joera huts bat. Ez.

Ekialdeko erlijioek oso lilura sakona pizten dute gaur Europako gizonarengan. Buda-renak batez ere (aldez

aurretik anitzi besterik iruditu arren) erraietan hunkitzen gaitu, giroari dagokion jokabide bat eskaintzen digulako. Budismoaren zirikaldia etsipen osoa izanik ere, guztiz da gaurkoa eta egiazkoa.

Katolikorik gehienek badute Aita Daniélou-ren aditza: Daniélou omen da katoliko kritikoetan finenetakoa bat. Askok, ordea, haren anaia bat budista egin zenik ez daki, eta erlijio horretan kargudun ezaguna dela.

Horixe da ere Delannoy andereñoarekin gertatua: 1954-an, Darjeling-ko «Gandhamadan Vihara» ordena hartu zuen.

Kristautu baino lehenago, Julien Green famatuak ere, sei bat urtez liluratu zuen budismoak; eta hala aitortu du. «Minuit» bere obran, esate baterako, heriotzaz eta nirvanaz arduratzen da batez ere, urte haietako bere kezka ezagun duela.

* * *

Giro hau nabarmenegi dago gehiago ekin diezaio-dan. Izpirituaren gora-beherak jarraitzen dituztenek badakite hau sobera; eta budistek berek ere, berdin. Euskaltzaleen artean ere, bada zenbait.

Makinismoaren atsekabea eta higuina, berriz, oso hedatuta dago gure artean. Gandhi, horregatik, beste bidearen aintzindari aparta eta paregabea denez gero, askok sendi du sorkalderako deia.

Vinôbak ere (Gandhi-ren jarraitzaileak) ez du apalago ikutzen Europako gizona: inginadore izaki, eta hamabost hizkuntzaz hitz egiten jakin arren, beti barurtan, beti oinez, eta dirurik sekula erabiltzen ez duen gizon argi batek, nola ez gaitu harrituko materialistok, eta agian bereganatuko ere?

Materialismoaren nazka senditzen duten guztiak pozik agurtzen dute India. Eta, bidenabar, «Hinayana»ren dei zirraragarria entzuten.

Ekialdearen handitasuna eta goratasuna orain hasi gara ezagutzen. India-ri batipat aiseegi gutxietsi genion.

Eta gaur presaren gure mundu ero eta huts honek ezin jar dezake hesi gotorrik hartara ez gaitezen.

Hain zuzen ere, anitzek uste du Ekialdetik etorriko dela berriz gure arimaren lokabetasuna.

Gonbarazio baterako, bi kristau handik (Lanza del Vasto, «barurzale» ospatsuak; eta Albert Schweitzer, Lanbarene-ko Nobel-Sariak) Ekialdeko jakintza eta jokatibidea goratzen dituzte. Eta ez sinkretismoarengatik, ezpada beroien uste gure izpiritutasuna Asia-ren bidez osa daitekeelakoan.

* * *

Leartzak, hortaz, joera zabal hori nortzen du bere buruan, Europako kutsua eta gogoia bere bihotzetik behin ere erauzten ez baditu ere. Leartza, zirikaldi irris-takor eta larrian jarrita ere, ezin eror daiteke: sasi-hinayana batetik ezin aurrera. Bide erdian gelditzen da, eta etsipen osoan.

Txillardegi ez dago hauzian, eskierki, ez alde eta ez aurka. Aurkeztu egiten digu bakarrik, bero-beroan eta bizian nahasia, gaur Europa inarosten hasi den kezka nagusia.

A.

Donostian, 1960-ko Otsailean.

Ostiral hartan ere berandu heldu nintzen ofizinara, askotan bezala. Ez beranduegi, egia esan: bederatzietan zen sarrera, eta bederatzia eta laurdena ziren ni hara nintzenean.

Ez nintzen beldur. Beldurra ez zen zeharo senditzen nuena. Baina bazen halako zerbait. Banekien istilurik gabe pasako ez zena. Olejua erretxina ohartua zegoela eskierki nire atzerapenaz eta, ohi legez, sekulako sesioa jarriko zidala.

Sartu naiz; eta, pentsatu bezalaxe gertatu. Agurtzeko bezala, aho-batez esan zidaten lankideek: «Izan duk hemen, eta hire berri galdetu dik». «Noski», neurekiko esan nuen.

Olejua hau ez zen nagusia. Baina gertatu ohi den bezala, nagusia bera baino gaiztoago zen. Gaiztoa zen, gizatxarra, zital alaena. Beti zirtzilkeriatan; beti amorratzeko zorian, edo garrasika. Eta, izan ere, zer zen ba Olejua fabrika hartan? Zer zen? Hango kontakatiua besterik ez; Etxeberria gure nagusiari xurikeria eginenez nekatzen ez zen lausengari higuingarria, hango «konfiantzako» gizona; nazkagarri bat.

Horixe zen Olejua: goikoekin leun eta goxo, behekoekin berriz garratz eta zakar. Toki guztietan ikusten dira zoritxarrez horrelako tipoak; eta han ere ez zen falta.

Berehala etorri zen nire ofizinara. Eta garrasika:

— Leartza: hau gehiegi da! Egunero gauza berberak esaten ari naiz!! Makina bat aldiz esan dizut bederatzietan sartzen dela lantoki honetan!! Eta ez zuk eta ez nik nahi dugun orduan!! —(Hau esatean gorri-gorri egin zen, ohi bezala, eta bestetango itxura eroa hartu zuen. Dardaraz zituen eskuak, eta hortzak behin eta berriz ikusten zitzaizkion)— Nik ez ditut gauzak alferrik izan nahi: burutzak emandako aginduak betetzeko gertu ez dagoenak, badaki zer egin behar duen: atea hartu eta hanka!!! Eta kalera joan ez zaretenok, garaiz etortzea duzue nahitaezkoa. Gainerako guztiek ondo ulertu dute hau: zuk ez beste guztiek!!! Hemengo kuttuna al zaitugu agian?...

— Ez. Eta ez nahi ere!!! —pentsatu nuen nik neurekiko, ahapeka esanez. Baina halere pittin bat entzun bide zen, eta zer egin ez zekiela atzera eraman zuen Olejuak burua. Olejuari errepikatu? Han ez zen sekula halakorik pentsatu.

— Zer? —erantzun zidan—. Zer da marmar hori? —Beldurtu egin nintzen. Sua zerion begietatik, eta apurtuko ninduela zirudien. Hura zen piztia! Kikildu egin nintzen, ergel hau. Gaur adina jakin banu ostiral hartan...

Nahi zuen guztia esan zuen, eta ni isildu egin nintzen; eta ez nion tutik erantzun. Nire ustez, aurpegian bertan nabarmendu zen nire beldurra, eta honek harropoztu zuen. Galduta ikusi nuen neure burua. «Lana galdua dut... lana galdua dut! Zer egingo dut nik, gizajo honek?», nirekiko.

Nik egiten nuen lana erraza zen; edozeinek egin zezakeena.

Bazekien hau Olejuak, eta nik Olejuak bazekiena ere bai. Ni botaz gero, segittuan aurkitu zukeen ni bezalako bat. Nire betebeharra nekagarria bai, baina erraza baitzen: ez zegoen ni kanpora bidaltzeko beldurrik. Zegoen zegoenean jarraitu zukeen denak ni gabe.

— Nola zer? —ekiten zion Olejuak nik baino ere goragotik.— Nola zer? —lepoko zainak lehertzeko zorrian handituta.— Nortzat naukak, txoro horrek? Gaur bereon jakingo duk dena, alajainkoa! Baina bitarte honetan, nik agintzen diat hemen. Etxe honetatik atera artean, neu nauk burua, neu!!!....

Eta «neu» esaten zuela, sekulako ukaldia eman nire mahaiaren gainean, eta hautsi egin zuen. Zulo bat agertu zen, eta honek lasaitu bide zuen pittin bat, ez baitzuen besterik ezer esan edo egin.

— Berehala konponduko dute —esan zuen ahapeka, eta joan zen.

Nolako nazka nirea! Lagunek ez zidaten ezer esaten: ezer erantsi behar al zen? Zuzendu nituen ahal zen bezala zuloa osatzen zuten ezpalak, eta eseri egin nintzen. Nire ezkerretan fitxeroaren kajoiak, egunero bezala nire zai; eta eskuinetan, ondo agirian ahantz ez zekizkidan, Olejuak utzitako berrehun bat paper. Horra nire eginkizun mamitsua... Mila peseta, eta errietak ere dohainik eta usu... Bapo!...

Huraxe bai nazka! Ezin Olejua madarikatu hura betirako ahantz! Ezin hari utz! Ezin handik eskapa! Gezurra zirudien...

Gauza batek behartzen ninduen hura guztia jasatera: dirurik ezak. Nire bizimodua ez zen eroso. Ostatu ilun batetan bizi nintzen, eta halaz ere bi hilabetetako dirua zor nion etxeko-andreari. Beti sosik gabe, beti zorretan... eta Olejua eraman beharra!! Gehiegi zen. Baina, zer egin nezakeen? Zenbatetan egin nion galdera hau neure buruari?

Nekez bazen ere, hasi nuen neure lana: ehun eta berrogeita-bost fitxa bete behar nituen. Nazkaren handia!

Baina... ez zegoen erremediorik, eta hasi egin nintzen. Egunero bezala hasi, gainera: gogait, gogoa handik at nuela.

Tinbre batek astindu ninduen. Olejua zen berriz. Erlojura begiratu nuen: hamarrak eta hogeita-bost. Igo nintzen haren ofizinara, nazka eginda.

— Leartza, pieza hauetako kopurua behar dut azkar.

— Barka. Ez zaitut entzun.

— Zuk ez duzu behin ere ezer entzuten! Zu tontoa zara! Lerrokada honetan dauden piezetatik zenbana diren jakin nahi dudala!!! Adittu al duzu orain?

— Bai jauna. Oraintxe...

Jaitsi nintzen, oraindik ere ahotsaren oihartzunek nigan zirautelarik, eta berehala ikusi nuen haietxek zirela, hain zuzen, osatu gabe nituen fitxak. Jakina: bezperan-edo Olejuak fitxategia miaturik, bazekien zer zen ondo, eta zer atzeratuta; eta hauetakoak aukeratu zituen.

Ez nekien zer egin. Olejuak, jakin, ez zuen ezer jakin nahi; ni nazkatu egin nahi ninduen. Gaurko zalaparta atzodanik zeukan pentsatuta, zerri hark. Aitzekia ederra goizean berandu ailegatzean eman niona.

Luzatuko? Egia esango ote? Horretan nenbilen, eta tinbreak berriz darauntsala, berak oso goraki, toki guztietatik entzun zekiokeela:

— Zer gertatu da, Leartza? Hamar ordu behar al duzu hamasei fitxa biltzeko? Horren motela izanik, goizago etorri behar zenuke goizetan. Ez da hala?

Nire barnea dar-dar. Gorroto, beldurra, nazka... dena nahasita. Igo nintzen.

— Fitxa horiek atzeratuta dauzkat.

— Beharrik! Joan zaitezke, hortaz. Ez didazu ezertarako balio. Alde, alde hemendik!!

Ezin ezer erantzun. Itxuraz arrazoin zuen gainera...

Neure ofizinaraz gero, paretan jo nuen eskuaz neure indar guztiez, eta harriturik nago orain hartan aztarrenik utzi ez nuelako. Hura nazka!

Erlojura begiratu nuen berriz: hamaikak hamar gutxi... Mantsoegi zihoan denbora...

Eguna igaro zen.

Handik ateratzean ez nekien zer egin. Kontua eska (nolako atsegina, Jainkoa), eta hara sekula ez itzul; Zuntzarri-tik Ameriketara joan; lan berri bat Zuntzarri-n bertan aurki, eta Olejua-ri utz... Ezinak iruditu zitzaizkidan denak.

Zinera joatea erabaki nuen gau hartan, zerbait aherentzi nahiz. Baina dirurik ez nuen, eta utzi egin behar beste batetarako. Ederra zegoen gaua; eta ostatu-ko neure gela ilunera joan baino, nahiago izan nuen paseo bat eman. Gau izartsua zen, epela, isila. Amets egin nuen behintzat, eta nire barnea baretu egin zen. Arnasa har nezakeen gogoz... Dena ez zegoen galdurik.

Biharamonean, eguerdi irian, Errodrigo topatu nuen lantokitik ateratzean. Gurasoak bidaiaz zituela ta, haren etxean dantza izango zuten zortzi mutilek eta beste hainbeste neskak. Janari, kap, dantza: hots, gaur «guateque» esaten duguna.

Ez nuen joateko gogo handirik, egia esan. Baina zer egingo bestela? Baietz esan nion.

— Neska leunak, artaburu —esan zidan Errodrigo-gok.— Ez zaik damutuko. Ba al dakik nor doan? Ana Mari, esate baterako.

Atsegin zitzaidan, bai: neska ederra zen Ana Mari hura. Eta hau gogoangarria zen: nahiko erraxa, nahiko eskurakoia, «oso» esango nuke gaur. Zer besterik

behar joateko, hogei-ta-bost urte izaki?

Joango nintzela agindu nion, ba, eta elkarrekin piska batean egonda gero, «bihar arte» esan, eta despeditu genion elkarri.

Agindu bezala, Errodrigo-ren etxera joan nintzen igandean. Berandu, berariaz, oso atsekabeak izaten baitira horrelako festen hastapenak; baina berandu iristea-gatik ere, berdin pentsatu bide zuten gehienek; eta han ez ziren haserakoan hamar lagun baino gehiago.

Etxe dotorea zuen Errodrigo hark, eta ni nintzen batzar hartan txiroena segurki. Neskak oso apain, alajainkoa. Ana Mari ikusi nuen: ederra. Baziren beste bizpahiru neska, ikustez nik ezagunak. Denak agurtu nituen irribarrez, baina zer esan ez nekiela. Geroxeago Monique azaldu zen hara, frantses neska xarmant bat; eta beste. Monique zitzaidan guztietan maitagarriena.

Hasi zen ba musika. Eta hasi ere zen jatea. Denok, diximulatzekotan nire ustez, jan eta edan ari ginen jotate; ez jateagatik beragatik, arratsaldeko sei t'erdia baitziren. Baina jate berean ez omen dago hitz egiterik; eta hauxe zen kakoa. Zer esango genion bestela elkarri hangoek?

Monique-rekin atseginez hitz egin bai, ahal baledi. Halere berandu nenbilen. Gero jakin nuenez, Erramunekin ateratzen zen azken bolada hartan, eta maiteminduta omen zebilen berarekin. Hortaz, deus ez.

Ana Mari-rekin mintzatu nintzen. Oso atsegina bera. Baina dantzan oraindik, inor ez zegoela-ta, ez nuen nik aurrena irten nahi eta han izan ziren batzu berarekin dantzan ni baino lehenago, eta konturatu orduko bakarrik nintzen, dantzariei so, eta kopa bat eskuan lagun.

Neure txanda heldu zitzaidan noizpait, eta hango ba-

tekin hasi nintzen dantzan. Ordurako nazkatzen hasia nintzen, ez baitzen han nire gustokorik Ana Mari eta Monique besterik. Gainerako guztiak ez zitzaizkidan atsegin, eta dantzan nirekin hasi zena ere ez. Are gehiago: neke egiten zitzaidan berarekin egotea. Ez zen egun hartako kontua, ez. Beti gertatu izan zait hori.

Eta nolabait jolaste arren, gauza harrigarriak esaten hasi nintzaion. Bestela, zer egin nezakeen?

— «Guatèque»tan eta horrelako zeratan, biziki jolasten direnek pena ematen didate. Benetan esaten dizut.

— Zer bada? —berak.

— Begira. Alaitasunez gehiegitan hitz egiten dutenek, tristerik dute barnea. Baina, zergatik izkutatu behar tristura hori? Zergatik egin behar festarik eta ezer? Esango dizut nik zergatik: tristatzeko zorian ez-baina tristerik daudelako. Tristerik egonda, ordea, ez dago zer izkutaturik.

— Ez dizut tutik ulertu.

— Ez da harritzekoa. Gaizki azaldu dizut. Honelako bilkurak eta jaiak ikusten direnean, badirudi barrez eta algaraz ibiltzea zaiola gizonari atseginena. Alaitu egin behar dela, alaitu. Baina, zergatik alaituko? Tristerik daudelako, eta tristerik daudela esateak lotsa erobat ematen dielako. Gure tristura hori ager ez dadin joan ohi gara jaietara; bizi-bizirik dugun larritasuna behin eta berriz estaltzekotan. Baina zarata handiagoa izan, eta mingotsago eta sakonago dator larrimina.

Bukatu egin zen diskoa. Nirekin zegoen neskak, harriturik begiratzen zidan. Pasodoble edo horrelako zerbait hasi zen; eta ez berari ez niri dantza egiteko atsegin ez zitzaigulako, eseri egin ginen.

— Segi, segi —esan zidan berak. Ez halere solasa axola zitzaiolako, itxura egiteagatik baizik. Berari ere lotsa ematen zion aspertzen zelakoa egiteak, jendeau-

rrean batez ere, eta besteek alai ikus zezaten, nire lagunek batipat, irribarrez begiratzen zidan eta azalpenak eskatzen zizkidan. Baina nirea, edo beste edonoren solasa, ez zitzaion axolarik. Berak uste izan ez arren, bistan zen haren azalgeria.

— Txoroa ote zaren nago.

— Ez dut uste. Zalaparten ondoren, esanei lotzeko, larrimina darraie. Eta anitzek uste du jaiak sortua dela. Ez horixe. Zaratak eta zarata-ondoak agertu egiten dute lehen eta gero ere dagoen iluntasuna. Besterik ez.

— Bai. Baliteke. Baina ez dakit.

Barre egin nuen. Ez zekien, ez; huraxe zen egia.

— Buruari eragiten ez diozula ezagun duzu, nire us-tez... —ekin nion zirika. Orduantxe konturatu bide zen zerbaitez eta oso gaingiroki, eta hasarre antzean erantzun zidan:

— Nahiago dut, horrelako txorakeriatan denbora galdu baino.

— Bapo! Zuk ere tristatzeko beldurra duzu. Eta horrela ez zara ezertara iritsiko: saldukeria egiten diozu zeure buruari.

— Nahiago dut halere —gogorki.

— Ba, atsegin-molde bat galdu duzu. Tristatzeko eta barnea goibeltzeko atsegin bizia.

— Harroxko bat zarela uste dut. Ez besterik.

— Baliteke. Baina esan dizudan guztia egia hutsa da. Ez da nik esana: askok pentsatu izan du berdin. Idazlerik ospatsuenek bi atsegin-min horiek nahasiz egin dituzte beren lan-ereduak: atseginaren hirrika eta atsekabearen gogoia. Biak; ez lehenengoa bakarrik. Negar eragiten duten filmeek eta idazkiek arrakasta handia izaten dute. Zuek, emakumeok batez ere, gogoz joaten zarete malkotan itotzera.

— Ideia harrigarriak dituzu —esan zidan berak.—
Ez dakit, ez dakit... Beldurra ematen didazu. Zuk gehiegi eragin diozu kaskoari.

«Eta zuk gutxiegi» erantzuteko zorian ibili nintzen.
Baina menderatu egin nuen neure burua, eta esan nion:

— Zergatik «gehiegi»? Zergatik ikusten dira gaizki «gehiegi» pentsatzen dutenak; eta burua orrazteko besterik ez dutenak, berriz, ondo? Zerorrek aipatu duzu zioa, nik uste: gu «beldurgarriak» garelako, eta haiek ez. Guk zuen sasi-bakea astintzen dugu, eta hori ez zai-zue laket, ez zai-zue eroso. Zuek —odol-bolada bat narbaritu nuen barnean— nahiago duzue trankil bizi, zeuen gezurrezko munduari eutsi, eta elizara joan. Halere askok, egiaz hitz egingo balu, mundua gorroto duela, eta mezatan folklore-ikuskari bat besterik aurkitzen ez duela, aitortuko luke.

— E? Baina zer diozu, ero horrek? —ebaki zuen.

— ... eta hau aitortzeak urduri edo barragarri utziko luke jende hori —ekin nion nik, neure pentsakera ongi borobildu nahian.

Orduantxe alde egin zidan berak. Eta haren ikarak atsegin eman zidan. Monique-rekin ez bazen, banuen behintzat jolas-modu bat.

Eta gehiago kezkatzekotan ekin nion, besotik eskuaz lotzen nuela:

— Jainkoarekin hitz egitea gauza ederra izango litzateke. Ni joan izan naiz elizarik bikainenetara, Jainkoa entzuteko asmotan hain zuzen. Beharrak eraginda joan izan naiz ni; ez ohitura zahar bati jarraitzeko. Baina behin ere ez dut ezer entzun; eta zuek sinestunok azterturik, azkeneko itxaropen-printzak iraungi zaizkit. Otoitz egitea ederra izango litzateke Jainkoa ba...

Askatu egin zitzaidan. Neska gajo hark usandutako gorputz bati bezala aldegiten zidan.

Ni munstro kiratsa izan nintzaion. Guateke batetan eta horrelako gauzak esaten... Konturatu egin nintzen, eta haren ondora joanik, zirikatu nahian esan nion:

— Aizu: atseginago al zaizu «fox»a ala «samba»?

— Utz nazazu baketan, mozkorra! —eta berriz ere joan zen nigandik.

Ordurako berotuxe zebiltzan denak. Hemen muxuka, han aurpegiak erantsita... Monique irribarrez. Honenkin mindu ninduen gehiena; eta harritu ere bai: Erramun-ek ez zekien tutik frantsesez, ezta Monique-k euskaraz ere. Zeri egiten zioten barre, hortaz? Elkarrizketa mamitsuagoa izan uste liteke, nirekin, biok daki-gun hizkuntza batez. Baina nik ez dut, nonbait, Erramun-ek duen gatza... Esaera zaharrak diona: «emok horari hezurra, emazteari gezurra».

Geroz eta aspergarriago zitzaidan hura. Nor berearekin denak aukeran. Gehienek arratsalde hartan berean elkar ezagutu zutela sinesten zaila zen. Bonbilaren bat itzali zuen batek. Muzin batzu neskek, baina denak pozik. Guztiak (nola ez!) ni ezik. Denok, hale-re, bat gentozen gauza batetan; itxura egiteko beharrean. Alaitzekoa nik argiak itzaltzean, hasarretzekoa berak. Joko bat.

Baina joko aspergarria, alajainetan! Milatan ikusiak nituen nik gertaera haiek. Milatan dena. Eta Monique gero eta xamurrago. Eta ni zai, kopa eskuan. Zeren zai, egia esan?

«Eta bihar lanera»... «Olejua madarikatua berriz topatzera». Haiek niri ez ohartzea ez zen zaila. Eta, horretaz baliaturik, gela apain batetan sartu nintzen. Leioak zabalik ziren, eta aurre-aurrean, eta bertantxe, zuhaitz baten adarrak ikusten ziren. Arrats ederra.

Bestetan konturatu nintzenaz oroitu nintzen. Guate-

keak ez ziren ezer niretzat: hura pasea zen. Muxu bat edo bi, edo bat ere ez; eta inoxokeria batzu bota, eta... zer? Ni aspertu egiten nintzen beti, ia guztietan. Eta nire lagunak ere ez gutxiago. Baina hori denok bagenekien ere, gaizki zen hala aitortzea; eta horrela beldurrak gailenduta, luzatuz zihoan itzurpide hura.

Eta, zergatik ez alde? Eta pentsatu eta laister, «baniak» neure buruari esan, eta...

Handik aterarik, itsaso aldera jo nuen. Hura bakea! Nire joateaz ez zen agian inor konturatu. Nahikoa zuten denek giro epel ketsu hartan. Hobe.

Hego-haize goxoa zebilen. Lizarreta aldetik gero eta bikote xamur gehiago.

Hura atsedena! Baina... berriz ere txorimaloa: bi-haramonean... Olejua! Eta etzi berdin, eta etzidamu, eta...

Gainerantzean, honela neraman bizia: helbururik gabe, neure buruaren ihesi sarritan, barne-egunsentia beharrik ikusi arte. Olejua-rekin izandako liskarraren ondoren, ez zen ezer handirik nabaritu, eta ez nuen lana galdu.

Izan nuen, bai, egunsentia.

Halako larunbat batez, lagunekin joan nintzen afal-
tzera. Gutxiena zen afaria: elkarrekin egote arren egin
ohi genituen sasi-afari haiek. Jatea bost axola zitzaigun.
Solasa, berriz, afalondoko elkarrizketa, oso mamitsua
izaten zen; eta honek hartaratzen gintuen astero-astero.

Nire lagun haiek oso xelebreak ziren horretan. Gauza
inportantez hitz egin nahi zuten; eta egiatzko nahia zen
beraiena. Baina hitz hutsetan galtzen zuten dena.

Ni ez nintzen iritzi hartakoa: nik asko sofritzen nuen
neure ideiangatik; eta Jangoikoagan sinesten ez nuela
aitortzean, ez nintzen berak bezala gelditzen. Horregatik
min ematen zidan askotan haien belaskeriak.

Baina, bestalde, Olejua-z ahazteko, zer egin neza-
keen egokiagorik? Horrela, ke eta zurrumurru hartan,

lasaitu egiten nintzen; eta hasarratzean ere, ihes egiten nuen neure larrimin estu hartatik.

Bazekiten denek Olejua-ren berri, eta beti esaten zidaten iristean: «Zer, Peru? Moldatu al haiz gaur? Esaiok goraintzi Olejua-ri, niketz. Gizajoak ere, aski dik bere burua eramanez». Burla gaiztoegia zen; baina haiek ez zuten hala uste.

Gau hartan arimaren kontuak izan ziren mintzagaia. Ba al dugu arima hilezkorrik? Heriotzak mugatzen ote du gizonaren izatea?

Eta (ondo gogoratzen naiz) gogorak esan nituen nik.

— Mundu guztiko gizonak, baita atzeratuenek ere —esan zuen Kepak— Jainkoagan sinesten ditek betidanik; eta orobat ere presunaren arima hilezkorrean. Zergatik hala? Sineste hori bere barruan berak daramalako; ohitura edo hazkuntzaren eragina ez delako. Gizonaren ariman zetzak hori.

— Ez diat uste —erantzun nuen nik.— Zenbat-eta atzerago jo, jakintzan ala denboran, hainbat-eta sineste eta ipuin gehiago.

— Ederki —esan zuen Manu delako batek, Errodrigo-ren lagun mina, nire basoa ardoz betetzen zuelarik.— Ederki esan duk. Edan zak, motek, bestela hire filosofia horrek akabatu egingo hau...

— Eskerrik asko —erantzun nion hozki.

— Jainkoa kentzen baduk, halere —errepikatu zidan Kepak— gehiago dituk sortzen diren problemak, argitzen direnak baino.

Geroz eta gorroto handiagoa senditzen nuen Kepa honenganako. Kristau batek egin lezakeen bezala hitz egiten zuen, baina jentilen biziera zeraman osoki. «Jainkoa kentzen baduk», ordea. Berak bai kendu.

— Bai, hala duk —nik—. Halere gauza bat ikus dezakegu egunero ondo agirian; ez dagoela mundu honetan sobrenaturalik ezer. Gure bizi guztian zehar, diruak agintzen duela, edo indarrak, edo naturalak azal dezakeenak. Gaiztoenek garaitzen ditek egunero, lapurrenak aberasten, eta zikoitzenak esku-zabaltasunaren erdutzat jartzen. Gure mundu honetan, zoritxarrez, azalkeriak agintzen dik, eta hala izanik alferrik duk besterik esatea.

— Hala duk, bai.

— Hortaz, zergatik izango da gero orain ez dagoenik? Alegia, bizi gareno, ez duk ezer nabarmentzen mundu honetakorik ez denik. Mundu honetako bereko arrazoinek azaltzen ditek baita izkutuen ere. Barre egiten ziotek Jainkoari harroek, eta ez zaiek halere ezer gertatzen; lapurra, berriz, denek hartzen ditek prestutzat, kalterik ematen ez dielarik behintzat. Ez zekiat deabrurik dagoenez; baina mundu honek nagusirik badu, hauxe dik jaun eta jabe.

— Alajaina, Peru! Gogor hago gaur. Hi, Kepa: emaiok edaten. —Eta eskuak igurtzi zituen Manuk, ari talka ikustera bailihoan.

— Bai —Kepak errepikatu zidan.— Demagun, bai, mundu hau guztia ifernu bat dela, deabrua buru. Eta, zer esan nahi duk horrekin? Nik esandakoak, noski, zutik zeudek hargatik ere.

— Ez. Bizi garen artean beste mundu batekoek ez, baina honetakoek berek agintzen badute, ezagutzen dugun guzti-guztian sobrenaturalik ezer somatzen ez bada, nondik nora erants gero? Eskierki ezagutzen dugun guztiak hemen bertan dik azalpena. Besterik duk esatea gure buruari atsegin ez zaiola hori. Hots: asma dezagun beste bat. Ondo duk: bainan ez zegok beste mun-

durik... Ezetz esaten didak buruaz, Kepa? Emaidak azalpen hau: bizi garen artean ez zegok ezer beste mundutakorik. Hil gaitenez, berriz, askok dionez, mundu honetakorik ez zegok deus ere, baina bestetakorik dena. Nola hori?

Pentsakor gelditu zen Kepa: ez zekien zer esan. Eta neronek ere ez; egia esan.

— Horra, bada —segi zuen.— Gure fede eta sines-te guztiak ez dituk, agiri denez, gure harrokeriaren sor-karia besterik.

Isildu egin ginen denok. Inarrosi egin zituzten nire esanek.

— Ikusi duzue? —esan zuen Manuk.— Utzi egin behar zaiok filosofiari. Ez dik atsekabeaz besterik ematen... Beste gauzatxo bat aipatuko banizue, berehala alaituko zenituzkete aurpegi goibel horiek. Ba al dakizue guretako batek hizkuntza-eskolak hartzen ari dela? —Lehengo solasari lotzeko inork ez zuen izan behar hainbat ausardiarik, eta haren galderari jarraitu zitzaizkion:

— Nor hala?

— Peru... Peru, bai, gurekin dagoen Peru Leartza berbera.

Une hartantxe konturatu nintzen. Ez zegoen espakatzerik: denek jakingo zuten dena.

— Bai, ba... Frantsesezko eskolak hartzen dizkik Monique delako batekin...

Nolako zarata! Denek ezagutzen zuten Monique, eta atsegin ere bati edo besteri zitzaionik ez nuke ukatuko.

— Da, non ikusi dituk? Arrano pola! zail duk ikusten —eta.

— Bai —jarraitu zuen Manuk—. Ezin asma dezakezue zein ederki itzultzen zion Moniquek atzo «Cabiria-ren gauak» filma...

Zintzoago jokatzten zuen orain Manuk. Harrigarria. Ez zen bestetara pasa.

Egia zen. Monique-rekin atera nintzen batzutan garai hartan. Ez nahi hainbatetan. Maiteminduta? Ez dakit. Baina nire egunetan zorionsuenak dira Monique-rekin pasatako haiek. Ordurarte musuek nire odola piztu ohi zuten; Monique-renek, berriz, bihotza. Bihotza eta odola ere bai, egia aitortzeko. Baina, beste era batetara. Musu haiek bazuten zerbait. Cupidarik? Egiazko maitasunik? Agian. Lehenengo aldiz musuak bazitzaizkidan gogoangarri. Nolako penak pasa nituen orduan beretan zuhurragoa izan ez nintzelako. Esnatu uste nintzen: poesia galdutako musukatze lizun haiek igarota, berriz senditzen nituen atsegin sakonak eta freskoak. Hauxe da hitza; freskura berria.

Zorionsu izan nintzen Monique-rekin egun batzuez, bi astez agian. Ez gehiagoz. Monique bere osaba baten etxean bizi zen.

Eta hona hemen gertatua. Jakin zuen Olejuak, ez dakit nondik edo nola, Monique-rekin ibiltzen nintzela. Eta, ez bat eta ez bi, kotxea hartu eta bere osabaren beraren etxera joan zen.

Zer esan ote zion xeheki ez dakit: Monique-k kondatu zidanez, etxekalte bat nintzela, nirekin atarramendu onik izango ez zuela, filosofia eta horrelako «txorakeriak» atsegin zitzaizkidala, eta nahikoa zela hau ni zertsu nintzen jakiteko; ez nintzaiola haren ilobari komeni; ondo ezagutzen ninduela ni bere fabrikari ni «zoritarrez» egonda, eta hitz batez esateko, nirekin jarraituz gero, segida eskasa izango zuela, berak aginduta. Eta abar, eta abar.

Nolako egunak pasa nituen nik ofizinan... Olejuak halere, ez zuen ezer egin bere bisita sala zezakeenik. Isildu egin zen; eta Monique-rengatik izan ez balitz, ez nuen sekula jakingo egun zorigaiztoko haietan gertatu zena.

Baina nik ez dut uste, Olejua gorroto banuen ere, asmo gaiztoz egin zuena egin zuenik. Ez. Berak ez zuen Monique ezagutzen, eta ez zen, alajainkoa!, errukior errukiorra... Ni gorroto ninduelako egin zuela? Baliteke pittin bat. Baina besterik zen zioa. Zorotzat ninduen, ergeltzat, ez dakit nik zertzat. Bera, nire ustez, munduan dagoen gizonik arbuiagarriena zen; ni, berebat, gizonik eroena eta kaikuena nintzaion zalantzarik gabe. Kupidagarri iruditu zitzaion, seguru asko, nirekin emakume bat ezkon zitekeela pentsatzea. Horixe iruditu zitzaidan niri ere berari buruz: ez niokeela horrelako senarrik desiratuko ezta deabruari berari ere, deabrurik balego.

Baina hala gertatu zen.

Orduan galdu nuen, neure ustez, nire biziari beste abiadura berri bat eman ziezaiokeena. Urtebete pasa baino lehenago, ahaztua neukan Monique, egia esan. «Bisitatik urrun, bihotzetik urrunago», esan ohi da. Eta Monique xarmant eder hura, berehala itzuli zen Frintziara, eta, geroztik ez nuen ikusi. Badakit ezkondu zena. Baina besterik ez.

Egun haietan, sinetsita egon, goizeko bostetan jaitzen nintzen. Eta zortzi t'erdia arte ikasten jarduten nuen. Etsaminatzeko erabakia hartu nuen, eta kosta ala kostarik, mirikuntzaren karrera egingo nuela. Liburuetan-eta ez zegoen koskarik: gidari ona nuen Mikel, miriku ikasle zen eta.

Indar berriak nituen egun haietan. Iraungo ote zuten duda izango dut beti; eta askok gogorazi dit: nire be-

roaldi laburra izan zela diote. Ez dakit. Ni, halere, gogotsu nenbilen orduan, bazegoen zerbait nire bizian, eta etorkizunean bazizekan argi printza batek.

Olejua-ri zor diot hortaz «mesede» hori ere. Nork daki handik etor zitekeena? Itxaropena galdu nuen, ilusioa iraungi zitzaidan, eta kitto. Jauste ikaragarri batetan erori nintzen, eta itzali egin ziren betirako amodio zoriontsu hartako garrak.

Aurrera zihoan denbora, eta nire pozak atzera. Nire biziak ez zuen bixigarririk. Larunbat askotan lagunekin joan afaritxo bat egitera, eta kitto. Bestetan, geroz eta gutxiagotan, neure gurasoen etxera joan ohi nintzen, igandea berekin pasatzera.

Halako batez, larunbata izanik ere, ez nintzen gurasoengana joan, eta «Lupiña»ra bildu ginen Mikel, Errodrigo, Manu eta ni laurok. «Lupiña» hau zen gure biltokia. Zuntzarri-ko murru zaharren ondoan zen, eta hara sartzeko, bideska ilun batetik pasa behar zen. Atea beti zegoen zabalik. Hiru eskailera jaitsi, eskuin aldera jo, eta beste ate bat irekirik, bazkal-tokia. Hiru mahai luze, piano bat atzean, eta... gizonak erruz. Gizasemeak bakarrik: emakumerik ez, inondik ere. Sukaldariak bezeroak berak ziren. Hara joaten ginen astero, esaten nuen bezala, gogoa piska bat laxotzera. Afalduta gero, hasi ginen kafeak hartzen, eta kopatxoak eta abar. Eta berehala nabarmendu zen ez zuela guretako inork etxera goiz itzultzeko asmorik. Egia esan, hauxe gertatzen zitzaigun astero: gogor egiten zela etxeratzea. Zertarako? Nirekiko behintzat etxeko-andrea oheratu gabe egonez gero marmarka egingo, eta ohean egonez gero ere, beldurrak ibili behar, lapurrak baikin. Ai! Orduan neure etxea moldatzeko izan nituen

gogoak! Ez nuen, beraz, etxera joan nahi: nahiago nuen edozein gauza, zulo ilun hartan sartu baino; eta, horra: zulo ilun huraxe zen nire bizilekua. Beraz, «oraindik» ez; «oraindik» goizegi... Noski!

Baina ezin zitekeen egonean egon, eta zerbait hartu behar zen. Jatekorik ez; gose ez ginen. Kafe bat, eta beste bat, eta beste bat; eta denak kopa batekin batera... Alegia, iraun egin behar zen.

Ordua begiratu, eta hura ikara. Goizegi zen: hama-bi t'erdia. Eta «hara» parrandan joateko beranduago joan behar. Ez nintzen orduan oso gautxori, eta piska bat motelduz gero, loak hartzen ninduen. Erne irauteko, edariari eman behar, hortaz.

Gaueko ordu bata aldean, txerbel ginela, hartu genuen Olazarraga-ko bidea. Olazarraga-ko kaleak medarrak dira; eta, gauez batez ere, itsusi itsusiak. Hant-hemenka argi distiratsuak, kolore askotan: kabareten ateak. Gainerako lekuan, ilunpe beltza.

Gizon asko ohi zebilen han gora eta behera. Gizon asko eta emakumerik ia bat ere ez. Honek harritzen zuen gehiena hangoa ez zena, ez baitzen kasikan gizonik besterik ikusten. Noizean behin, egia esan, emakumeren bat igarotzen zen, nasai eta narratx; edo portaletara agertzen. Baina bakarka.

Auzo hartan jolastu egiten omen zen; eta neronek hala esan ohi nuen Olazarragaz hitz egitean; baina haratzen nintzeneko, ez nion neronek ere mamirik aurkitzen libertsio-toki eskasari. Baina hau alde zurratik jakin arren, eta larunbatero frogaturik ere, astero lerrotzen nintzen harantz. Huraxe zen nire zorigaitza: ezetz esateko ez nuela adorerik; baina baietz esatean ere, gogo gutxirekin abiatzen nintzela.

Bazuen auzo hark halako berezitasun bat; baina tris-

tura garratza zerion. Hura guztia, iluna zen; eta argi-aluntzio haiek, sasi-alaitasunezko garrasi urragarriak ziren.

«Baiao-Dancing» zelakoan sartu ginen. Etorri berria omen zen hara emakume aparta bat, eta Manuk nahi-ta-nahiez sartu gintuen. Gainezka zegoen tokia. Aurre aurrean tauladoa. Piano zahar bat, estalkirik gabe: ez goiko aldean ez behekoan. Berau ere, hortaz, argiak bezala, eta hango guztia bezala, larrutua, bipildua, lumatua. Marinel batzu, barraren ondoan, kantari hasi ziren górrak berak ere entzuteko moduan. Alajainkoa! Hizkuntza zeharo arrotza; itxura ere ez gutxiago.

Sei «gorri» eskatu genituen, sei cognac alegia. Eta nork ordainduko, pokerrean aritu ginen. Manu, Mikel, Errodrigo, ni, eta han topatu genituen beste bi, Errodrigo-ren lagunak segurki. Ez dakit zenbat ordaindu nuen: asko... Baina ordu bata t'erdia ziren, eta artista famatu hura ez zen oraindik azaldu.

Egon horretan geundela, sua eskatu zidan hango p... ihar batek. Manuk eta Errodrigok bazuten bertatik zertaz hitz egin. negargura ematen zuen haren aurpegiak: haren begiek ez zuten argirik, eta hotz-hotzak ziren. Hura ez zen emakume bat. Eskatutako sua eman nion. Labankeria bat egin zidan eskerrak ematean. Berriz ere, ardo eta ke usai hartan bertan, goragalea nabaitu nuen. Eta, neure kasa, adiskideei kasorik egin gabe, koktel luze eta bizi bat eskatu nuen.

— Ahalik eta fuerteena izan dadila.

Zurrut batez edan nuen: sutan jarri zitzaidan ezta-rria, sutan gero urdaila. Alaitasun zoro bat hasi zen nire buruaz jabetzen; eta hobetoxe sendittu nintzen, tran- kilago, alaiago. Olazarraga ere alaiago zitzaidan.

Hasia zen dantzan Rose Duclair. Soineko luze-luzea

zeraman, eta mikrofonotik xentimetrorik batere urrun-
du gabe kantatzen zuen, eta halere sobera entzuten ez
zitzaiola. Mozkor-ahotsa zuen. Entzuleak haserre,
entzule ez-baina ikusle izan nahi baitzuten. Ni neu ere
berdin.

Goitia eta Mendieta ere hara azaldu ziren. Manu eta
Errodrigo, berriz, orduan galdu ziren. Elkarrekin joan
ginenak sakabanatu, eta han topatuekin elkartu: hau-
xe zen legea.

— Hi, atera itzak hona sei whisky. Aguro, —Goitia
hark esan zuen.

Ez zegoen ukatzerik.

— Istimatzeagatik hartuko diat —esan nion.— Bai-
na alkola darit.

— Zer istimatu, eta zer istimatu ondo! Edan egin
behar duk. Gizon gizonak ez ditek istimatzeagatik eda-
ten, txoratu gabe patxaran edan dezaketelako baizik.
Zortzina whisky hartu dizkiagu dagoeneko honek eta
biok, eta hemen gaituk: erne, eta beste hainbeste eda-
teko gertu.

Zalaparta ikaragarria jarri zen bat-batean. Berriz ere
atera zen Rose zelakoa, eta hangoak begi huts egiteko
asmo tinkoan... Hasi zen kantatzen eta mogitzen; ha-
ren lizunkeria zabarrek izkutatu egiten zuen beraren
edertasuna. Txorabio betean hala igarri nuen. Eta nar-
da sakona eman zidaten haren keinadak eta likiskeria
eragabeek.

Alde egin nuen. Bakarrik. Itzali egin behar nituen
zuhurtasun printza haiek. Ezertaz ere konturatu bitar-
tean, amorratzen ibiliko nintzen. Hots, mozkortu egin
behar nuen gehiago, oraindik ere gehiago, zeharo.

«Hollywood»en sartu nintzen. Rita Smith delako
bat. Beste koktel bi edan nituen. Eztarria sua zen. Bu-

rua zeharo nahastua. Lortua nuen: ez nintzen neure bu-ruaren jabe. Ametsetan bezala konturatzen nintzen gau-ze; eta ametsetan bezalaxe, erdizka konturatu bai, egu-nez baino zorrozkiago agian; baina han irauteko ego-ki. Bestela, itzarrik, ez neukan Olazarragan gelditzerik.

Marisa topatzea erabaki nuen: hauxe zen hango ni-re laguna; eta maite ez banuen ere, atseginago zitzai-dan gaua berarekin igarotzea, beste edonorekin baino. Zergatik hala? Adiskidetasun pitin bat bagenuelako.

Neska hark, nire ustez, suerte txarra izan zuelako. Ez hau bakarrik, noski. Berak aitortzen zuenez, lizun-koia izan zen oso gaztetandik; baina ezkontzeko agin-dua batek eginda gero, haurdun utzi zuen. Eta bizitze-ko gogoia galdurik, hartara jo zuen gero, bere sorterrria betirako lotsaz utzita. Berak zionez, oso familia abe-ratsekoa zen haren senargai hura, eta aurretik ezerk ez zuen salatzen lotsagabe hark nahi zuena. Baina gero, Colombia-ra joan zenean, ez zegoen ezer egiterik.

Nire adiskideen ustez hau ipui bat zen. Baina nik ez dut uste. Hobeki esan: nik eskierki dakit ezetz, ipuia ez dela. Marisak ez zidan niri gezurrik esaten.

Aurreko larunbatetik ez nuen ikusi. Haren etxera-ko bidean eskailera zabal bat jaitsi behar zen aurrenik, hogeitau edo hogeitau-hamar mailatakoa, portalera iriste-ko. Eta, haietatik jaistera nindoalarik, burutapen bat izan nuen: «eta nik neure burua hemendik behera bo-tako banu, zer? Zergatik jaitsi behar ditut banaka-banaka?». Ez nuen nabaitzen pisutasunik, eta handik behera jaurtitzea ez zitzaidan astakeria bat. Botatzeko zorian ibili nintzen, beraz; eta ez dakit nolatan ez nuen egin.

Gerozkorik ez naiz ia ezertaz oroitzen. Marisa-rekin oheratu nintzela bai: oroitzapen atsekabea dut gau har-

takoa. Ardo gehiegi sabelean.

Biharamonean gaizki, oso gaizki nintzen. Gaixorik edo pentsa liteke. Sekulako errieta nire etxekoandreak; eta ez zen harritzekoa; oka eginez pasa bide nuen gaua. Lekuko higuinarriztat nire maindireak.

Buruko minaren handia! Lehertzear irudiz. Eta igande txarra, alafede, biharamon hartakoa...

Zorigaiztoko larunbat hura ere, ez ote zen negargarria? Baina ez zen lehenengoa, eta ez azkena ere, zoritxarrez....

Hurrengo astelehenean nekez jaiki nintzen.

Loren-ek esnatu ninduenean, ametsetan ari nintzen. Eta nolako ametsak! Ez naiz gogoratzen zehatz, eta gertaera ez dakit; baina algaraz esnatu nintzen. Bakarrik egon arren barre egiten nuen, nahi eta nahi-ez bezala. Alai nintzen, eta zerbaitek barregura handia eman zidan.

Gutxi iraun zuen halere alaialdi hark. Astelehena zen. Begiratu nueneko zortziak eta hogei-ta-bost, eta ofizinara joateko bazegoen kilometro bat. Beraz, errieta Olejua-rekin. Aginduta.

Kolpe bat eman nuen neure kamaina itsaskorrean. Beranduegi zen, bai, baina neurekiko hasi nintzen pentsatzen: sei egun pasa dira, zazpi egun hobe. Bada-tor berriz ere eguneroko zurrunbiloa: jaiki, lanera, bazkaldu, lanera, gaua eta berriz ere dena. Beti bat. Goi-zean esnatu, eta arratsaldeko zazpitan gogoia; egun guztian bizi ez-baina iraun eta itxaron. Eta zazpitan, berriz, berehala aspertu, zer egin jakin gabe askotan. Eta berehala gaua; eta afaldu beharra, eta abar. Eta berdin ere biharamonean. Behin eta berriz, eta mila bider berdin. Astean behin atsedenaldira bat: igandekoa.

Segundo motz bat; eta mende bat gero Olejua eramaten, paperak kopiatzen, txatxukeriak entzuten... geroz eta azkarrago zihoazkidan egunak. Biziera jiraka ari den kurpil ero bat iruditu zitzaidan goiz hartan, geroz eta arinago dabilen zirimola bat. Igandea tximist labur bat bihurtu zen. Laister egiten zen kurpila, amets izugarri bat bilakatu arte.

Eguzkia atera berria zen. Itxaropenez beterikako eguna izan liteke hasten ari zen hura; eta askok halakoa izango zuen beharbada. Nik ez: atera berria nekusen eguzki hura, izkutatuta edo izkutatzeko zorian egongo zen, ni ofizinatik irten orduko. Nik ikus nezakeena hauxe zen; egun hura, zoragarria izan edo okaztagarria, galduta zegoela alde zurretik niretzat. Eguzkia ateratzen ikusi nuen bezalaxe, sartzen ere ikusiko nuen. Baina bietan Olejua-ren jopu naizela. Egun hura derrigorrez zimelduko zitzaidan esperantza bat zen: alferrik zen.

— Beharrera, Peru, beharrera! Berandu duzu —ekiten zuen Loren-ek, atean joka.

Hura nazka!

Kontsolamenduak hasi ziren berriz. «Egia esan —neure artean— sei egun ez dira horrenbeste. Erraz igarotzen dira. Berehala helduko da asteazkena, eta biharmona osteguna da; hots, astean behera goazke... Gainera ahaztuta nengoen: ostirala jai da. Beraz, astelehena, asteartea... asteazkena aldapan behera da... Larunbata ere berehala pasako da. Motel: ez duk horrenbestereinoko!»

Baina, hortaz, sei egun horren erraz igarotzen badira, zer da urte bat? Edo bi? Edo berrogei?. «Berehala joango duk», esaten ari naiz, tonto hau. Oharkabean indar handiagoa eman zio edo karia horri, eta zer gerta daiteke nire bizieraz? Laburrago egin astea, eta la-

burrago ere egingo nire bizia. Geroz eta gehiagotan zetozkidan pentsamendu ilun hauek.

Nazka senditu nuen. Neronen akabatzea zitzaidan kontsolagarri... Hura astakeria! Olejua-ren aurpegi gorrika gogoratzen zitzaidan, eta beraren begi urdinak; eta goragaleak zetozkidan. Goragaleak, bai, berriz ere aguanta behar... aste osoaz... Haren ahotsa gogoratzen zitzaidan, haren garrasiak, haren harrokeria; eta lanera joango ez nintzela pentsa zitekeen. Nolako gorroto etsia nirea!

Bederatziak hamar gutxi ziren. Berandu. Iskanbila seguru Olejua-rekin: beranduegi zela, astelehena zela, eskutitzen bat... zerbait bazukeen ordurako pentsatuta. Seguru.

Ez naiz oroitzen; baina oso berandu iritsi nintzen astelehen hartan ere ofizinara. Olejua-k, beti bezala, ergeltzat eta zozotzat hartu ninduen, noski; eta ondo goraki jakinerazi ere, niri buruz inor gezurtara ez zedin... Baina hainbestetan gertatuz gero, ez zuen astelehen hartako errietak aztarrenik utzi, eta ez naiz ezertaz oroitzen.

Eta ez dut ezer galdu.

III

Halako batez, jaiegun batez, Xabier neure laguna topatu nuen. Bakarrik zetorren; eta bakardadetik. Nik aginduta. Hura poza! Xabier honek nik baino gauza gehiago sinesten zuen; eta bazuen kristau fedea. Baina, halere, hitz egin zitekeen berarekin: jakinduria handiko gaztea zen, eta nolana hiko iritziak entzutea gustatzen zaien horietakoa.

— Kaixo, Xabier, zer dugu? —esan nion nik.— Aspaldi honetan elkar ikusi gabe. Zer habil, motel?

Eta, segittuan, bere besapetik liburu bat kentzen niola:

— Beti bat hi. Ikusita zegok; hi bizi haizeno, horretan egongo haiz.

— Bai, Peru. Arrazoi duk. Ez zeukeat erremedio-rik. Bazekiat.

Titulua begiratu nuen.

— Alajainkoa! Bergson! Ez haiz hortaz makaldu, e? Beti ari zen irakurtzen. Nire ustez egiteko honetantxe pasatzen zituen egunak eta urteak.

— Eta hi, zer? —galdetu zidan.— Zer egiten duk?

Horren harrigarri al zaik bada Bergson edo nor-nahi irakurtzea? Horraino jaitsi al haiz?

— Ba, egia esan —erantzun nion nik— nahiko eskastuta negok alde horretatik. Ez zaidak oraindik irakurtzeko gogoahitu. Hau ez. Eta hauxe duk nire hondamendia. Baina irakurri, oso gutxi irakurtzen diat bolada honetan. Are gehiago: lerrorik batere ez ikusten saiatzen nauk. Badakik esaera famatua: aberetu egin beharra zegok. Beste biderik ez.

— Baina, zer ari haiz esaten? Hori guztia hoben larria duk; eta higan harrigarri gainera. Zer gertatu zaik, motel, horren hiletari egoteko?

— Ezer ez. Zenbat denbora da azkeneko aldiz elkarrekin izan ginenetik? Bi hilabete? Urtebete? Zer axola! Hori ezer ez duk, ez baita dena. Halaz ere, ni joan nauk.

— Hori hala duk, horretantxe negok ni ere. Baina, utzi egin al diok irakurtzeari? Hori beldur hutsa duk. Heure buruaren beldur haiz hi...

— Ez, ez. Pasa diat haro hori.

— Ez diat uste. Lehen, orain dela gutxi arte, oker ez banago, berandu arte gelditzen hintzen irakurtzen. Jakin-min ikaragarria huen, eta hori ez duk bat-batean asetzen. Hori ez duk egarria. Edo, nahiago baduk, egarria baldin bada ere, ez zegok berarentzako edari egokirik. Egarriak egon behar bizi artean.

— Hala duk —erantzun nion.— Egarri duk bizia, ezin asezko egarri lehorra. Egarriaren egarri. Gure egarri egartsua asetzeko, hondar kiskalgarri bat daukagu emagarriztat: bizi-nahia. Bizitzen segitzeko nahi diagu bizi. Baina bizi gareno, aspertu egiten gaituk, edo larritu. Beraz, ez zekiagu zertarako bizi garen; baina baze kiagu larriminetik ez dagoela ihes egiterik. Horrela, ohi-

tura atsekabe egiten duk biziera; eta hiltzea bera zail gertatzen.

— Hik ez dakusak bidea. Kupidagarri haiz, benetan.

— Hala negok, bai. Baina hi heu ere bai; eta ez haiz oraindik konturatu. Hori ez duk larrimina. Hire fedea tentazio hutsa duk. Ez al duk ikusten? Nik, berriz, desegin egin dizkiat nigan lilura guztiak. Erauzi egin diat dena.

— Heure burua hil duk hik, eta hori hobenik izugarriena duk. Ez nitek nahiko neure gain hire erantzun-beharra. Hi eraile haiz, Peru.

— Nik ez diat hil. Kolpatu egin diat bakarrik. Baina zoritxarrez ez diat akabatu egin.

— Ez ezak ba akaba. Garaiz duk oraindik. Salba hadi, lot hakio Jainkoak bidalitako azken aukera horri.

— Ez, ez zegok salbatzerik, hik nahi duan eran behinik-behin. Hik nahi duk, hots, sinesten duk: Unamuno-ren itzurpidea. Nik, aldiz, nahiko nitek, hik bezala; baina ez diat sinesten. Hik falta duan ausardia diat nik.

— Harrokeria duk hori. Musika ez diat senditzen; hots, musikarik ez zegok. Baina zergatik ez diogu Jainkoari entzuten? Jainkoa ez delako.

Kolore guztiak ziren zeruan. Ilunabar ederra. Nik esaten nuenaren kontrako deiadarra zirudien ikuskari zoragarri hark.

— Begira ezak, Xabier. Ederra, ez da? Bada, dasta dezagun, goza dezagun. Ez zegok besterik eta.

— Zer nahi duk, ba, Peru? Pena ematen didak. Ikusi arren, hi itsua haiz. Hire helburua ez duk inondik ere hobe, begietan itsutasuna duenarena baino.

— Ez diat uste. Ai, zuek, xingleok, hilda gero berriz minutu batetarako piztuko bazinete... Damuaren

handia! Ezerk ez dik merezi. Eroak gaituk gizon guztiok, eta honek kontsolatzen gaitik. Askok eta askok, gehienek eskierki, nahiago ditek eroso eta segur bizi, zuhurki baino. Are gehiago: zuhurtasuna deitzen ziotek erokeriari.

— Ez zekiat nola esan dezakean hori guztia. Bistan duk betebeharrak batzuk merezi dutela; eta anitz gauza, berriz, deus ez dela: heure teoria edo horiek, gonbarazio baterako.

— Hori ez zegok garbi inondik ere, Xabier. Nik ere, hamalau edo hamabost urte nituela, misiolari joatea pentsatu nian. Hura bizia! Dena eman, dena eskain... ederra benetan. Baina gero konturatu nauk ez zela misioa ederra, ez zela bidezkoa alegia; ez nuela egin nahi nire betebeharrak hura zelako, ez; hura handia zelakoan baizik. Egiak ez ninduen deitu, ba; handitasun-lilurak egin zidaan dei. Baina misiolaritzan ez zegoan oinarririk, ez zegoan asmoa egian finkatuta. Bikaina zuan, hau bai, Jainkoaren ideia bezala. Besterik ez.

— Beraz, zerk eusten hau hi? Zeri lot hakioko?

— Atseginari. Gide egoki iruditzen zaidak. Oraingo une laburra diagu. Goza dezagun, ustia dezagun.

— Eta biziaren bidaia nahasi hau bukatzean? Ez al duk zerraldoan amets egiteko beldurrik?

— Lo... lo... Amets agian... Hamlet-ek zalantza hori zian oraindik. Nik ez. Bidaia bukatuta, ezta lo ere. Akabo!!!...

Iluna zen dena, eta Xabier-en barnea ez argiago agian.

Udan asko nozitu nuen. Emakumeen beharra ez zen nigandik urruntzen. Andregaiak behar nuen, bistan zen.

Noizik behin Monique-k nire biziera alda zezakeela.

Maite izan nuela iruditzen zitzaidan.

Orduan, berriz, ihartuta-edo nintzen: ez nintzen maitemintzeko gauza. Neska asko eta asko, biziki atsegin zitzaizkidan ezagutu artean; baina ezagututa, beroien ondoan hizketan egon eta, lan alferra iruditzen zitzaidan maitemintzen saiatzea. Itsusi ere ematen zuten bertatik, eta arrotz batik-bat.

Arratsalde batez, ofizinatik aterata, D. topatu nuen kale nagusian. Freskagarri bat hartzera gonbidatu ninduen, eta istimatu egin nion.

D. ezkontuta zegoen: hogeit hamar urte izan arren, bazituen bi seme. Irmo hitz egiten zuen, eta bazirudien gizon interesantea. Nire ustez, halere, ez zuen ezer tinkorik haren atzean. Polliki esaten zituen gauzak. Bidajantea zen, eta bazuen automobila eder bat. Emaztea eta familia Bartzelonan zituen. Ezkondu baino lehenago Zuntzarri-n bizi izan zen; baina, lau urte hartan, udan etorri ohi zen bizpahiru aste pasatzera, eta berriz Bartzelonara.

Berehala ondoratu zitzaizkigun Ana Mari eta beronen lagun bat. Ana Mari zoragarri zegoen; baina, nik banekien, itxura hutsa zen. Neska hark ez zuen giharrik; kaskarina zen, txoriburu, ergela ere bai noizean behin. Baina ederra benetan. Errodrigok ez zidan behin ere ezer esan berari buruz; baina elkarrekin ibili ziren lau hilabetez... Nahiago dut beraz ez segi; Errodrigok, ondo ezagutzen dut nik, ez zekien-eta ortzeko izarrez hitz egiten...

Dena zen irribarrez.

— Zer moduz, Peru? Aspaldi honetan elkar ikusi gabe?

Eta segittuan:

— Hona hemen X.X (ez naiz haren izenaz oroitzen).

Nik ez nien entzuten; baina hura mintzo behar amorratua. Eta zeharka D-ri begiratzeko zion Ana Mari. garbi zen eginkizuna: aurkeztu egin behar nien D. Bekaizkeriak autsiki ninduen.

— Hemen duzue D. nire laguna... Ana Mari... eta...

— Berak moztu zuen, izena emanaz.

Eseri egin ziren gurekin, eta hasi ginen hizketan. Hura hitz jarioa! D-k zirkinik egin gabe entzuten zien, la-sai, berak zekien bezala.

Bat-batean zeharo aldatu Ana Mari-ren aurpegia; eta isildu egin zen. Harrigarria.

— Goazen —esan zuen orduan. Eta biak joan ziren, D. barrez hasten zela.

— Zer gertatu da, D.? —galdetu nion harriturik.

— Gauza barragarri bat...

Nolako poza harena!

— Hasi zait Ana Mari edo delako hori gehiegi alegeratzen, eta ez konduta nagoela esan diodanean, harriturik gelditu da. Ez du esan behar ez denik ezer, baina berak besterik uste du nonbait, eta zeharo lotsaturik gelditu da. Gajoa.

Begiratu nion eskura: D-k ez zeraman eraztunik.

Barrez hasi nintzen ni ere.

Baina, berehala, pentsakor jarri nintzen. Bost axola zitzaizkion emakumeak D-ri: auzi hori guztiz ahantzi-ta zeukan. Eta horretatik zetorkion oreka hark kezkatzen bide zituen emakumeak. Baina banekien nik haren arrakastaren berri.

Bekaizkeria nabaritu nuen harekiko. Nigan emakumeak istilu nagusia baziren, harentzat entretenigarri ziren... eta horregatik agian liluratuta uzten zituen. Itzalarrekin gertatzen dena: «segi ezazu, ihesi doa; ihes egiozu, ondolik duzu».

Hartuko nukeen. Baina, ikusten denez, nik ez nekien ihes egiten. Eta egiten nuenetan ere, ihartzen zidaten emakumeek sasi-ihesa zela bakarrik nirea, eta xelatan begiratzeko nuela ondotik ote zetozenetz...

Aro hartan maiz horditzen nintzen. Batzutan kordea galdu arte; bestetan, berriz, berotuxe gelditu artean bakarrik. Nahiago nituen erdi-mozkortze hauek; guztizkoak baino. Mozkortzen hastea gustatzen zitzaidan batik-bat. Baina oso etsita nengoenetan, eta hau sarritan gertatu ohi zitzaidan, zeharo mozkortzeko gogoak ematen zidan; dena ahantz, neure egiazko biziera alde batera utz, lilurak berriz sendi, gezurrezkoak baziren ere; bizitzeko alaitasuna berriz nabari... Are gehiago: serioegia nintzen ni (besterik iruditu arren), eta neurez ez nuen alegerantzia ardoaren bidez eskura ahal neza-keenez gero, zergatik esan ezetz?

Ni mozkortzen nintzenetan oso berritsu bihurtzen nintzen, eleketari porrokatua, hitzontzia. Aho batez esaten zidaten hau lagun guztiek. Baina, entzutea, halere, laketa zitzaidan: ez edonor, «xelebreak» ziren nire kuttunak gau haietan. Oso atsegin zitzaidan berekin ihardutea. Une horietan gizona ari da, eta ez beronen eskola itxura. Mozkorren bidez ikusi izan dut nik garbi, gizon guztiek pairatzen dutela. Askori, mozkor daudelarik, entzun diot lehenengo aldiz egiazki mintzaten: arimako oinazeak gau minean entzun ditut, ez eguerdi aldean.

Gizon zentzudunak gutxiesten nituen orduan ere. Eta poziago joaten nintzen gauez etxekalte eta alprojekin hitz egitera, neure lagun gehienekin baino: haien istorioak entzunez zoriontsu nintzen ia. Beretako gehienak mundu guztiak arbuiatuta zeuden. Guztien ustez gaiztoak ziren, alfer lotsagalduak, edo gizarteko honda-

kinak... Askok ez zuten lanik egiten, eta gurasoen edo familiakoen lepora bizi ohi ziren. Lan egin beharrarena gogorra ez zuten sekula ezagutu, eta bekaizkeria apur bat ematen zidaten: ni baino argiago ziren alde horretatik. Alegia, lan egiteko gauza ez ziren, eta kitto: lanik egin ez, eta hor konpon. Olejua ezagutu balute...

Gau izartsu hartan nirekin zegoenari, bere bi arrebek ematen omen zioten jaten; etxeko gainerantzekoek ezer ez zekitelarik. Etxearen atzeko aldera joaten omen zen arratsaldeko hirurak aldean; eta han, izkutu izkutu, janari batzuk ematen omen zizkioten platera batetan; eta honela, eskale bailitzan, iraunez zihoan; eta biziko bazen, horretan egon beharko...

Askok aldegiten zion gizarajo hari. Marinela izan omen zen gaztetandik. Eta gerratea iritsi zenean, itsasoan ere egin omen zituen gerrako bost urteak. Eta geroztik omen zebilen hain eskas.

Urpeko ontzi edo submarinoan pasa omen zituen hiru urte t'erdi eta Walcheren-go batalla, berak ikusitako azkena, ez zitzaion behin ere ahantzi. Gizarajoa! Izerdi patsetan jartzen zen kondatzen zuenean; hots, gertakari izugarri hura berriz gogorazten zuenean, bizi egiten zuen berriz dena.

Beraren ontzia urpetik omen zihoan. Hondorago jaitsi behar omen zutela, ba omen zekiten denek: ohar-tuak zitzaizkien alemanak, eta pittin bat deskuidatuz gero, sakon-bonbaka hasi, eta kitto. Zirkinik egin gabe bada, begiratzen omen zioten denek elkarri. Ordu gehiegi omen zen urpean, eta bero izugarria omen zen barne heze hartan. Izerdi tantoak berehala egiten omen zuten beren bidea masailean zehar. Dena isilik. Beherago eta beherago. Eta bonba lehertzearen zai. Ikararren lazgarria! Bihotzeko taupadak geroz eta asalduago

nabaritzen omen zituen. Eztarria, berriz, estuegi omen, eta ezin txistua irents.

Horretan zeudela, dunbada izugarri batek. Denak zerraldo erori omen dira. Ohartuak dira alemanak; du-darik ez. Eta eskapatu egin behar urpetik, eta eginahaletan. Hura ito-beharra! Ezin bizi, ezin arnasa har, ezin zutik segi. Makinen usaia, gero eta biziagoa eta sarkorragoa, kea, beroa, hezetasuna; eta dunbadak eten gabe. Batzuk hasneke bezalako min batek jota bezala dau-tza, nekelarrian. Bera ez haseran, zionez; baina halako ordubete hilgarria pasa ondoren, hasi omen da ere arnasa ezin hartuz, eta itotzeko zorian bezala. Hil pentsatu omen zuen irmo. Arnasa behar omen zuen, aidea, aide bolada fresku bat... Baina ezin...

Atera omen ziren bizirik. Baina ordutik honantz ezin omen zezakeen ordu erdi batez ere iraun toki itxi bate-tan. Kanpora atera behar omen zuen nahi-ta-nahiez; ala hil.

Ez hau bakarrik. Neronek ere askotan ikusi nuen gero kale-izkina batetan, geldirik, eta arnasa bat-batean hasnekeak emango balio bezala hartzen: hiltzear dire-nen gisa betetzen zuen bularra, biriketan mina nabari-tu arte, nire ustez. Eta geroz eta gehiago, geroz eta ge-hiago altxatzen zituen besoak. Horrela minuturen bat pasatzen zuen, eta gero bideari ekiten zion, jendeak ikusi zuela nabaritu ere gabe.

Edatea beharrezkoa omen zuen. Ez, halere, trabe-na batetan gelditzeko: ez horixe. Edateko behar adina irauten omen zuen bakarrik barruan. Gero, kalera, egu-rastera, larritasuna hasi baino lehenago.

Alfertzat zeukaten herrian, eta berak izugarri sofri-tzen bide zuen hargatik. Bera ez omen zen alferra: ito egiten omen zen, eta honegatik ez omen zezakeen lanik egin.

Pena eman zidan. Eta pena honek biziki larritu ninduen. Xabier-i esan nion bezala, hil egin nahi nituen sendimendu guztiak, gupida guztiak, errukiak oro, kezakak, gorago-nahiak, dena. Hilkontza honetan saiatzen nintzen aspaldi danik; baina agirian zenez, oraindik bazen nigan gizontto bigun bat, belaxka bat: erdi-kristau bat. Eta akabatu egin nahi nuen hura. Baina... urruti oraindik.

Mariñel izandako gizarajo hura ez zen ezer nire bizian. Mozkor-gau batetako laguna, besterik ez. Gogortzat neukan neure burua, emakumeetan soin huts bat ikusten nuelako. Baina zorigaitzoko bihotz bat ere banekukan, sendikor, errukior, besteren zorigaitzek oraindik ikutzen zutena.

Bigunkeria printza haiek itzali egin behar ziren; baina ez nekien nolatan.

Dena dela, aitortu egin behar zen: gizon hura ez zen alfer bat. Eta eroa al zen?

Kepa eta Manu topatu nituen «Lupiña»-enean handik egun gutxitara, eta hartaz hitz egin nien. Hots, zer ote zen mariñel hura? Baita eztabaida beroa sortu ere!

Manuk, beti bezala, arinki ikusi zuen auzia; eta alferza zela esan zuen. Haren ustez ez zegoen erdian geratzerik. Eroa zen ala alfer hutsa. Eroa baldin bazen, nola ez zuen ezer okerrik esaten? Ezagutzen omen zuen berak; askotan hitz egiten omen zuten elkarrekin, eta ez omen zitzaion erosotasunik inondik ere nabaritzen. Noizean behin xelebrequeriaren bat esaten omen zuen, bai. Baina eroa? Ezta gutxiagorik ere. Gogor hartu behar zen, besterik ez. Arrebek omen zuten errua, jaten ematea gatik. Gogor, gogor egin, eta aurrera. Dagoeneko sendo egongo omen zen.

Kepak alderantziz ikusten zuen. Hura ez zen alfer-
rra, honen iritziz, eroa baizik. Ez zuen ezagutzen, bai-
na entzun zuena aski zuen zertsu zen jakiteko. Astake-
ria nabarmenak egitea ez zen beharrezkoa haren erota-
suna aurkitzeko. Ondo agirian zegoen gertatua: «Wal-
cheren-go batallak zeharo ikutu zuen, eta zoratu egin
zen haren ondorioz. Horregatik ez zuen lanik egiten:
barne-oreka galdua zuelako.

Ondo zegoen hau. Manu-ren azalpena baino zorro-
tzagoa zen. Batallako «shock»ak gehiegi astindu zuen.

Baina lehen esan dudan bezala, ez ninduen honek
ere bete. Bistan zen gizarajo hura ez zela alfer bat. Ha-
ren erotasunaz, bestalde, zer pentsatuko? Ez dakit.

Agian erotasunak azal lezake dena: eroa zen, bes-
terik ez. Baina niri ez zitzaidan uste hau gustatzen: xin-
pleegi iruditzen zitzaidan.

Mariñel hark ez zuen lanik egiten; alegia, asko lan
egiten zuen bere barruan, baina diruaren aldetik, ez zeu-
kan bizimodurik. Jendeak bezala hitz eginez gero, ez
zuen «lanik» egiten, ez baitzuen sosik irabazten...
Demagun.

Baina, zein zen karia? Zergatik ez zuen mariñel hark
lanik egiten? Sasoian zegoen soinaren aldetik: sendoa
zen eta berrogei urte ere ez zituen. Alde honetatik, ba-
da, ez zuen aitzekiarik: egin nahi ez zuela pentsa lite-
ke, Manuk, uste zuen bezala. Baina entzun ditzagun ma-
riñelaren beraren hitzak:

— Ezin dezaket lanik egin. Ito egiten naiz, Walche-
ren uhartearen ondoan geunden egun hartan bezalaxe.
Kanpora atera behar dut nahi-eta-nahi ez. Bestela, ito
egingo nintzateke.

Beraz lanekoa baino egiteko premiazkoago bat ma-
riñelak: hondoratze izugarri hartatik libratzea. Pena

ematen omen zion lanik ez egiteak; baina beste gauza hura egin beharrean zen: itotzetik begiratu. Horregatik pausatzen omen zen kale-izkinetan: arnasa sakonki hartu beharrez. Eta, orain ez: baina haseran ba omen zen denaz konturatzen; jendeak ikusi eta barre egiten ziola, eta abar. Baina Walcheren-go oroitzapenak menderatzen zuen dena, haren barrunbea zoko guztietaraino hedatzen zen; eta azkenean ez zegoen kalerik, ez jenderik, ez ezer. Izerditan hasten zen, gero antsian, eta azkenean... Walcheren-en zen berriro. Bizirik atera behar zen, baina haizerik ez zegoen. Eta berriz orduko larritasun hilgarria.

Baina ez zen egiazko hondorapen bat: ez zegoen itsasorik, ez ontzirik. Walcheren-go gudua sei urte lehenago gertatua zen, eta Zuntzarritik mila eta bostehun kilometrotara. Halaz ere gizarajo harentzat, nahikoa: izan, hura ez zen hondorapen bat; baina bazitzaion berari. Besteentzat ezer ez zen gertatzen; baina bera han bertan, hiriaren erdian, ito egiten zen bere hondoratze izugarri eta eguneroko hartan.

Batek esango dit agian Kepak bezala: «eroa zen: hondoratzeko arriskurik ez zegoen han». Baina orduan ez legoke hondorapenik. Oso gutxi baitira itsaso egiazkoan hondoratzen direnak; denok, berriz, hondoratu ohi gara geure barne-itsasoan. Negoziotako gizonak negoziotako konduetan itotzen dira egunero, eta gau guztia lorik egin ezinean pasatzen dute; bestek famaren kezka bizian; eta beste askok amorrainen munduan: bihar horrelakoa harrapatu behar dute, eta horretarako hau eta hura eraman behar dute... Are gehiago: egiazki mintzatuz gero, eta horrela ari naiz, zenbat ikaratzen dira bekatu egin dutelakoan, eta Jainkoaren zigorraz oroituta? Baina Jainkoa ez da, mariñelaren itsasoa ez da goen bezalaxe.

Ez, ez. Hura ez zen eroa. Gainera berak bazekien behintzat zertan zen bere kakoa. Zoro argitua zen: bazekusen zerbait. Zerbaitez konturatzen zen, eta senda zitekeen agian.

Gu, besteok, ez: ez zu eta ez ni ere. Ezin dakikegu guk geure erotasuna zertan datzan. Geure baitan omen gaude.

Hots, okerrago gabilta gu, hura baino. Mariñela irudia argitsua zen guretzat. Haren itsasoa gizonaren asmamena da, eta haren ontzia guztion bizia. Hots, denok gaude haren hartan.

Eta burutapen harrigarri bat izan nuen orduan; eta, itsasoa eta ontzia mariñelaren burutik ken balitez, zer gerta liteke harengan? Bakea, bakea nonbait...

Ez nekusen ongi. Baina ideia honetan bazen asaldatzen zuen zerbait. Eta asaldatu ondoren, ideia horrek berak lasaitzen ninduen. Izugarria zen somatu nuena!!!

Itsasoa eta ontzia geugan akaba bagenitza...

IV

Olejua-ren istiluak ez ziren bukatzen, jakina. Egun askotan banuen nik neure sesioa berarekin. Lehen adina gorroto ninduen berak, eta nik ere bera geroz eta gehiago.

Tinbrea jo nuen egun hartan. Igo ni, eta galdera xehe bat berak: «zein egunetan jaso genituen horrelako tainainako barautsak?». Baziren almazen hartan mota guztietako tresnak, eta neurri guztietako barautsak. Nola jakin nezake, denaz gainera, horrelako xehetasun bat?

— Barka ezazu —esan nion—. Berehalako batetan begiratu, eta esango dizut.

Alajainkoa! Haren zainak lehertzeaz jarri ziren, bes-tetan bezala:

— Kaiku kirten zozo hori: nik ere bazekiat irakur-tzen! Apurtu egingo hinduket!!!

Ez zegoen erremediorik: muturrak nik hari hauts, ala berriro ere isil. Hau aukeratuko al nuen?

Ez dakit zer esan nuen. Nazka; nazka, nazka: hau-ze zen gainezka bete ninduena. Gaizki eginen nuen hu-rra berriz ere eramanez. Desmasia gehiegi ziren. Barnean

sua, galda gorria! «Noiz arte iraungo, Peru?». Odol olatuak loetan.

Olejua-gana igo nintzen lehertu beharrez. Ez nintzen neure buruaren jabe; nazkaren horditzea zen. Ezagutu duenak badaki zer den: sukarra, urduritasuna, eskuintara edo ezkerretara jo-beharra, ezin iraun bat, eroaldi beldurgarria.

— Adi zak —nik berari—. Hemendik aurrera egin ezak heure ama ohakide, baina nitaz ez duk barrerik egingo!!!

Eta, esate berean, sekulako ukaldia eman nion sudurrean, atzeraka lurrera boteaz.

Heldu egin ninduten. Odoletan zen Olejua. Odola ikusita areago sutu nintzen, eta kolpe batez helduta ninduten bi lagunak jaurtiki nituen atzera, eta aulki bat hartu nuen bi besoez. Jotzera nindoalarik, berriz lotu ninduten lau edo bosten artean. Ezin arnasa har. Indarka egin nuen, baina ezin aska. Behera jaitsi ninduten denen artean. Dendako guztiak eta Etxeberria bera ere, han ziren niri so. Piztia higuingarria bide nintzen ni.

— Kanpoan zaude oraindik beretik —esan zuen Etxeberriak. Nire lagunek izuturik begiratu ninduten, baina ez zuten txintik atera nire alde. Ni mutu nintzen, noski, eta larde-jario; eta tutik ateratzeke alde egin nuen handik.

Ez nintzen gehiagotan itzuli, eta behin ere azalduko naizenik ez dut uste.

Loren neure etxeoandereari ez nion ezer esan: istilu galanta zetorren, eta ez zen presarik. Lehendik ere, dirua zor nion. Beraz, lanik gabe gelditu nintzela baleki, kanpora. Isildu egin nintzen, egun batzuez behinik-behin luzatzekotan.

Baina gauean etxera iristean, sobre bat aurkitu nuen

neuretzako ohearen gainean: «Peru Leartza--Eskuz esku». Ireki egin nuen. Behin ere ez zait ahantziko diruketa hura: 1362,35 peseta. Gutxiago ezin eman: hala frogatu nuen kalkuluak eginez. Zitalak!

Halere ez zen hura harritzekoa. Alderantziz gertatu izan balitz, orduan bai urratu beharra. Paga zitekeen gutxiena eman zidaten. Noski. Besterik egin al lezake bada Olejua madarikatu hark?

— Badakit dena —esan zidan Loren-ek, nik usterik gutxienean—. Goitik behera kondatu dit dena. Ez zaituta espantuka ikaratu nahi; baina uler nazazu: irabazpidea galdu baduzu, eta ordain ez badiezadakezu, nik ez daukat irauterik. Epe bat emango dizut; baina hura amaituta konpondu ez bazara, kalera joan beharko duzu.

— Ondo da —erantzun nion. Eta gelako atea itxi nuen.

Etxera joan behar. Ez zegoen beste erremediorik. Etxera joan, egia esan, erdizka bahinik-behin, eta beste bizibide bat aurkitzen saiatu. Familiakoek ez zidaten dena sinetsiko; eta errita egingo zidaten. Baina ez zegoen gustoko biderik; eta ahal zitekeen hartatik jo behar. Baina joan baino lehenago, neure gogara bizi nahi nuen egun batzuez. 1362 peseta ez ziren asko; baina aste oso bat primeran pasatzeko adina bai. Eta nik huraxe nahi nuen, huraxe behar nuen.

Dantzara joatea erabaki nuen aurrena. Nora? «Soloarte»ra, Lizarreta-ko bidean, hots, itsasoari so.

Ahal nuen dotoreena jantzi, eta harantza abiatu nintzen bada. Bidenabar, halere, loteria erosi nuen: bostehun peseta hartu nuen. Behin ere ez zitzaidan ezertxo ere irteten; baina berriz ere saiatu behar nuen: tokatzekotan aberats. Astakeria zen agian hura; baina neure

onetatik aterata nintzen, eta ez nuen inolako neurririk nahi. Dena lor, ala deus ez.

«Soloarte»-ra iritsi nintzen. Gaua ederra zen, eta handiko ikuskaria ederragoa. Dantza-lekura sartu nintzen: neska franko, eta gizon asko, gehiegi. Flirt bat behar nuen, ahalik eta eroena. Ez nuen nahi, beraz, emakume seriorik: emakume gazte eta ugaritsu bat behar nuen. (Egia esan, beti nahi izaten nuen halakoa; baina egun hartan gogotsuago).

Eta horrela ezagutu nuen Bego. Gero ikusi dut ez zela hain joria, baina egun hartan besterik iruditu zitzaidan.

Hotzean jokatu nuen haseratik. Hiruna whisky hartu genituen biok, eta alaitu egin zen bera... nola ez! Gauza harrigarria: haseratik izan bide nintzaion atsegina (gutxitan gertatzen zaidana), eta harengan ez bide zegoen nirekiko hesirik. Ezagutu eta ordubetera, ezpainenetan eman nion musu haragikoi bat, gau hartako lehenengoa, pistan bertan; eta handik aurrera esan nizkion zurikeria guztiak ontzat hartu zituen.

Atera egin ginen. «Soloarte»tik Zuntzarri-ra baziren bi bat kilometro. Bide iluna zen, bikoteek maite zizutenetako bat. Oinez joatea erabaki genuen.

Kaminoaren alde batetan, baziren pinuak, eta han geratu ginen berriz abiatzeko presarik gabe. Ni pozik, noski, ez bainuen besterik bilatzen. Bera ere atseginez, iduriz.

Toki itzaltsu batetan eseri ginen, baina patxaran halere. Bera hordituta bezala zihoan etxera. Sinetsi ezina zen: arratsalde hartan berean ezagutu elkar, eta haraino ailegatu?

Biharamuneko bostetan elkarrekin zinera joatekotan gelditu ginen; eta piska bat ahantzi zitzaidan neure egoera. Gaitzerdi!

Zer ekarriko ote zidan biharamonak?

Hurrengo egunean ondo apain jarri nintzen Bego-gana joateko. Urrintzatu ere egin nintzela gogoratzen naiz.

Bera ez zen asko berandutu: berehala azaldu zen esandako biltokira. Blusa urdina zeraman, eta gona hestua. Ederretsi egin nion.

Urduri zetorren; alegia, lanetik lehenago ateratzeko asmatu zituen gezurrek, ez bide zuten sobera lasaitzen. Beharbada norbaitek ikusiko balu... orduan konponketa txarra izango lukete berak kondatutako ipuiek.

Bego jostuna zen. Neskazar errabiatu baten menpean lan egiten zuen, eta, esan zidanez, ordu gehiegiz aritzen zen egiteko hartan. Oso gutxi ordaintzen omen zioten; eta berehala konturatu nintzen haren egoeraz.

Zine batetara joan ginen bost et'erdietan, ez dakit zer ikustera. Iluntasun hartan doi-doi agertzen zen haren begitartearen hizla, eta arrotz gertatzen zitzaidan. («Nor ote da hau?»). Bestetan, berriz, segittuan agian, adiskide eta ezagun. («Bai, bai, Bego da»). Gehiegi hitz egiten zidan: dena zen galdetzeko zio. Batzutan liluratuta bezala harrapatu nuen niri so: printziperen bat al nintzaion? Azkenean, hainbeste galdera eta erantzun ondoren, ez nuen pelikula ulertu; eta gogait xamar irten nintzen zinetik.

— Zer iruditzen zaizu Anduaga aldera joatea? —galdetu nion—. Itsas ertzetik zihoan lehendabizi, Lizarrretan barrena, eta gero bide txior eta ilun bat zen, Anduaga-ko parkerantz. Bazter polita, benetan.

— Ederki, bai —erantzun zidan.

Neure biziera piska bat azaltzeko eskatu zidan. Eta azaldu ere nion. Baina, nolako azalpena! Nire ustez, esan nion guzti guztia, haseratik azkeneraino, gezurra zen. Hari esan nionez, maisu nengoen eskola batetan; eta txolarteetan Filosofia ikasten ari nintzen, karrera

honetan lizentziatzeko asmotan... Umezurtz nintzen umetandik, eta emakumeak ez zitzaizkidan axola... Halaxe zen azken bolada hartan; eta berdin ere Bego-rekin; hark haragikeriarik izan ez balu, akabo: ez nukeen berarekin ordubetez ere iraungo.

Neure burua gehiago apaindu nahian, gauza harri-garririk asko esan nion gaixoari, ideiarik arruntenak eta jakinenak bailiratekeen; eta bera lotsaturik zegoen bere ez-jakinean.

Lizarreta-ko paseoa bukatuta, Anduaga-ko parkearen ondoan geratu ginen. Gaua zen: udazkeneko gau epel eta isil bat. Denboraren arnasa etena zen han, baina ez Zuntzarrin: denboratasuna hotsean datza. Isilak geldi erazi egiten du denboraren ihesa.

Debeku zen arrats ondoren Anduaga-Enea-n sartzea. Horregatik sarrerako atea, egunero ixten zuen parkezainak, aurretik tutu batez hiru soinukada emanda gero. Baina parkea zabala zen, eta aurreraxeago Lizarretatik beretik aisa pasa zitekeen barrura; sasiak-eta baziren tartean; baina pasa egin zitekeen, pinadia bukatuta.

Eta sartu egin ginen gu biok. Enborren eta adarren artetik Zuntzarriko argiek distiratzten zuten, eta itsasoa lotan zetzan... Musu luze bat eman nion, eta heze xamar aurkitu Bego-ren ezpainak.

Giroarekin batera zihoazen nire hitz leunak, eta egiazkoak ziruditen, eta bero-beroak; baina hotzak ziren eta gezurrezkoak. Halarik ere mihiztoari darion pozoiak bezala, nire aho faltsutik isuritzen ziren eleek zeharo xoratu zuten. Eta, indarka labur baten ondoren, neurea izan nuen...

Anduagatik itzultzean negarrez hasi zen bera.

— Egina damutu ala? —galdetu nion.

— Ez nauzu maite, Peru —berak erantzun—. Bada-
kit ez nauzula maite. Are gehiago: neure bizia oraintxe

emango banu zure maitasuna inguratzeko, badakit alferrik izango litzatekeela. Alferrik da, eta dateke: igarri egin dut. Zu ez zara sekula nire izango...

Zoratu baten hitzak zitzaizkidan haiek.

— Nik, ostera, zu aurkitzean, seguru nago, maita dezakedan gizon bakarra topatu dut. Ez dut zalantza-
ren arrastorik. Zeu zara, Peru, eta betirako gainera, nire maitea.

Eta zotinka hasi zen, bere indar guztiez ni besarkatuz.

— Ezin hau!! —ekin zuen.

Eroa iruditu zitzaidan. Ez zidan gupidarik ematen, zehatz gogoratzen naiz: ikusgarri bat bezala nekusen haren negarra, eta zorionak eman nizkion neure buruari: gogorturik ote nengoen? Bazen garaia! Bigunkeria txiki bat izan nuen bakarrik, nahiz osoa ez izan, neure buruan pentsatu bainuen. Etxerako bidean, ostegunean elkar ikusiko genuela agindu nion, zeren pena-ixpi bat nabaritu nuen haren malko eten-ezinak ikusita.

Haren etxean utzi nuen. Beste musu bat eskatu zidan joaterakoan. Nire gorputzak ez zuen ia sukarririk: lasai zen. Hots, zegokionez, musua ere hotza izan zen, nire arimaren hoztasuna baitzeraman hutsik.

Berriz ere negarrez hasi zela uste dut, baina ezin esan, korrika joan zitzaidalako.

Nire gogortasuna harrigarria zen, benetan. Aurre-
rapenak egiten hasia nintzela zirudien.

Garaile nintzen. Lasaitasun fisikoa nabaritzen nuen, lazotasun epel batek hartua zuen nire soina. Zalantza hau bakarrik: zer nintzaion ni? Neu, ala beste bat? Egia esan, zer axola niri? Baina «beste bat» izan nintzela jakin banu, nire harrokeria minduko zen, eta nahiago nuen garailea neronen nortasuna zela sinetsi. Ez ninduen besterik ezerk kezkatu gau hartan.

Agian, seguru aski hobeki esan, komeria hutsa zi-

ren haren eginak oro; eta hain gogorki jokatu ez banu, gogoz joko zidan adarra... zeren, ezin sinets zitekeen berak egina egia zenik...

Pentsamendu hauek, alabaina, itsusiak ziren, eta ez nituen aintzakotzat hartu.

Gero, noiztenka, ohean nintzela batez ere, neure egoera kezkarria bururatu zitzaidan. Gogorra zen nire kinka. Nondik joko?

Gogorra zen, bai.

Osteguna iritsi eta ez nengoen ahaztuta: huraxe zen Begori esandako eguna. Joateko gogo-arrastorik ere ez nuen. Zer egingo ote nukeen nik bostetatik hamarrak arte? Izugarri luze gertatzen zitzaidan epea, ez bainekien inondik ere bost ordu haiek zertan erabil. Tontotzat hartu nuen berriz neure burua: eroa al nengoen, bada, elkarrekin bost ordu oso pasatzeko moduko zita bat antolatzeko? Pikuan al nintzen agian halako ergelkeria erabakitzean: bostetan Bego topa, eta seirak jo, eta zazpiak, eta zortziak... eta oraindik elkarrekin? Zertaz hitz egingo nion horrenbeste denboraz? Nora abiatuko? Txorakeria, bai, eta txorakeria galanta gainera, bigunaldi hartan egin nuena.

Ez neukan joaterik, garbi zen. Baietzik eman ez banion, hobe; baina, emanda gero ere, huts egin beharko nion. Gupida zirudien zerbaitek ikutu ninduen; baina barregura eman nion nik neure buruari, eta erabakian finkatu nintzen: bostetan ez nintzen hara azalduko.

Gandera-mendira joan nintzen. Olazarraga ikusteko gogorik ez nuen, eta atzekoaldera abiatu, itsaso zabala ikustekotan, Xabier neure laguna topatu nuen. Ederki bizi zen, benetan: lanik gabe nengoelako ikus nitzakeen nik Gandera-tikako bistak. Baina bera, agirian zen, noiz-nahi joaten zen nora-nahi. Lehenengo

unean ez ninduen ikusi: liburu batetan murgilduta zegoen, kanpoko edo inguruko ezertaz konturatzen ez zela.

— Kaixo, Xabier —agur-egin nion ia bertatik.

Pittin bat harriturik gelditu ondoren, eta gertatzen zenaz kostatu ohartuta gero, erantzun zidan:

— Zer da?... Kaixo, Peru! Ustekabean harrapatu nauk, eta ezin nintekean horretara itzul. Zer moduz?

— Hementxe ba, paseatzen. Hau ederra zegok, eta tokia ezagutzen duala bistan duk. Zuhaitzen itzala ez duk hemen falta; eta baduk, batera, eseritzeko belar gizen xamarra. Ondo zegok, bai!

— Halaxe duk, Peru. Eseri hadi hi ere. Bazegok hirtzako leku txukuna eta erosoia, ikusiko duk.

Arrazoi zuen.

— Nola hemen hi? Utzi al diok lanari?

— Ez, baina libre negok; eta neure askatasun hori gozatzen ari nauk. Azkenik, eta era txarrera bada ere, lanik egin gabe bizitzea zer den jakiten hasia nauk. Eta egia aitortuko diat: ederragorik ez!

— Bai, horretantxe negok ni ere. Baina, nola bizi haiz? Zertaz alegia?

— Ezertaz ez. Nahiago diat goseak hil, hil arte horretan bizia ustia badezaket.

— Bai: txantxetan ari bahaiz, ongi zegok. Baina harritura naukak. Bost et'erdiak dituk; eta honelako gairaitan ez haut hemen behin ere ikusi.

— Hala duk. Baina lanik ez diat. Zer nahi duk egitea? Gure aurrean itsaso zabala.

— Egitan? Zerbait gogorik izan al duk Olejua edo delako horrekin?

— Horixe bai. Eta lanetik bota niautek.

Keinu bat egin zuen.

— Ez nauk halere harritzen. Harekin gaizki konpon hintekeen hi, nik dakidanez. Olejua hura, oker ez ba-

nago, goikoen alde zegoan beti, eta hi beti ere goikoa-
ren aurka. Hura dagoen guztiaren aldeko bide duk, eta
hi kontrako. Munduaren alde zihoak hura, eta hi kon-
traka. Eta ez zeneukaten ongi konpontzerik.

— Guztiz ongi azaldu duk.

— Eta orain zer?

— Ez zekiat. Oraingo z ongi bizi. Bania gogo orain
bizi naizen bezala bizi ahal izateko. Heurea bai mau-
ka! Goizetan eskolak eman, eta arratsaldeetan heure ka-
sa. Hori bai mauka ederra!

— Nirekiko hala duk. Baina aspertu egingo lituz-
kek asko nire honetan baleude.

— Ni ez, sinetsita egon. Pozik hartuko nitek nik
hire biziera hori.

— Tira bada. Has hadi, eta nahi izanez gero, esku-
ratu egingo duk; lehendabizi zail xamarra izaten duk;
baina bizitzeko adina behar baduk bakarrik, moldatu-
ko haiz denbora gutxi barru.

Nolako poza nuen erraieran!... Baina nik ez nuen
titulurik, eta ez ezer... Hamasei urte nituela hasi nin-
tzen lanean. Muitza-n lehendabizi, nire herritik hiru ki-
lometrotara, zapatari zahar batekin; eta gero Zuntzarri-
-ra hogeita-hiru urterekin etorrira, Olejua madarika-
tuarekin. Hots, nik nekiena, neronen aldetik irakurri
nuenari esker nekien. Helburua ederra zen, bai, baina
alferrik zen. Noiz ikasiko? Nolatan? Nola lortuko nuen
eskolak emateko behar den legezko gaitasuna?

— Ez zekiat ba, Xabier. Ez zekiat. Berandu duk.
Epe bat beharko nitek horretarako. Edo... ez zekiat!

— Zer egin behar duk, hortaz?

— Ez zekiat. Ez zekiat ezer, ezer ez diat ikusten, ez
nauk ezertarako gai, ez zeukeat laguntzarik batere... gu-
rasoak ere probe dituk... Aidean negok.

Eten egin zen solasa, eta biok itsaso aldera begiratu.

— Ikusiko diagu. Itxaron egin beharko, —nik.

— Ez uste izan, gainera —ekin nion nik oso etsitadeto nagoekin. Ez, ez. Alde batetik pozik negok. Barkaziorik ez diat behin ere izan...

— Eta, legeak?

— Legeak ongi dituk. Baina bizi egin behar duk. Eta Etxeberria hark, bihotz-bihotzean mina hartuz atsendenaldi bat ematen zigunean gurasoen etxera joaten ninduan ni beti; udan baitziren beti barkazioak, eta lanik handiena orduantxe baitzen nire gurasoen dendan.

— Gogorregia benetan.

— Bai, eta erants egiok horri guztiari arimaren kezka, eta egia ezin aurkitzea. Eta ongi ulertuko duk orduan lehengo egunean esan niana: mundu honetan ez dagoela ezer bidegabekeria eta indarra besterik; indarririk ez duenak ederra egin dik. Eta hauxe duk nire kaso.

Xabierrek ez zekien zer esan.

— Hi oso ederki bizi izan haiz beti, Xabier. Gaztetan karrera bat egin, estudianteen bizimodua eraman bost edo sei urtetan... Primeran! Besteon bizia ezagutu ez duzenok bakarrik uka dezakezue zeuen gaztaroren zoragarria. Zuek, dirudunok, minkatza zer den ez dakizue.

— Esajeratzen duala uste diat. Nik ere bazekiat ongi lanaren beharra zer den.

— Hik ez diok antzik ere ematen. Egunero arratsaldeak libre dituen batek, jakin dezakeela uste al duk ausaz? Ez, Xabier, ez. Zazpi urte jasan behar dituk aurrena zapatari baten istiluak, eskaratze hestu eta ilun batetan; eta gero, lau urtez Olejuaren zitzalkeriak egunero eta orduoro zanpatzen hauela ikusita; eta hamai-ka urte pasa behar dituk horrela, norarik gabe, are gehiago: sosik gabe! Hire barruan osasuna nabaritu, bizigogoa, maite-mina, zeruaren urdina senditu; eta hale-

re, egunero, kaiolan dagoen txoria bezalaxe, egunero piska bat itzali, egunero piska bat zimeldu. Eta itzali eta zimeldu ala, eman zaian aukera bakarra galtzen ari haizela ikusi... hori izugarria duk, izugarria. Nire biziak ez dik gaztetasunik ezagutu... Beste batera esateko: izan diat, bai, baina kaiolan gazterik hiltzen den txoriaren gaztetasuna izan duk. Sinets ezak: sarritan probeok gai-xorik egon beharko genukeela pentsatu diat. Hik heurre erosotasun horretan, honelakorik soma al hezakeen?

— Zer nahi duk esatea. Bai eta ez.

— Ez, eta ez. Agian nik aukerarik izan banu, zerbaitetara irits nintekeen. Baina, huskeriatan akabatu zaidak gaztaroa. Orain, hogeit eta zazpi urterekin, berandu duk edozertarako. Gehienez kaiolan zahartutako leoia izan naitekek. Besterik ez. Hi ez haiz konturatzen: hik ez dakik «berandu duk» esatea zer den!!!

Isilik berriz biok. Itsasoa urdin.

— Gero, berriz, honela gaudelako, nora heltzerik ez daukagulako, ezertarako betarik aurkitu ezin dugulako, gogoaren iturria agortzen zaiguk. Niri neroni ere, naizen bezain kezkatu izan arren, nahikoa eskastu zaidak gogo fitxen artean. Gogortu egin nauk irudimeanean, eta kaskagortu. Janari egoskaitzak hartu dizkiat betidanik, eta gorputzarekin batera, burua ere astundu eta kamustu egin zaidak.

— Bai, Peru, baina ez duk horrenbesterainokoa. Irakurri ere egin duk hik.

— Bai afalondoan, oso berandu arteko epea hartuz, eta heuk utzitako liburuetan. Eta biharamonean berriz goiz altxa behar.

Hunkituta zirudien Xabierrek.

— Ez duk ezin jatea, ez. Biziera goitik behera galtzea duk, Xabier. Eta bazekiat hire barruan ari haizena: «Bai, gogorra duk, baina fedea ez duenarekiko ba-

karrik». Eta egia esango diat: zeruan sinesteko, zerua-
ren urdina gozatu beharra zegok behinik-behin. Jain-
koagan sinesteko, haren obrak ikusi behar dituk behin-
tzat; zeren, gizonenak bakarrik ikusten badira, deabruan
sinets daiteke gehienik.

— Bai, arrazoi duk. Horixe ari ninduan pentsatzen.
Gizona eskas duk bizi-maila guztietan. Baina guztiz
errukiorra izan behar dik Jainkoak txiroekin; ez zegok
zalantzarik.

— Errukirik ez, Xabier. Bi munduetan ezin konde-
na daiteke inor. Hots, beste mundurik baldin badago,
hartan ezin daiteke txirorik kondena. Baina, betikoa,
ez zekiat beste mundurik ote dagoenik. Beraz, nireak
egin dik; eta txiro eta errumes guztienak ere bai.

— Gupidagarri hago, benetan.

— Zer da liburu hori? —moztu nion nik.

— Thérèse Desqueyroux.

— Eta liburuaz hitz eginez jaitsi ginen biok Zuntza-
rri aldera.

Hamar egunen buruan, loteriako lumero-lerrokada
ikustera joan nintzen. Behin ere ez nuen honetarako
itxaropena galdu, eta gertatzeko oso zaila izan arren,
zerbait toka zitzaidan ustean joan nintzen. Begiratu dut,
bada, eta... ezer ez. Bostehun peseta alferrik xahutu.
Pena emateko adina bazen, nire egoera hartan batez ere;
baina gogor egin nion neure buruari, eta esan: «ez be-
kik sekula egina damu».

Poltsikuetan miatu nuen, eta kontatu: guztira 341
pezeta neuzkan. Hurbil zegoen nire hauziari aurpegi
emateko garaia. Beldur eman zidan, nazka hobeto esan.

Irurehun eta berrogei ta hamaika pezeta... Gutxi zen.
Bai azkar joanak zirela gainerako milak! Zer egin be-
har ote nuen? diru hura luzatu? Zertarako luza gaine-

ra? Egun batzuz irauteko? Ez. Hasi nintzen bezala bukatu behar nituen txanpon haiek.

Eta liburu-denda batetara joan nintzen, zerbait eros-teko asmotan. Sartu, eta etsita gelditu nintzen: mota guztietako liburuak ziren, eta askoren egileak aipatzen ere ez nituen behin ere entzun. Palakatzen saiatzen nintzen sukar bero hura, tinko zegoen. Apal guztiak miaztu nituen lasterrean; irentsi egin nahi nituen izenak eta tituluak oro, baina ezin. Gehiegi zen hura guztia. Aukeratu egin behar. Hura ez zen gainera, nire astotze-ildoan... baina tentazioa bizia zen; eta neure gogoak behin eta berriz zapaldu ondoren, sei liburu erosi nituen: Camus-en «Atzerritarra», eta Gide-ren «Janari berriak» haien artean, frantsesez bi hauek. Esan nuen bezala, umetandik bainekien hizkuntza hori, hiru urtez Baionan familiarekin bizi izan nintzelako.

Egun haietan irakurri nuen «Thérèse Desqueyroux». Xabier-ek utzia; eta honegatik eta gauza askorengatik, lanik gabe egondu nintzen egun haietxek zaizkit guztietan zoriontsuenak, beteenak, eta dena dela, gogoangarrienak. Tentazioan erori nintzelako, bai. Baina zoriontsu izan nintzen: neure mundura azaldu nintzen berriro.

Mauriac-en liburuak zoriontasun horretan murgildu ninduen ni ere. Ez zen gehiegi, ez, Xabier-ek hari buruz esan zidana. Nobela ederra da: ez dakit nola esan. Aguro gertatzen da dena, bizian bezalaxe; atseginez nabarmentzen den une mamitsuari, segituan darraikio beste bat, atsekabez beterik. Pena eman zidan Thérèse gajoak.

Baina ni gehien ukitu ninduena Azevedo da. Bazirudien Mauriac-ek liburua idatzi baino lehenago nirekin hitzegin zuela edo. Azevedo-rengan neure burua ikusi uste nuen. Zuzenki ikusita? Oker? Ez dakit. Azevedo ni baino gehiago zen, noski. Baina ez al nintzen ni

haren antzekoa behintzat?

Literatura mundu gehiago ezagutzeko hirrika piztu zitzaidan berriz. Zer interesanteagorik? Hainbeste hilibetetan nekez iraungi nuen gogoak (irakurtzeko go-goak, hain zuzen) berriz ere, liburu bakar bat dastatuta gero, bizirik zirakien berriz nigan. Alferrrik zen hura hiltzen saiatzea: neure burua akabatu artean, ez zen hura ere itzaliko. Agirian zen. Xabier-ez gogoratu nintzen: hein berean ginen biok.

Eta etxera joan nintzen. Kepa eta Errodrigo topatu nituen bidean. Errodrigo, beti bezala, neskari buruz hitzegin zidan berehala! Hau zela, hura zela, beste guateke bat egitekotan zebiltzala... Beti bat, urteak eta urteak halaxe.

Kepa-k bazekien niri gertatutakoa, eta etorkizunaz galdetu zidan. Errodrigo-k ere hala egin zuen. Baina ondoegi bizi zen hau batez ere, nire egoeraz konturatzeko. «Lanik ez?». Hainbat hobe, pentsatu zuen seguru asko.

Eta horrela, berehala hasi ziren txantxetan, eta nik neraman liburu-mordoskaz gaizki esaka. Eta horregatik aitzekia bat jarririk, aldegin nien eta neure gelara sartu nintzen.

Ikusle zoro bat iruditu zitzaidan Gide, baina zoragarria. Zoratzen irakurri nuen! Eta bat nentorren gainerra. Camus-ena ederra ere, baina arrotza oso pertsonaia. Oker ez banago, biak irakurri nituen gau hartan berean. Nolako egarria!

Gainerako liburuak geroago irakurri nituen, Barrota-rekin hasi eta laister. Nagasena-ren «Milindapanha»k batez ere kutsu sakona utzi zidan. Oso sakona.

V

Dirua bukatuta, gurasoen etxera joan behar, esan bezala. Beste biderik ez zegoen. «Pixkor»ek ezagutu ninduen aurrena, zaunkaka hasiaz. Mendiko bake hura la-saigarri zitzaidan, nire sorterrria. Gantzai, herri kosko-rra baitzen, Muitza-ren ondoan. Hutsa iruditzen zitzai-dan neurekin neraman katramila; ez dut lanik... Ole-jua oso gaiztoa da... etxekoandereak hau eta hura esan dit... Hutsa! Txorakeriak! Zelai zabal hartan, besterik bide zen dena. Malda batetan Gantzai ikusten nuen, neure oroimenean bezala, txikia, eta bakea zeriola.

Baina baziren han ere zikoizkeriak eta jokabide gaiz-toak. Ongi nekien nik.

Pozik hartu ninduten aitak eta amak. Dudarik ez: gizajoak azken bi hilabeteetan ez zekiten nire berri. Dena azaldu nien. Berak, lau urte hartan ohitu egin ziren Etxeberria-renean ni lanean izaten; eta gogor egin zi-tzaien ideiaz aldatzea. Bazekiten, halabaina, ni oso gaiz-ki konpontzen nintzela Olejua delako harekin; baina... lanik gabe ni ikustea...

— Urteak badituk hik —esan zidan aitak— egin be-

har duana jakiteko. Heure kontu, hortaz, ongi ala gaizki jokatu duan. Baina, badakik: mundu honetan «nork bere opilari ikatza», eta ez zak pentsa bestek hirea egingo duenik. Heuk egin, ala kitto. «Jo eta hautsi» horiek ongi zeudek garaiz egiten direnean; baina garaiz jokatzea ez duk aski. Jakin egin behar duk ere gero nora joko den.

— Ba, horixe da nik ez dudana. Ezin nezakeen gehiago hura eraman, eta aurrera jo nuen.

— Gaizki egina, hortaz. Oso gaizki egin duk. Ume-keria bat egin duk, eta arrazoi dudala ikusiko duk.

— Nik hain zuzen, inor ez dut han ezagutzen; eta berorrek lanen bat ingura diezadakeela pentsatu dut.

Ama hasi zitzaidan orduan maiseoka:

— Hori aurrena jakin behar huen, txotxolo. Lehen-bizi txorakeria burutu, eta gero besteengana laguntza eske. Etxeberrria hura gizon prestua omen duk, eta ezin sinets zezakeat hik dioana.

Etxeberrria, nire iritiz, ez zen Olejua baino hobea. Baina argiagoa bai; eta honen atzean izkututzen zen. Olejua ez zen ezer berez, eta Etxeberrria-k nahi zuen punturaino irits zitekeen bakarrik. Beraz, Etxeberrria prestua bazen... Halere, aberatsa zen. Erruz ematen zien dirua elizako gizoni; eta, mojak eta fraileak onez tratatzen zituen, eta horiekiko oso eskuzabala izaten. Horrela jokatuz, begiramendu handia hartu zuen jendearen artean, eta bere bekatuak, asko eta lotsagarriak izanik ere, zeharo xahutzen zituen erremusinen bidez. Ez zen tontoa, ez.

Zertarako hasiko ni eztabaidan? Lehendabizi ongi hartua izan zen nire berria, gero okerrago jarri ziren gauzak, eta azkenean sekulako sesioa nire aurka:

— Hik ez dakik bizia zer den. Dena eman diagu beti erosoan, eta ez dakik ezer egiten. Liburuak eta beste

txatxukeria asko alde batetara utziko bahitu hobeto ibiliko hintzateke. Eta gainera, hori bai: harrokeria baldin baduk bidegabekeriak ez jasateko, dirua irabazteko ere izan beharko huke: ez hire gustoko gauzetarako bakarrik, ez; denetarako.

Eta aitak erantsi:

— Hi gaztea haiz oraindik, eta ez dakik biziaren berri. Edozein txatxukeria, eraman-ezinezko iruditzen zaik. Biguna haiz, oso biguna. Ai! Nire gaztaroa eza-gutu bahu, hemen, baserrian... Orduan ez zegoan urik, ez irratorik, ez tratorerik... Orduan lana zuan, lan hutsa... Hartuko nukeen nik orduan Etxeberria-ren menpean lanegitea!...

Gogoz erantzungo niokeen, eta bera kontura zedin beldur nintzen, hortzak hestutzen bainituen neure aha-legin guztiekin.

Gero gertatu zena, hortaz, ez da hitz gutxitan esatekoa.

— Barka beza, aita —esan nion— baina nire lanaz edozer gerta dadin ere, gauza bat zuzendu behar da azkar; nire etxeoanderearena. Bi hilabetetako kontua zor diot.

Urte batzu gutxiago baldin banitu, zigor ederra hartuko zukeen, nik aginduta. Baina hogeita-zazpi urte nituen, eta ez zen garrasiaz besterik gertatu.

— Lotsagaldu hori! Ez al duk ezer aurreratu? Bederatzi urtetan ez diguk xentimorik bidali, eta orain denboraren buruan zorrak erantsi? Zer uste duk hik?

Zertarako segiko. Ordurako gurasoenganako amodioa nahiko hoztuta nuen; baina egun hartan, haren jokabide eskas eta berekoi hura ikusita, zeharo galdu nuen haiekiko konfiantza.

Etenak ziren, beraz, azkeneko loturak...

Etxekoandereak jarritako epea bazihoan aurrera, hain zuzen ere bost egun falta ziren bakarrik bukatzeko. Eta orduantxe deitu ninduen Lorenek.

Peru: zure aitak bidali dit zor zenidana. Beraz: hilabetez luzatuko dizut esan nizun epea. Zer modu zoaz? Zerbait aurkitzeko bidean al zaude? Itxaropenik ba al duzu behinipehin?

— Bai, bai, aste honetan zuzenduko da dena.

Gezurra zen. Lehenengo egunetan ez nuen ezertxo egin lana bilatzekotan; eta azkeneko haietan, bai, baina neronen buruarekin solasean bakarrik. Frantsesez banekien, eta ajentziaren batetara-edo joan ote nintkeen pentsatu nuen; baina ez nekien nora, edo nondik has. Jadanik urduri xamar nintzen: gurasoek ere ez zuten txintik ateratzen; eta lagunei ezer eskatzeak, lotsa ematen zidan; bai-bainekien, bestalde, negoziotako kon-tuetan koskorrak zirela oso.

Eta, halako batez, neure osaba Joxe Migel-ek hotsegin zidan: ba omen zuen niretzat'lantxo'bat. Ez omen zen aukerako lana. Baina, neure hartan, ez omen neukan gutxiatan pentsatzerik. Gainera toki askotan saiatuta ere, Olejua-k emango zuen txosten txarra nahikoa omen zen nire adiuntza onak hondatzeko. Ez omen zegoen txikikeriatan ibiltzerik, eta Barrota delako baten-gana joateko esan zidan.

Barrota-rengana joan nintzen ba, eta oso hozki erre-zebitu ninduen:

— Zu al zara Leartza-ren iloba? Goazen harira. Nik hemen kopiatzeko lan izugarria dut: alegia, epeka sal-tzen dut nik. Eta bezero guztiei, nori bere tokamena-ren arauera, txartel bana egin behar zaie: hilero batzu-

ri, bi hilabetetan behin besteri... Lan handia da; eta aspergarria, badakit. Halere, mesede bat egin nahi nioke Jose Migel neure adiskide onari, eta gertu baldin bazaude, badakizu. Nik lan hau, andanaz ordaintzen dut, hots, segun-eta egiten duzun kopurua edo lumeroa; eta ehun txartel edo bale horiek egiteaz, hamar duro ordaintzen dut.

— Maite! —hotsegin zuen—. Erakuts egiozu Leartza jaunari gure txarteletako bat, bere lana nolakoa datekeen ikus dezan.

Begiratu egin nuen:

— Ene! Mila gauza bete behar zen han! Hura bai burokrazia! Baina zer egin ote nezakeen?

— Beno —erantzun nion, piska bat pentsatzen nuelakoa egin ondoren—. Egina dago.

— Langile ohikoek —erantzun zuen berak— ehun pezeta eta gehiago irabazi izan dituzte hemen bederatzi orduz laneginez.

Etxera itzuli nintzen.

Pozgarri izan liteke hura. Baina ez zen. Halako lana izan nuen nik Etxeberria-rekin, eta banekien zeinen motela eta nekagarria zen. Baina neure hein hartan, besterik aukera ahal nezake?

— Ez.

Beste erremediorik ez zegoen.

Pena hartu nuen, nire atsedenaldi zoriontsu eta beteak bukatzen zelako. «Zoriontsu» esan al dut? Ezetx esango luke norbaitek; baina nik baietz diot, eta gezurrik ez dut esan. Hilabete hura, kezka haiek izan arren, gogoangarria da.

Eta askotan gogoratu naiz geroztik orduko bolada hartaz.

VI

Lehengo egunean, ohiturarik ezagatik edo, hogeit eta bost orri bete nituen bakarrik, eta leher-eginik amaitu nuen eguna. Ikusi ez duenak, ezin dezake halakorik sinets: izelombrea, jaioteguna eta jaioterria, gurasoen izenak, bizilekua, lantokia, egindako eskolak. Nik dakita? Gero erosketaren gora-beherak, xehe-xehe azaldu-ta: zein fabrikatoko zera zen, zein egunetan saldu zen, nor izan zen dendako saltzailea, zenbat epetan ordaintzekotan, noiz ordaindu zen lehenengo epea eta nork kobratu zuen; eta bigarrena, eta hirugarrena... eta hamargarrena askotan... Izugarria zen hura!

Gero bazekarren zerbait ere, ez naiz gogoratzen.

Hogei-ta-bost bale; hots, hamabi pezeta t'erdi. Ongi jaioa nintzen! Loren-ek, eta hori aspaldi danik eta familiakoen laguna zelako, hogeita-hiru pezeta kentzen zizkidan egunean. Beraz, etxekoandereari ordaintzeko bakarrik, berrogei-ta-sei txartel bete behar egunero. Alajainkoa! Eta bestek ehun pezeta irabazten zituztela egunean? Luma-korrikalari bikainak ziren, bada...

Andana bat erabaki nuen, andana edo kopuru ho-

rren arauera pagatzen baitzuten: egunero hirurogei txartel bete arte geldituko nintzen.

Baita hasi ere hori egiten. Goizeko zortzietarako han nintzen jo-ta-ke; eta gaueko bederatziak aldean, leher egina, hirurogeigarrena betetzen nuen. Batzutan, hirurogei horiek bukatu beharrez, gaueko hamaikak arte gelditu nintzen.

Hura ez zen bizitzea. Lehén baino ere okerrago ez ote nenbilen zalantzan hasi nintzen: Olejua madarika-tuarekin zortzi orduz lanegiten nuen; hemen, ez dakit: bederatzi, hamar, hamaika orduz. Eta han baino gutxiago irabazten nuen.

Etsipenak harrapatu ninduen. Baina biziaren pirritara arinago zebilen lehen baino, eta ez neukan ezta etsitzeko ere denborarik. Eguna zerraikion egunari tartetik gabe, eta berdin gaua egunari. Tximist bat zirudien egunak; eta asteak etengabeko kliska bat.

Nekatzen hasia nintzen. Zehatzago esateko, nire gorputza hasi zen nekatzen. Ezin iratzar nintekeen goizetan; eta lanean ari nintzelarik, askotan kulunkatzen nintzen logurak.

Jai egunetan ez nuen inora joateko dirurik, ez astirrik, lotan pasatzen bainuen eguneko ordu asko. Ekialdeko erlijioak ezagutu nituen orduan, berriki erositako hiru liburuari esker; eta sakonki ikutu ninduten. Munduari uko egiteko joerak batez ere, dena itxura den temak alegia, min eman zidan, nire arimak denaren aurka huraxe eskatuko bailuan.

Loren-ek esan zidan neure galtzetinak ezin konponzitezkeela, xaretuegiak zirelako, eta honek izugarri mindu ninduen. Behin ere ez nuen sekula horrelako gauzarik entzun. Baina Barrota-rekin aldapan behera nindoan; eta, etxekoek ere, nirekin pittin bat hasarreturik

batetik, eta nik hogeita-zortzi urte betetzeko zorian nengoela ere bestetik, ez zidaten ezer laguntzen bolada hartan. Eta nik ez nuen inondik ere bizitzeko adina; eta are gutxiago galtzetinak dotere eramateko. Eta, denadela, munduko erromesik urrikgarriena ez zen, nik aginduta, ni baino okerrago bizi.

Igandeetan eguzkia itsasoan sartzea zen nire atsegin bakarra. Beste gozorik ez nuen. Lagunak galduak nituen, gurasoek ez zuten konfiantzarik nigan; eta berak ere, nirekiko, nahiko tontoak ziren. Aitaz gogoratu nintzen pitin bat: oraindik biziaren atsekabea ezagutzen ez nuela esan zidanean, ez al zuen arrazoi piska bat?

Baina, ez, ez. Zalantzan egoten nintzen apur batez; baina, ez berriz, eta ez. Hura agure guztien seta iruditzen zitzaidan: gure aroetan, gure zeretan...

Dena galdua nuen. Marisa ere, eta giro hura, aspaldi danik ez nituen dastatzen dirurik ezaz. Lanetik ohera, eta ohetik lanera; besterik deus ez.

Bizirik iraun arren, ni ez nintzen bizi. Hilik nintzen, eta neronek ez nekien. Orain badakiket; orduan ez.

Ez nuen hargatik hiltzeko beldurrik. Noski!

Igande arratsalde batez Gandera-ra joan nintzen, neure atsekabeak ahanzi nahirik, eta Iturbeltz deritzon punttan gelditu. Arratsalde goibela zen, zerua horiska, giroa epel, eta dena baketsu. Atzeko mendiak hodeiek erdi estalirik ikusten ziren, urrutian urdinduta. Zuntzari ere, nire aurrean, eta laurogei metro beherago, lausotan agertzen zen, meatilaz jantzita.

Neure atzean, ikusten ez banuen ere, itsasoa nuen. Aurrean ere itsasoa; baina Anduaga-ko puntak mugatuta. Olaburu-ko astigarrek eta Lizarreta-ko pinuek

uztai berde bat osatzen zuten. Mariagora zen, eta olatu txikiak hormaren kontra leherturik, marra hextu-hextu bat erasten zioten arku berdeari.

Nire ezker aldean Olazarraga-ko etxe zaharrak eta itsusiak; eta urrutiago Urrez-ko tontorra, zaharrakatu-tako murruean isla zeruan nabarmentzen zelarik. Une hartan beltz agertzen zen, bere oroitzapenak bezala.

Huraxe zen aste guztian ikus ezin nezakeena. Huraxe. Edertasun hura nuen Zuntzarri-n bertan, baina ezin dasta. Han, aurrean, oso oso urruti, lanotan galduta, Matxitxako igartzen zen doi-doi. Baina ez nuen nik hainbeste eskatzen: Anduaga-ko puntta bakarrik. Zenbat kilometro zen? Bi gehienez? Halere, neure aurrean une hartan izan arren, noiz danik ez nintzen han izan? Bego-rekin eta gero, bai?

Neure gartzelatik ikusten zen paisajea zen hura. Besterik ez. Gatibu nintzen.

Neure gogarteetan barrena nindoala harrapatu ninduen Xabier-ek. Igandea zen, eta bakarrik berriz ere; eta liburu bat eta aldizkari batzu besapean zeramatzala. Egun hartan Graham Greene zen liburaren egilea. Hura bai zela irakurle porrokatua!

— Kaixo, aspaldiko. Zer dugu?

— Hementxe ba. Arratsaldea bezala piskanaka amaitzen.

— Alajainetan! Horretan al hago oraindik ere? Zer ba? Gaizki irten al zaizkik gauzak? Eskola haiei buruz eta, zer? Badakik zertaz ari naizen.

— Bai. Bazekiat. Deus ez, noski.

Exeri egin zen nire ondoan.

— Hortaz, lanik gabe oraindio?

— Ez, hasia nauk... hasia nauk hiltzen!! Hik, Xabier, nahi izan dualako etorri haiz gaur hona. Ni, be-

rriz, ezinbestean. Ezertarako dirurik ez diat, eta gogorik ere deus ez. Zaletasun honek kontsolatzen nau bakarrik: alegia, eguzkia hiltzen ikusteak.

— Beraz, baduk lanik, ala ez?

— Bai. Badiat.

Eta azaldu egin nion neure lana hitz gutxitan.

Azaroa zen, eta konturatu orduko, eta berehala, ez zen ia ezer ikusten, eta Olaburu aldera jo nuen aldapa txigorretan behera, eta hosto ihartuak zapalduz hotsa egiten genuela.

— Horra nire motorra —esan zidan.

— Baina, motorrik ba al duk ba?

— Bai, motel. Orain dela hilabete batzu erosi nian.

— Zorionak, ba.

— Neguak ez zidak asko laguntzen. Baina udan bai. Niri, gainera, hiri bezala, biziki atsegin zidak toki bakartitara joatea; eta honen bidez joan naitekek... Ezagutzen al duk Ause?

— Zer da Ause hori?

— Goazemak eta ikusiko diagu.

Zuntzarri-tik hamar bat kilometro ibili ondoren, eskuinetara jo genuen; aldapa gogorra hasi zen, eta bost bat minuturen ondoren, baserri zahar bat topatu genuen. Ause zen. Bisarrek ere, nik uste ezertxo ere ikusten ez zutelarik, tokan ari ziren oraindik bospasei baserritar. Ahantzita neukan simaur-usaia senditzen nuen berriz.

— Sagardo bikaina duk hemengoa. Herorrek egiaztatuko duk orain —esan zidan Xabier-ek.

Zakurra zaunka hasi zen baserrira gu sartzeraoan. Barruan upela handien artean galdurik, mahai batzu zeuden. Bi edo hiru bonbila ere bai, baina argi eskasa ematen zuten, eta dena bide zen itzala eta ilunpe beltza.

Sagardo botila bat eskatu, eta zurezko mahai luze batetan eseri ginen. Hasi baino lehenago ere, bazirudien sagardoa edaten hasiak ginela. Katu beltz bat pasa zen gure ondotik, eta ondoko mahaietan eseri. Aurrean lau baserritar sendo, musean ari.

Harrigarri zitzaidan hura, mendiko bizimodua, alegia. Nire igandea, egia esan, ez zen oso distirantea; baina lizifrina gehiegi iruditzen zitzaidan halere nekazari bakarti haiena. Nire haurtzaroa gogoratu zitzaidan.

— Hauxe duk Ause. Sarritan motorrari eskerrak, hona natxetorrek bakarrik, eta hementxe, bati so eta besteri adi, igande arratsalde asko pasa izan diat. Garbiago iruditzen zaidak giro hau.

— Gantzai gogorazten zidak piska bat. Baina ni, jaiotzaz eta etorkiz baserriko seme banaiz ere, beti, umetan ez bada, kalean bizi izan nauk. Eta giro hau, benetan, harrigarri zaidak; eta neure amona zaharra gogorazten. Bera bai, honelaxe bizi izan omen zuen, Gantzaira jaitsi arte.

Gero isilik egon ginen apur batez. Neure gurasoez gogorazten nintzen nahi-ta-nahi ez, eta ez zitzaidan hura atsegin. Ez nuen hura nahi.

— Horra hor zuen tortilak. Gibelurdinak besterik ez genuen, eta hori sartu dugu —esan zigun emakume batek, ogi pusketa handiak eta bi plater handi eta ondo beterik gure aurrean uzten zituela.

— Baina, nola hau? —galdetu nuen nik harriturik.

— Neuk eskatu zieat lehen. Hemen ezaguna ez baintz, ez zigutean emango. Hemen edaten eman ohi dittek bakarrik.

Dirurik ez neramala pentsatu nuen lehenengoz; eta lotsaz beterik; gorritu egin nintzela uste dut. Olejua-ren garaian eskas nenbilen; baina Barrota-rekin ezta eskas

ere: guztiz tturrinduta, sosik batere gabe. Lotsaren gorria!

Merendatu ondoren hobeto nengoen, askoz ere hobeto; eta hizketa mamitsuan ari ginen.

— Zer moduz kezka horiek? Oraindik ere, heure burua hiltzen saiatzen al haiz? —galdetu zidan Xabier-ek.

— Ez, beharrik ez diat. Hilik negok neure honetan. Barrotak hil nauk.

— Beraz...

— Horixe... Beraz, ez diat ezer irakurtzen; eta ez diat irakurtzeko gogorik ere. Are gehiago: ez diat inorekin hitzegiten, eta emakumeak ahantzi egin zaizkidak. Egia esango diat, gainera: dagoenez gero, ez negok sa-soian. Galtzen hasi nauk. Emakumeenganako neure heinean nabaitu diat.

— Baina, zer esaten duk, motel? Zenbat urte duk?

— Hogeita-zortzi betetzeko zorian.

— Eta...

— Egia esan diat.

Irri egin zuen. Baina serioago jarri zen, gaizki egiten zuela konturatu bailitzan. Eta moztu egin zen hizketa.

«Hordago» entzun zen goratik. Gure aurreko kategoria erdi lotan bide zegoen mahaiaren gainean, eta be-larria piska bat higitu zuen ahots hura entzutean. Baina hantxe gelditu halere.

— Zein aldizkari da hori? —galdetu nion, liburua-ren azpian ikusita.

— «Figaro Littéraire»

— Eta zer moduz dator?

— Utziko diat, nahi baduk.

Ez nuen nahi, eta nahi nuen. Eta uzteko esan nion.

— Bai, bai. Hirezat. Goitik behera irakurri diat. Bi artikulu, batez ere, oso jakingarriak dituk: «Oreopitheko»ari buruzkoa bata, eta «Qumran»go izkribuez bestea. Badakik, esenioak, San Juan, eta abar. Ez al dakik ezer?

— Ez —erantzun nion.

— Irakur ba. Ez zaik damutuko. Eta, etzak esan gure burua akabatzea dela, ez duala nahi. Irakur itzak biak.

Ez nekien ezer: inpresio hura nuen.

— Halere, beste gauza bat aurkitzekotan erosi diat nik; baina ez zetorrek zera honetan.

— Zein gauza?

— Horra: osagile batek bere esperientzia bat kondatu omen dik. Bihotza gelditu omen zitzaioan berari; eta gero, masajeari esker, abiatu omen zitzaioan berriz bihotza; eta horrela, erdipurdi behinik-behin, piztu egin dela esan zitekek.

— Eta, zer dio?

Ez zekiat, Peru. Baina esan didatenez, hau ziok: ez dela norbera konturatzen bere larritasunaz.

Isilunea egin zen.

— Interessantea duk —erantzun zion biziki hunkituta—. Noizpait inguratzen baduk, ez ahantz ematen.

— Ez, ez; utziko diat.

Eta ziplo, argiturik bezala, erantzun nik:

— Zergatik ez dute hilek piztutzean beste mundukoaz ezer esaten?

— Baina hau ez duk hil. Hortaz, ez zegok zer miretsirik.

— Noiz hasten da, ahatik, heriotza? Noiz hil da gizona?

— Ez zekiat. Baina miriku hori, segur egon hadi, ez duk hil. Ez zekiagu nola egon den, baina haren ari-mak ez dik gorputza utzi.

— Balitekek, nik eztenka gaiztoan.

— Eskierki —berak—. Bihotza gelditzea ez duk as-ki, nik uste.

— Hilda gero hutsera bagindoaz, ez genikek hitze-gingo. Ez al duk uste? —galdetu nion kezkatu nahian.

— Hala duk, —berak.

— Eta bihotza gelditu zaienek ez ditek hitzegiten...

Kezkatu egin zen. Bistan zen.

Eta nik, bihotza arintzen zitzaidala, eta amorruz be-terik bezala orduan:

— Eta Lazaro-k ere ez!!!

Izutu egin zen Xabier.

Eta nik bukatu, haren zirrara goxatuz:

— Jesus-ek piztu zuenean, halere, hiru egun hartan ehortzia zela piztu zian!! Eta ez bide zian halere beste munduaz tutik esan... Zergatik?

Behin edo bitan Bego azaldu zen ene etxera. Itsusi iruditu zitzaidan. Eta haren itsustasun horrekin bate-ra, atzera jotzeko gogoia senditu nuen, ustekabean ha-rrapatu ninduen-eta.

— Arratsalde on Jainkoak —esan zidan, nire kei-nadarik ñimiñoena ere aztertzen zuelarik.

Ez zegoen ihes egiterik: horixe pentsatu nuen nik. Ez zen beldurra, ezta nazka-nazka ere; baina Bego-rena hobeto zen oroimenak gordeta, gehiagotan elkar ikusi-ta, lardaskatuta baino. Alegia, ez nuen nahi egun ha-rrigarri haietako usai gozoa kirats zedin: gertakari haiek guztiek, eta Bego-renek bereziki, giro atsegina gordetzen zuten beren hartan. Baina ez ziren ezer aurrera segitzeko.

Agian hau zen atzera eraman ninduena. Ez nuen nahi nahi, ez nuen oroitzen gogoangarri bat lardaskatu nahi. Ez nituen-eta sobera halakoak...

Bestalde, Bego ez zitzaidan gustatzen: hauxe'da egia. Bi gauetan iraun bazuen «lilura» hark (eta sinetsita egon, hura ez zitzaidan inoiz lilura izan), odolak eman zion berotasunari esker iraun ahal zuen. Ederra iruditu zitzaidanean, nire soinari zitzaion eder. Zirrarak senditu nituen behin edo bi aldiz; baina odol-zirrarak ziren.

Hau guztia ikusi nuen lipar labur batez.

— Gezurra dirudi —esan zuen berak—. Bai laister ahantzi zarela nitzaz! Gezurra dirudi, benetan!

Nik oso hotzean entzuten nituen hitz haiek. Egia zen, bai, ahantzita nengoela. Baina, zer?

Eskaratzaren ondoan ginen, zutik, eta ibiltzeko eskatu nion. Ez nekien zer esan: hitzik batere ez zetorkidan burura. Ez nuen hala segi nahi, baina iharturik zegoen nire asmamena.

— Zer? Ez al duzu ezer esan behar? Horrenbeste egunez elkar ikusi gabe egon ondoren, honez besterik ez al zaizu bururatzen? —ekin zuen ni zirikiatu nahian.

— Bada... ez dakit... ez dakit zer esan benetan. Oso eskasa nahiz gauza hauetarako.

— Zein gauzatarako? —maitekiro.

Nolako nazka nirea! Aulki batetan eseri ginen, berak hala eskatuta. Ezetz esan banio, hobe; baina...

— Gau ederra da, Peru... goazen Lizarretara aldera! Eta esanda gero, hasperen bat bota zuen.

— Zenbat aldiz gogoratu naizen zutaz... Zenbat eta zenbatetan pentsatu dudan oraingo une zoragarri honetaz! Behar zintudan...

Ez dakit zer erantzun nion. «Bai», agian; edo horrelako zerbait. Etxera joan nahi nuen.

Musu bat eman zidan masailean, oso polliki, eta negarrez hasi zen. Eskua heldu nion, baina... Horrela egon ginen bost bat minutuz, eta gure aurretik pasa ziren batzuk begiratu egin ziguten.

Haren boltsa ireki zuen, eta kajatxo bat eskaini zidan.

— Tori: diru gehixeago banu, beste zerbait bikainagorik emango nizuke. Baina txiroa naiz. Halere, hor duzu nire oroigarri bat, nitaz noizean behin bederen oroit zaitezten. Eta, bidenabar, zuk eta nik biok behar dugun Ama Birjinaz.

Berriz ere gogait nintzen. Ama Birjina... txatxuke-riak!

Baina nola uka ere, hein hartan, oraindik ere mal-koek haren aurpegian distirutzen zutelarik?

Ireki nik, eta haseratik igarri nuena: zilarrezko kate bat, bere dominarekin.

Parragarria zen... Jarri egin behar zidala-ta, jarri egin zidan. Dotore ni domina harekin... Botatzeko gogo-
goa eman zidan; baina pentsamendu bakar batek atzeratu ninduen: erregali hura asko kostatu zitzaion Bego-ri. Eta Bego-k bizimodu zaila zuen ere bolada hartan bizi ahal izateko; eta Bego ni bezain gaizki zebilela jakitea, hura ez zitzaidan behin ere ahantzi.

Zenbat neke pasa ote zituen gajo hark erregali hura niri eman ahal izateko? Auskalo! Eta horregatik baka-
rrik ezin arbuia zitekeen, eta onartu egin nion.

Bigunkeria al zen berriz ere? Baliteke: Peru bigui-
nak beti iraungo du nigan, ikusten denez.

— Zurekin gelditu nahi nuen gaur. Baina alferrik dela ikusia dut. Nekez aurkitu zaitut, baina bistan da zuri galerazten ari natzaizula. Hortaz, banoa. Baina jakizu hau, eta sinets: maite zaitut.

Eta aldegin zuen.

Aulkian eserita gelditu nintzen eta, medaila kendu nuen. Argi hartan ezin zitekeen ongi irakur, baina, oker ez banago, hau jartzen zuen letra txiki-txikitan: «Argiloain-go Ama Birjina». Eta, atzekaldean, «Peru-Bego».

Irribarrez hasi nintzen bakar-bakarrik egon arren, eta handik zihoan gizon batek nire aldera begiratu zuen. Lotsatu egin nintzen.

Etxera helduta, domina utzi, eta kartoizko kajatxo batetan gorde nuen. Haren erlijioa zelebretz zitzaidan...

Eta ez zidan penarik eman. Halere, egia esan, berak jasandako doloreez egunen batez-edo pentsatu nuen, larri oso ibilia baitzen nire bila; baina geroztik ahantzi zait, eta ez zait ardura.

VII

Bolada hartan, baina zehatz noiz gertatu zitzaidan ez dakidala, buruko min izugarria izan nuen egun batzuz. Gauean hasi zitzaidan, gaueko lauak ni esnai jo zutenean. Alde batetik bestera igaro ninduten bi tximistek bezala; eta, nire ustez, kordea galdu nuen une batez. Gero, munstroak ikusi uste nituen, eta argia piztu behar izan nuen derrigor.

Hurrengo egunean berdin zirauen buruko minak; eta hotzikara nabaitu nuen. Barrota-ri begiratzean, bazi-rudien bat-batean nire aldera zetorrela, haren tamaina handituz zihoakidala.

Oso gauza harrigarriak nabaitu nituen, hortaz: lehertzeaz zen kaskoa.

Baina hura ere pasa zen, eta ez nion garrantzirik eman. Mina ihesi eta laister, lorik ezin egitea eta munstrokeriak ere itzali egin ziren.

Eri egon nintzen, nik uste; baina ez zuen inork hori uste, ezta neronek ere oraintsu arte.

Noizean behin Olazarraga-ra joan nintzen; oso gutxitan, dirurik ez bainuen, eta gogorik ere ez gehiago.

Marisa hura ere ez zen Zuntzarri-n, eta geroz eta neke-zago ohera nintekeen beste emakume batekin. Neure buruaz errukitu nintzen sarritan.

Olazarraga auzo hura Zuntzarri-ren beraren irudia zen. Gizonaren eskasia nabarmenago zen, egia esan, Olazarraga-ko zati hartan, gainerakoan baino. Baina dena bat zen.

Bego noizean behin ere topatu nuen. Hoztuko zela uste izan nuen aurrenik; baina hoztu beharrean, berotuz bide zihoan niganako haren amodio zoroa. Zerk maitemindu zuen hainbestearainoko? Nire ausardiak eskerki. Baina zeharo aspertzen nintzen berarekin, eta bera ere konturatu zen. Gajoa!...

Hiltzea bera ere, ez zitzaidan orduan axola. Nire us-tez hilei ez zaie heriotza axola. Eta neroni ere berdin. hiltzeko gogoia nabaitu nuen; hil, eta dena akabo... Zer-tarako bizi? Irauteko? Irauteko iraun? Bestetango ideiak behin eta berriz bururatzen zitzaizkidan....

Xabier-ekin egon nintzenean (bizpahiru aldiz Ause-n haren motorrean; eta zenbait aldiz beste tokitan) go-gor egiten zidan neure etsipenarengatik. Eta haren esa-nei kaso handirik egiten ez banien ere, biziki eskertzen nion neurengatik larritzea.

Besteak, Manu, Kepa eta abar, oso oso gutxitan ikusten nituen bolada hartan: astegunetan oso beran-du irten ohi nintzen ni lanetik, eta igandeetan berak ez zebiltzan, noski, bakardade-bila...

Apurtuta nengoen bada, eta pentsamendu beltzez beterik, eta gaur Barrota-ren aro hartaz oroituta, hiltzeko neure gogoaz batez ere, ikarak hartuta hau esan ohi dut orain neurekiko: «eta hil banintz? Dagoeneko, akabo. Baina, zer izan ni? Zer izan gizonok? Agian or-duan hil izan banintz, penatik begiratu nintzatekeen.

Baina, agian soilik: agian, beharbada, ausaz».

Eta zergatik ausaz? Zergatik beti zalantzaren menpean?

Ez dakit. Dena dela, bost axola zitzaidan niri hiltzea orduko hartan. Salbabide ere zitzaidan.

Baina ez nintzen hil. Eta egunero, litroka edaten nuen Barrota-eneko ozpina.

Biziera ustekabezko kate bat da. Biharamonaz ez dakigu tutik; eta nik orduan ere ez nion antzik batere ematen hurrengo egunean gertatuko zitzaidanari.

Egun hartan, azkeneko zortzi hilabetez bezala, Barrota-enera joan nintzen; eta han galdu nuen eguna, lan astun izugarri hartan; eta banindoan etxe aldera, etsita, amorratuta, nazka jario... egunero bezalaxe.

Ateratzerakoan hasi zen euria. Gaueko zortziak eta hogezi ziren. Etxerakoan beste askotan alferrik egin ohi nuen bezala, Jesusa-ren dendaren aurrean gelditu nintzen. Loteria zerrenda berria zen; patrikatik txartela aterra, neure lumeroa ikusi eta zerrendan begiratzen hasi nintzen. Berehala, molde handitan, neronen lumero bera zekarren lerrokadak!! Ezin sinets! Berriz ere zabaldu nuen txartela, eta begiratzen hasi nintzelarik, itute hartako tantotzar batek papera astindu, eta busti egin zuen dena. Baina berriz sikatuta, berriz sorpresa: neronena zen, bai: «18. 751». Miloi bat pezeta!!! Lau hamarren neuzkan nik; beraz, lauhun mila pezeta!!!

Sinetsi ezina zen hura. Behin eta berriz eta oraindiko berriz ere begiratzen nuen; eta okerrik ez: huraxe zen, bai.

Euri-jasa galanta hasi zen.

Nire poza ez da hitzetan azaltzekoa. Egun egin zen nire baitan, eta ilunek aldegin zuten bat-batean. Diruketa hura izugarri handi eta ugari iruditu zitzaidan: as-

ko zen 400. 000 pezeta. Ez nintzen oraindik konturatzten: gertatuaz oroitu, eta olatu batek arintzen zuen ene odola. Baina segituan, atzera berriz: gezurra bide zen hura, edo ametsa, edo horrelako zerbait. «Ez 'da posible», neurekiko behin eta berriz.

Baina, bazen, bai. Eta, bat-batean, argi-printza batek gidatu ninduen: Barrota-gana joan, eta bereak eta bost entzun araziko nizkion.

Bar batetan sartu nintzen, eta koñak doble bat zerbitza zezan eskatu nion. Zurrut batez edan, eta gehiagotrikatu gabe, gaueko bederatziak baitziren, neure ofizina zatar hartarantz abiatu nintzen. Ai! Barrota han topatuko banu...

Eta, nahi bezala, hantxe zegoen. Nik gizajo honek asko lanegiten nuen; baina berak are nik baino gehiagore. Beti han egoten zen, beti han; ni ailegatu orduko, han bera, ari eta ari; joatean berriz, han ere bai.

— Gau on! —esan nion besterik gabe.

Antiparrak kendu zituen harriturik.

— Ez al zara oraindik joan? Zer dugu?

— Ezer ez dugu. Horixe esatera nator: aurrerakoan ez dugula ezer izango elkarrekin. Gorde itzazu zeure mauek ni baino inoizago den besterentzat... Ni banaoa.

Lehendabizi harritu egin zen Barrota; baina gero su eta gar jarri, eta: «Hoa hemendik lotsagaldu hori!» —esan zidan haserre antzean— «Zer dira era horiek?

Baina ordurako irtena nintzen ni, atea danbaka hestenuela eta marmarka entzun zen kanpotik. Harez gero, ahantzi egin zait haren ahotsa.

Afari naharo bat egitea pentsatu nuen, eta «Intziart-Enea»ra joan nintzen. «Lupiña»ra ez ala? Noski. «Lupiña»n agian (larunbata ez baitzen) ez nuen inor topatuko. Baina, bada-ezpada, nahiago nuen ez saiatu ere.

Bat bakarra maite nuen: Xabier eta ez zen koadrila hartakoa. Gainerako guztiak niretzat hutsa ziren. Hilabete asko pasa nuen «Lupiña»ra azaldu gabe, dirurik eza-rengatik. Halere Xabier ahalegindu zen bakarrik ni non nintzen edo zertan ari nintzen jakiteko. Besteek nahikoa izan zuten beren zirtzilkeriekin... Egia esan Kepa behin ikusi nuen, Olazarraga-n; eta bere saltsan zebilen han. Dudarik gabe toki huraxe zegokion.

Dotore jantzi, ba, eta hamar t'erdietarako bazkaldegian nintzen.

Han ziren Duhalde jaun-andereak, eta Azkoitia ere, ezagutzen ez nuen emakume gazte eder batekin. Nazka eman zidan berak ikusteak: asteguna zen, osteguna, astelehena, ez dakit zer. Eta jenderik bazen halere, hura egiteko gauza zena; egunero huraxe egiten zuten agian: aukeran jan, eta erruz edan. Bekaizkeria ote? Ez, ez, baina Jainkoa ez dagoen segurantzia geroz eta garbiago azaltzen zen egunero, fededunek berek hala nahita... nonbait...

Neskameari hots egin nion.

— Niretzat hiru gauza: lanpernak aurrena, xanguroa hurrena, eta legatz prejitua amaitzeko. Eta ardo gorria.

— Ondo da; eta Jainkoari esker gaur zatoz. Bihar eguraldi kaskar hau hasi dela-ta, ez zenuke honelako afaririk izango.

— Bai, hala da —erantzun nion—. Horregatixek aprobe txatu behar da.

Bapo jarri nintzen, eta aspaldi danik nabaitu ez nuen gorputz-alaitasun lodi batek bete ninduen. Zoragarri iruditzen zitzaidan afaria ekarri zidan neskamea. Alajainkoa!

Trumoia geroz eta gogorrago ari zen; eta taxi bat

deitu nuen: «Intziart-Enea»tik irtetean, erruz zetorren-eta euria. Hura gaua! Nolako jasak!

Etxera joan nintzen artez taxi hartan: alaiegi bainintzen Olazarraga-ra joateko.

Berriz jaio nintzen. Biharamonean jai... Ederra zen etorkizuna, benetan!

Eta laurehun mila pezeta! Ezin loak har, ezin... Nolako artegatasuna! Alde batera eta bestera... Eta lorik ezin eginean.

Goizargian-edo lotan hasi orduko, sinetsia nuen gertatua, neure gardiz. Baina ondo kostata, alafede!

Biharamonean eta berdin ere hurrengo egunetan, oso eguraldi ona izan zen.

Ni berandu xamar jaikitzen nintzen, nekaturik bainengoen; eta patxaran apaindu ondoren, Gandera-mendira joaten nintzen. Itzalean ilun hozkirria zen; baina Azaro hark egun ederrak ekarri zituen. Mendi batzu gorri ikusten ziren, eta beste batzu, hori; itsasoa urdin-urdina. Eta koloreak hain bizi izaki, gezurrezko ziruditen, eta amets egiteko bide eta aukera zekarten.

Haize finak xahutzen bide zuen aidea, eta dena garbi agertzen zen, xahu, garden.

Urteak baziren halakoaz gozatzen ez nuela. Jaio berria nintzen 28 urtetan, eta zoratzen joaten zitzaizkidan goizak, han urrutian begirada, ezer egin gabe, ezer pentsatu ere gabe. Jende gutxi izan ohi zen; eta pausuak, igarota ere, denbora luzez entzuten ziren, geroz eta gutxiago, azkenean hotsa itzali arte.

Arratsaldeetan kalez kale ibili eta liburutegitan pausatu.

Neure gela iluna utzi nuen. Bestea, aurrekoa alegia, ez ematekotan, aldegingo nuela esan nion Loren-i. Gehiago ordaintzeko gertu nengoen.

Eta hala egin genuen. Loren-en senarra eta bera bi-zi izan ziren gelara pasa ninduen; eta ordutik kalea ikus nezakeen goizero; eta eskuin aldetik, Azazeta-ren kaleburuan, itsaso puska bat ere agertzen zitzaidan, zuhaitz adarren artetik...

Zoriontsu izan nintzela dirudi gaur.

Egun haietako batetan, laurehun milak koberatu nituen. Gogoangarria benetan!

Halere, ez zen lehenbiziko egun hartako poz eroa: laurehun mila pezeta nahikoa ziren, egia esan; baina denaz ahanzteko adina, agian ez ziren aski. Axola handia ez zitzaidan; baina gaztetan bezala ez nuen pentsatzen. Garai hartan pentsatzeke aurrera jotzeko ez nintzen gauza laurehun mila pezeta haiek Barrota eta Etxeberria alde batera uzteko lain baziren; baina nire ustez ez ziren aski besterik gabe aurrera jotzeko. Besteenez, noski, are gutxiago: ez nuen oraindik inorekin hitzegin; baina horixe zen iritzia. Zalantzarik ez.

Gero nire lagunek edo ezagunek berri hura jakin-ala, denak ziren aholkulari iaioak, eta bere kontseilua eman gabe ez zen inor gelditzen.

Hau egin beharko nukeen; hura egin beharko nukeen, hau ez, hura ez.... Orduan, gainera, egun guztiaz kalez-kale ibiltzen nintzelako agian, lagun anitz topatu nuen, eta gutxi gora behera behinik-behin, denek zekiten dena: gertatua, gertakizuna, eta ondore guztiak.

Horrek higuin eman ohi zidan.

Xabier ere topatu nuen, bera irakurtzen ari zela (nola ez!) Gandera-ko ttonttor batetan. Eta, beti bezala, elkarrekin hitzegin genuen luzaro arratsalde gogoangarri hartan. Bihotz-bihotzetik esan zidan neure loteria-rena jakitean: «Zorionak, motel!». Eta ez zidan ahol-

kurik eman. Baina dirua zertan enplega aipatu ez bazidan ere, beste gauzatan gogoia zuela esan zidan: «Ez niake nahi neure gain hire kontu-errendatze izugarri hori. Gehiegi lausengatzen hau Jainkoak».

«Oreopitheko» delakoa, Xabier-ek esan zidan bezala, modaz jarri du Herzeler-ek paleontologoen artean; eta eztabaidan bide dabilta jakintsuak tximua ala gizona denetz. Nik ez nekien tutik gauza haietaz, baina burutazio asko ekarri zidan. Hortzak aztertuz, erdi gizona omen da «Oreopitheko» delako tximu zahar hori; baina gizon-gizona goitik behera eta ziurki gure anaia bat, ez omen da.

Zer da? Hau diote jakintsuek: gizona sortu baino lehenago mota batzutatako erdi gizonak sortu ziren, eta haietako bat omen dugu «Oreopithekoa». Noiz bizi izan zen? Orain dela hamar miloi urte? Hortxe nonbait, omen.

Beraz, eta haxe da ni gehienik ikutu ninduen, adimendua, ezagufmena, munduaz eta norberaz konturatze-ko ahalmena, ez bide zen ziplo jaio. Gizona baino lehenago beste «saioa» franko izan zen: «Oreopithekoa» horietatik bat.

Teilhard de Chardin bururatu zitzaidan. Baina ez nuen astirik izan behin ere ezer ikasteko, eta dolorez aitortu behar nuen beranduegi zela.

Baina interesgarri zitzaidan eztabaida hura.

Nortasunean, ikusten denez, ezagutzen eta «Ni»tasunean, mailak dira. Agian zerbaitez konturatzen zen «Oreopithekoa», baina zerbaitez bakarrik; ez gu adina, tximuak baino gehiago bai ordea. Beraz, orain dela hamar miloi urte, era batera behintzat, mundua sortzen hasi zen. Bazen mundua, pentsa dezake batek. Baina

bazen eta ez zen. Mundua orduan itsua zen, bere baitan hetsia... Ez zekien zenik ere. Hots, ba al zen? Ez. Ezagumenak sortu zuen mundua; «Oreopitheko» hark agian: nekez, eta piskanaká-piskanaka, berak atera zuen gaia bere itsutasun osotik; eta hala eginez, berak sortu zuen mundua egiazki.

Mundua, «Oreopithekoa» baino lehenago (edo gizona baino lehenago, igual zait), zer zen? Ba al zen ezer? Ez ote zen Ezereza bera? Inork begira eta ikus ezin bazezakeen, zer zen? Deus ez? Gizonik sortu ez balitz, mundua ez zen ezer izango. Jainkoa balitz, bai, noski. Bera ikusle.

Gauzak eta Naturalezak, ezagutza sortu dute, konturatu gabe; eta sortze berean berak ere sortu dira. Baina aurrean ba al ziren berak, izan? Bai eta ez. Zergatik bai ala ez? Lehen esan dudana. Alimaliak ez du adimenik; «Oreopitheko»ak, bai eta ez, edo erdizka du; eta gizonak bai, badu. Nik ere batzutan loak hartu baino lehentxoago, esate baterako, badakusat eta ez dakusat; konturatzen naiz eta ez naiz konturatzen, bai eta ez... Eta norbaitek galdetuko balit: «konturatzen al zara, ala ez?», hau erantzungo nioke: «zu ez zara mundua ententitzeko gauza». Bai eta ez. «Ulertzean, etor berriz».

Mundua, hortaz, bazen eta ez zen. Izate hutsean zetzan, lozorroan gaudenean bezala. Bizi guztian lota bagina, biziko al ginateke? Ken ditzagun ametsak, eta egiazko biziera ez dela esan genezake, heriotza eta hutsa izan ez arren.

Erdi-izateaz konturatu nintzen. Eta ezdeus osoak beldur ematen bazidan, erdi-ezteustasun horrek honek ez ninduen oso lasai uzten.

Ni noizpait agian, gauean lo nagoela jaiki banendi, «Oreopitheko»a munduan zehar bezalaxe ibiliko nintzateke...

Hotzikara batek inarrosi: nondik nora pentsamendu horiek guztiak?

Familia ikustera joan nintzen. Pozkariotan nindoan gainera, aspaldi hartan ez bainintzen etxe aldera azaltzen; eta gainera gainezka nengoen pozez.

Baina, hara iritsita, berehala itzali zitzaizkidan alaitasunaren garrak. Gaizki egin nuela esan zidaten denek ahobatez: 400.000 pezeta ez zirela orduan ezer horrelako erabakiak hartzeko. Lanean segi behar izan nuela Barrota-rekin, eta abar.

— Zer uste duk ba, gizajo horrek? Diru hori ez duk gaur deus. Berehala ikusiko duk, baina ez gero hona itzul berriz laguntza eske: bi aldiz hondatu duk guk lortutako bizibidea. Beraz, hor konpon hemendik aurrera. Nahi duana egin ezak, baina baita guk ere hirekiko. Txotxolokeria gehiegi egiten duk gaztetan; eta ez zegok erremediorik, ikusten denez. Lanari berriz ere be-roaldi batetan utzi... Ene! Jesus, Maria eta Jose! Txoro hori!

Mailu bat han izan banu, mailuka hasiko nintzen segur aski! Astakerien handia!

Eta gero aitak, zirika, honela ekin zion:

— Bestalde, ikusiko diagu. Orain arte honetan, asko gogoratu haiz gutaz... larri henbilenean, jakina. Ikusiko diagu orain.

Betikoa. Ia noiz «pagatzen» didaten semeek, berekin «gastatu» dudana...

Hainbestetan zaharrakatu zen gurasoenganako lilura edo ilusioa, berriz ere artezitu zen goitik behera; eta erori ziren puskek kolpatuta, min hartu nuen bihotzean.

Etxera gehiagotan ez joatea erabaki nuen. Eta denbora luzean hala egon nintzen, gurasoak ikusi gabe, eta jaiotetxeko guztia zeharo baztertua.

VIII

Behin batean, neure gelan nengoela, aldameneko etxekoa etorri zitzaidan: «Zurekin hitzegin nahi du jaun batek. Gauza premiazkoa eta pisua dela dio».

Joan naiz, eta Luzarraga delako batek telefonoz:

— Zu al zara Leartza? Begira, Luzarraga naiz. Zuk ez nauzu ezagutzen, eta alferrik da nik orain telefonoz azaltzea. Hobe dugu elkar ikusi, eta elkarrekin moldatuko gara.

Berehala ginen elkarrengana.

Itxura atsegina zuen, eta berehala igarri uste nion ekintza-gizona zela. Hitz gutxi, baina erabaki asko eta aguro.

— Jakin dut loteria tokatu zaizula. Zure adiskide batek esan dit.

— Nork hala? —nik.

— Ezin esan. Hala agindu diot, eta ez daukat esaterik. (Nork esan ote zion oraindik ez dakit. Egia esan, jende askok jakin zuen hau, nolatan ez dakidala). Gaur laurehun mila pezeta ez dira deus, eta, nire ustez, hobe zenuke pezeta horiek negozioren batetan sartu...

(Niregana diru bila... Mundu hau!...)

— Hots, hitz gutxitan esateko: nik orain arte bur-nitegi batetan lan egin dut, eta halako txiki bat jartze-kotan nabil. Diru apur bat badut, eta gehixeago ingura dezaket. Zu ere nirekin etortzeko gertu baldin bazau-de, gauza bikain bat egin dezakegu.

— Zer baldintzatan sartuko nintzateke ni?

— Begira: tratua atsegin bide zaizunez gero, garbia-go mintzatuko natzaizu. Sal-erosketa konduetan neu ja-rriko naiz buru. Ondo ezagutzen dut dagoena eta be-har dena; sal daitekeena eta ezin sal daitekeena. Dirua zuk eta nik biok; oker ez banago, 400.000 ekar ditza-kezu zuk; nik, berriz, 300.000 eta tokia. Ez da asko, baina bai hasteko adina. Zuk, berriz, trebe baitzara da-kidanez, administrazio-gorabeherak eramango dituzu.

— Eta tratua eginez gero, zein izango litzateke tokamena?

— Hau da nire asmoa: nik hirutatik bi, eta zuk bat.

— Mmmm! Ez dakit. Utz iezadazu epe bat, pentsa dezadan.

— Bai, hotsegidazu nahi duzunean. Baina ez gehie-gi luza.

Horretan gelditu nintzen, beraz.

Etxera joan nintzenean, ez nuen honetaz ezer pen-tsatu nahi, bakea galduko nuelakoan.

Baina behin eta berriz zetorkidan burura hitzegin genuena. Beldur ematen zidan berarekin hasteak. Baina, egia esan, ni ez nintzen langile gisa sartuko: sozio bat izango. Desberdinak ziren oso, nik uste, lehen Barrota-rekin eta Olejua-rekin izandako egoera, eta Luzarra-ga hark eskaintzen zidana; eta zer beldurturik ez zela sinetsi nuen.

Gainera, hau bistan zen, laurehun mila haiekin eta

lanik sekula egin gabe, ezin nintekeen segi. Heldu egin behar nuen nora edo hara: ez gurasoek ziotenarengatik, ez. Baina, halaz ere, zerbait egin behar nuen, hein hartan ezin nintekeen betirako gera.

Eta pentsamendu hauetan pasa nituen bi egun, zer egin ez nekiela.

Luzarraga ikustera joan nintzen azkeneko. Baietz esatea erabakia nuen: nik nekienaz, irabazpide erraza zen hura; eta berehala aberats bihurtzekoa.

Beraz, aukera egokia iruditu zitzaidan Luzarraga-rena. Gainerantzean, ez dakit nola gertatu zitzaidan; baina diru hura neurekin izanda laster, burutsuago pentsatzen hasi nintzen. Zergatik, ordea? Behin ere nabaitu ez nuena nabaitzen nuen egun haietan: dirua galtzeko beldur ikaragarria. Sobera ezagutzen nuen, zoritxarrez, dirurik gabe bizitzea zer zen; eta berriz hartara nintekeen beldurrez, beldur izugarriago batek harrapatu ninduen, diru hura amaiturik zer gerta zitekeen pentsatuz.

Beldur nintzen ba, eta Luzarraga-gana abiatu nintzen egun hartan, tratua egiteko irrikitzen joan nintzen. Bazirudien egin-ala, akabo zela aukeraketa.

— Piska bat aztertu ondoren, lehengo egunean esan genuen iguala egiteko gertu naukazu —esan nion.

— Baita ni ere —erantzun zidan berak—. Idazki bat egin behar dugu orain honetaz; eta ia ahalik-eta azkarrenik lanean has gaitezkeen.

— Hori da —erantzun nion.

Lasaitasun bare-bareak bete ninduen.

— Ez uste izan, halere, hastapenak errazak direnik. Ez horixe. Gogoz hasi beharko dugu negozioa abiatu arte.

— Badakit —erantzun nion. Halere, aitortuagatik ere, alegia, ez nuen gogor egiteko asmorik. Hits hutsak zirelakoan nengoen.

Gero puntu xehe batzuri buruz mintzatu ginen. Eta bukatzeko, hau esan zidan:

— Gaizki iruditzen ez bazaizu, eta aurrerakoan lan-kide izango garenez gero, hika hitzegingo dugu. Ez da hala?

— Bai, bai.

Tokia, hots, burnitegi izanen zena, ikustera joan ginen. Hutsa zegoen, eta oso itsusi iruditu zitzaidan. Aho-tsaren oihartzuna ozenki entzuten zen. Halere, besterik zer eskatuko? Burdina gordetzeko nahikoa eta sobera.

Etixerako bidean pozik nindoan. Olejua-z oroitu nintzen, eta Barrota-z; eta barneko bakean murgiltzen nintzen laku epel batetan antzo. Lanegiteko gogoa ere izan nuen: sekula senditu ez nuena.

Noizean behin hara huts egitea pentsatu nuen. Sarriegi ez, noski, hura nire negozioa baitzen; baina noiz-tenka, zergatik ez? Olejua-rik ez zegoen, beharrik, ezta Barrota-rik ere. Neure buruaren jabe izateko atsegina dastatzeko gogo bizia nuen.

Gainera, neronen etxean izanda, ordu gutxiagoz lanegitea pentsatzen nuen: Barrota-enean hamaika-hamabi orduz ari banintzen, neurean zazpi edo zortzi orduz baino gehiago inondik ere ez! Gainera, agirian zen neure lan hark ez zidala emango ezta Barrota-renak eman ohi zidanaren laurdena ere. Hura poza!

Diru ugariago, bestalde... edozein tokitara joateko aukera hobea izango nuen...

Pozik nintzen. Abenduaren batean hasi behar nuen lanean. Eta, egia esan, urduri nenbilen oraindik ere bost egun falta zirelako!

IX

Lan berrian hasi, eta ni harrituta nenbilen: Luza-rraga hark goikoa eta behekoa nahasi, Urlia-rekin eta Sandia-rekin hitzegin, han-hemenka ibili, eta aste gutxi-tan abian jarri zuen saltzea. Dudarik gabe asko balio zuen hark hartarako.

Nire lana ez zen zaila, eta poliki moldatzen nintzen. Gupidagarri izan zitzaidan batzutan Aillande (honela deitzen nion ni, eta berak Peru niri, jakina), haren lana nirea baino garratzagoa baitzen. Gehiago koberatzen zuen, bai, baina merezi ez al zuen nik baino gehiago?

Eguberritan jaia zela-ta lehenengo kontu-garbiketa egin genuen: galantzia larria izan ez arren, ongi xamar zihoan hura. Handik laster, udaberrian oker ez banago, ongi irabazten genuen. Ez zen gauza tinkorik; baina halako hilabete batez, zortzi mila pezeta eraman nituen etxera.

Automobila erosi genuen, beharrezko baitzitzaigun. Astean bizpahiru egun bidaiari igaro ohi zituen Aillande-k. Almazenerako bi gizon hartuak genituen, eta ni oso ederki moldatzen nintzen. Hau ez nuen orduan

aitortu nahi; baina, egia esan, almalzen hartako administrazioa eramateak ez zidan ia lanik ezer ematen: irakurri ere egin nezakeen, eta liburu ederrak irakurri ditut han, tarteka-marteka. «Platero y yo», esate baterako; eta beste.

Bizia goxo zitzaidan. Eta udaberria etorri zenean, olerki-mena piztu zen nigan. Behin ere baino biziago piztu gainera. Burnitegia ez zen hirian bertan, kalean alegia; Zuntzarri-ko inguruetan baizik. Haren atetik Urrez-ko mendi beldurgarria ikusten zen urruti xamar, muruak eta guzti, eta fabriketako hotsa izan ez balitz, umetango neure Gantzai-n nintzela pentsatuko nukeen.

Askotan atera ohi nintzen kaminora, eta egurasten gelditu. Egun eguzkitsuetan amets egiten nuen han bertan: fabrikak aurre hartantxe izan arren, ez nituen ikusten, eta gainerako paisajea begiratzen nuen bakarrik. Atzean, handik 200 bat metrotara, harrobi bat zegoen; eskuin aldean, Olazarraga aldera, Otaño-ren tximenea agertzen zen. Urrez-ko pareta zaharrak, zemai. Urrez aldera, berriz, baserria franko, alde guztietatik sakabanaturik. Ezker aldera fabrikak, hotsak, mailukadak, tutuak, kaia...

Nik Urrez eta Soraluze aldera begiratzen nuen, Anduaga eta itsasoa ikusteko; baina handik beretik ezin ikus zitekeen, baina amets egin nezakeen. Aldiz, ustetik gutxienean, eta beti desgogara, gamioi bat azaldu, edo norbait galdezka, edo zena zela, eta beharrera berriz, eta ke-usainez betetzera.

Dirua franko xahutu nuen liburutan udaberri hartan. Ez ditut aipatuko. Denetatik irakurtzen nituen; dena zitzaidan atsegin: India-ko erlijioez batez ere, asko irakurri nuen. Baina, agian, gutxiago kezkatzen nintzen lehen baino... Bolada hartan, hots, lau edo bost hila-

bete hartan, irakurtzea laket zitzaidan, ez nuen ihes egi-
ten, aspaldian bezala; agian, atsegin zitzaidalako, eta ez
kezkabide. Seguru bezala nenbilen, eta gauzak eta ka-
tramilak berak gaingiroki aztertzen nituen. Segurtasun
hura ez zen normala, ene ustez.

Olazarraga-ra ez nintzen ia joaten: hango batekin
laguntasuna eginik, elkarrengana biltzen ginen astean
bi aldiz, baina bagenuen gaua pasatzeko gela polit bat.
Nik ez nuen emakume hura Marisa baino areago mait-
te; baina elkarri komeni gintzaizkion, eta biok pozik.
Askoz ere hotzago tratatzen nuen.

«Lupiña»ra itzultzen hasi nintzen. Urtebete edo ge-
hixego bazen hara agertzen ez nintzela. Zergatik? Zer-
gatik utzi nion joateari? Hango nire lagunak neure ez-
beharrean oroitu ez zirelako? Bai, hala zen, minduta
nintzen. Baina, bakarrik.

Eta orduan, dirua banuela-ta, besterik pentsatu: nik
adiskide egiazko bat nuela, Xabier. «Lupiña»koak ez zi-
ren ezer; eta banekien betirako, bost axola nintzaiela ni.
Bide-lagunak ziren ba, besterik ez.

Eta, zer axola niri halako «sasi»-adiskide haiek? Ni
bost axola haiekiko; zergatik ez, berebat, berak ere
nirekiko?

Halere, besterik aurkitu artean «Lupiña»ra itzuli
nintzen.

Eztenkak eta eztabaidak izaten ziren, lehen bezala,
Kepa, nire ustez, harroago zegoen lehen baino; eta se-
kula baino bekaiztiago. Bera hasarretzea gustatzen zi-
tzaidan, eta hau erraza zen: zerbait egokirik nik esan,
edo zirto asmutsuren bat arrapostu, eta begiradan na-
barmentzen zitzaion berehala niganako herra eta inbidia.

Errodigo eta beste berri batzu (Gabriel, Andoni, eta
beste biga edo hiru), hutsa; munduan emakumerik ez

balego, akabo. Emakumeak ez ziren horiekiko beste mundu bat, mundua bera eta osoa baizik. Xabier ez zegoen han.

Igande batzutan, hirutan agian, haiekin izan nintzen. Baina aspertu egiten nintzen zeharo.

Eta hartara pasa ziren hilabete batzu, bost gehienez. Eta bazirudien neure helburua lorturik nuela, eta antzianako hirrikak eta joranak sekulako itzaliak zirela.

Eta orduntxe gertatu zitzaidan kinka.

Lehendik ere zerbait somatua nuen neure barnean, baina ez zen nabarmendu. Nire bizimodua lasaia zen, baina hasia nintzen hartaz nekatzen. Hutsa nabaitzen nuen berriz ere neure baitan; oraindik oso arinki, eta gertakari latz batek zulatu ninduen ziplo.

Halako batez, lanerako bidean «Zuntzarri-ko Deia» irakurtzen nindoalarik, zirrara batek astindu ninduen goitik behera, eta sekula baino bortizkiago: Xabier-en izena zetorren eskela batetan!! Hogeita-hamar urtetan hila zen Xabier. Behin eta berriz irakurri nuen: «Atzo istripu batetan zentu zen». Ezin!!! Xabier nire laguna hil!!!...

Zergatik jakin gabe, autobusetik jaitsi nintzen hurrengo geltokian. Apirileko egun zoragarria zen: bizi berria iragartzen zen non-nahi; baina Xabier, neure bizian gehien maite izan dudana adiskidea, hilik zegoen, betirako hilik. Ez bide zen posible!!! Berriki ikusia nuen, eta beti bezala hitzegin genuen, konfiantza guztiaz. Ezin!

Mina jarri zitzaidan eztarrian: gora eta behera zetozen motorrak eta automobilak eginahaletan Txahoren kalean, Ganderamendi eta Olazarraga-beitia-ren artean, elkar aurreratuz eta presaka gorrian. «Bernardo

Deuna-ren Ikastetxe»tik igarotzean, haur talde bat kantari entzun nuen:

«Goizian argi hastean,
ene leiho hegian
xori bat pausatzen da eta
goratik hasten kantan.
Xori eijerra, hain alegera
entzuten haitanian,
ene bihotzeko tristurak
laster doak aidian...

«Ene xoririk maiteena,
zertaz jin hiz nigana,
iratzarazi naialarik
ametsik eijerrena,
jinik hain goizik, uste hiena
nik baniala hanitx pena?
Ez, ez, abil kontsolatzera
malerusago dena»...

Goiz ederra, eta are ederragoak kanta eta bere olerkia. Hura bai pausalekua! Bekaitza senditu nuen haurrenganako...

Bukatu zutenean, bozina-soinu zorrotz eta luze bategen urratu zuen kanta ondo baketsua. Urratsak norantz eman ez nekien. Xabier! Xabier hil da! Lizarreta alde-ra jo nuen, itsasoa ikusi nahian; jende gutxi zebilen, banaka batzu bakarrik.

— Betirako bukatu da, betirako bukatu da, eta sendo zegoen gizajoa... Nork daki ezer biharamonaz? Haren ahotsa entzuten nuela zirudien, eta edozein izkinatatik niri agur egiten azalduko zela.

Neure biziera aztertu nuen begiratu batez. Barrota-

-rekin nintzelarik, nork pentsa lezake Luzarraga-rena? Usterik gutxienean toka zitzaidan loteria; Bego-rena ere, zeharo izan zen ustekabekoa, sospresa hutsa... Eta Xabier gizajoak ere nola pentsa lezake hain ustekabeen akabatuko zenik? Nola etor zekiokeen honelako burutazio erorik? Baina egin du bereak. Dagoeneko mundu hau eta bera ere kitto.

Izugarria da gizonaren heina. Goiz hartan konturatu nintzen.

Ez nuen malkorik isuri; baina negar egin nuen egun hartan.

Bat-batean hutsa iruditu zitzaidan nire sasi-bake eroso; Aillande Luzarraga, ero bat, eta ni neu ere, zer? Hutsa.

Ordurako banekien nik neure bizimodua eskasa zela; baina neure burua engainatzen hasia nintzen, erosokeriak irentsi banindu bezala.

Halere, edonork ikusita, ni gizon zoriontsua nintzatekeen, eta barne mamitsukoa: irakurle amorratua, aberats xamarra, erdi amorante bat nuelarik, zer gehiago? Ez ote nuen denetatik?

Baina hutsa zen hura guztia. Goiz hartan nabaitu nuen ondo xamar lehenengo aldiz. Lehenbiziko astindua besterik ez zen; astindu ederra halabaina.

Egun guztian ez nintzen lanera azaldu. Zeharo hunkiturik nengoen, eta ez nintzen gauza ezertarako. Bazkaltzerakoan, jangar nintzela nabaitu nuen.

Biharamonean azaldu nintzenean, eztabaida bizia eta atsekabea izan nuen Aillande-rekin. Zergatik ez nintzen joan azaldu nionean, nire kariari gutxi eritzirik nonbait, gogor hartu ninduen, eta nik ere ez leunkiago hari erantzun.

— Begira —esan zidan—, orain dela oso gutxi nire osaba bat hil duk, gure aita zenaren anaia, hain zuzen: eta nahiz neronen etxean hogeitau urte pasa bazituen ere, ni hona etorri ninduan. Ehörtzetara joan ninduan, noski; baina alferrikako alakak eta hasperenak gerorako utzirik, segittuan itzuli ninduan.

Piska bat ezagutzen nuen Aillande ordurako; eta banekien, besterik aitortuagatik ere, ez zuela hark seguruki deus ere senditu. Hark ez zekien bihotza zer den.

— Halere, kontutan izan zak: etorri ez ezen, esan ere ez diat; lanegin behar denean, lanegin behar duk eta.

— Baina, zer da hortaz lana hire ustez? Hik ezer ere senditzen ez baduk maite huen norbait hiltzean, nik bai. Besterik ez.

— Besterik bai —errepikatu zidan goratik—. Koberatzerakoan parean bagaude, lanean ere parean egon behar diagu. Orain arte ez diat ezer esan; baina nahiko hasarre negok hire axolakabekeriagatik... Hik zazpi orduz lanegiten duk juxtu-juxtu, erdia edo gehiago nobelak letuz eta txatxukeriatan denbora galtzen duala, eta hor konpon. Eta hori ez duk burubidea. Negozioak hurbil-hurbildik eraman behar dituk, ala utzi. Gau eta egun egon beharra zegok gain-gainean; eta hik ez duk hori inondik ere egiten. Nik bai, ordea. Nik (eta hik badakik hau egia dena) ez diat hemen ordu tinkorik; goizeko zortzietarako hemen izaten nauk, eta gaueko hamarretan ere hementxe oraindik. Hortik zehar noanetan, berriz, horixe egiten diat, eta familiari eta denari uzten diodala. Beraz, hik ikusiko duk; baina honela segitzerik ez zegok. Ni behintzat ez negok gertu segitzeke. Orain arte alferrarena egin duk: astean behin gutxienez, ez haiz hona etorri. Zer uste duk, ba? Ez naizela konturatu?

Gauzak tankera hartaraz gero, ez zegoen erdian geratzerik: jo eta hautsi azkeneraino, ala atzera. Gogoz hartuko nukeen lehenengo bidea, baina arrisku gehiegi zitzaidan; eta, bestetik, egun hartan zeharó etsita nengoen.

Gainera ni beti izan nauk oso nagia edo beldurtia erabakiak hartzeko. Intuiziorik ez dut, alegia; eta neurre kasa eta polliki aztertuz ez bada, ez dakit ezer ziplo erabakitzen.

Jasan egin nuen ba Aillande-ren zaparrada gaiztoa, eta besterik erabaki artean behinik-behin, haren erara hastea erabaki nuen.

Amets lazgarri bat izan nuen halako gau batez, eta ikarak harturik esnatu nintzen, herio-suhar, dardarka... Xabier zen, Xabier berbera.

Eta bizirik zen. Trankil mintzatzen ginen elkarrekin. Bera oso sendo eta lasai. Geldiro mogitzen zen, bestetan baina geldiroago. Hauxe zen harrigarriena. Ikuskari hark nekatu egiten ninduen, izugarri nekatu: Xabier-ek besoa altxatzean, bazirudien zama eskerga bat jasotzen zuela; eta nik neronen eskuaz heldu ez arren, bera adina nekatzen nintzela. Hitza ere motela zuen; eta kezkatu egin ninduen ezin mogi hark. Bazirudien, alde batetik, pelikula nagitan ikusten nuela Xabier, «cámara lenta» delakoan alegia. Oinkada bat ematera bazihoan, mila lokarritatik askatzen ari zela zirudien lehenengo pausua eman aurretik.

Berak, ordea, ez zuen nekatzeko edo larri ibiltzeko keinurik egiten. Eta haren nagitasun harrigarri eta nekagarri hura ikusita, ziplo konturatu nintzen: txorakeria zen hura. Xabier hila zen.

Baina konturaturik ere, asaldatu egin nintzen geroz eta sakonkiago. Xabier nonbait ez zegoen hilik; hara

porogu bat: neronekin mintzatzen baitzen. Banekien nik Xabier hila zena. Baina batera, eta ametsean bertan, ez nuen sinetsi nahi, eta horretatik tiraka unagari hura.

Halere, bat-batean, ohi bezala hasi zen Xabier hitzen: nagitasun hura gailenduta, bizirik zen eta normal. Eta bizi zela sinetsi nuen. Nire neke astun hura segittuan itzali, eta berarekin solasean ari nintzelarik, hau esaten nuen neurekiko:

«Noski, Bizia duk. Nondik atera dut ba nik hil zen albiste hura?»

Eta lasaitu egin nintzen. Eta solasean berarekin segi, beste hainbestetan bezala.

Eta horretan ginela, aidean hasi zen Xabier ibiltzen, hegaz balihoa bezala, baina halaz ere besorik eta ezer higitu gabe, eta begitartea ezertan ere aldatzen ez zuela; eta berdin entzun niezaiokeen halere, aidean zehar bere goraka hartan zihoanean. Geroz eta gorago bera, eta berdin entzun nik; eta sobera ni, haseran bezala, harritzen ez nintzela.

Gero bai; gero harritzen hasi nintzen, eta kezkatzen, harrigarria baitzen hura ametsetan beretan ere. Nola edo zertan ibil zitekeen Xabier era ikusgarri hartara? Oso goian zebilen, hamar metro gora bai, baina ibiltzen has-tean parean gindoazen biok: ni behetik, bera goitik.

Bat-batean izutzeko aurpegia ikusi nion, eta neu ere ikaraz bete nintzen. Nire gainera zetorren, eta segundo labur hartan, katabu bihurtu zen Xabier bera, hil-kutxa beltz handi bat! Eta erortzen ari.

Haren soineko beltza, kaxa bihurtu zen; eta irribarez zituen bere hortzak, metalezko kirtena. Kaxaren oholak, halere, taupaka dardaratzen zirela gogoratzen naiz, lehertzera bailihoaz. Honek beldur guztizkoa eman zidan. Bizirik lurperatu dituzten gizajoez gogoratu nin-

tzen; etsi behar hura! Isil hura, taupadek urratuta! Eta Xabier, bere zerraldoan agian... agian... bizi zen! «Ez al duk zerraldoan amets egiteko beldurrik?» —Sekula ez zait bere hori ahantzi! Ene! Agian... amets... Agian... amairik ez...

Eskerga egin zen katibu beltz hura.

Eta bere irudiak zero guztia estali zuen beltzez, hartaz besterik ez nekusela.

Ihes egin nahi izan nuen, baina alferrik. Baina ez zen halere zerraldoa niganaino iristen; nire gainean zen, erortzear bai, eta eginahaletan hurbiltzen zela; baina ez ninduen halere ikutzen.

Xabier hila zela antzeman nuen berriz, eta eroaldi betean nenbilela. Beldurrak hartua nintzen; baina ezin eskapa, ezin aldegin. Likaz bezala loturik, ezin urratsik eman. Nolako larriak nireak!

Xabier-en hitz batzu entzun nituen, behin eta berriz, geroz eta goragotik: «Eskolara itzuli nahi diat... eskolara itzuli nahi diat... eskolara itzuli nahi diat...» Zerraldoa bera mintzo zela ematen zuen.

Azkenean esnatu egin nintzen. Ilunpe hartan argi printzak ikusi uste nituen, eta eginahaletan piztu behar izan nuen gelako argia, begi izutuak baitziruditen. Argia argitsuago behar nuen!!

Taupadek ez ziruditen taupada, zuraren karraska baizik. Armairuaren taupada senditzeko ikara pasa nuen, barruan bihotzik balu bezala... Hotzak nengoen, eta izerdi patsetan.

Baina Xabier hila zen, ala ez? Zalantzan une batez egon ondoren, eskierki ikusi nuen: «Bai, orain dela egun batzu hil duk. Amets zoroa izan duk hau».

Ezin, ordea, berriz lorik egin gau asaldutsu hartan.

Xabier-ekiko amets hura izan ondoren, beldurak egoten nintzen oheratzerakoan. Ez zitzaidan horrelakorik sekula gertatu. Baina halako larrikara pasa ondoren! Egia esan, txikitan bai: Baiona-n horrelako ametsek esnatu ohi ninduten, eta amaren ohean ez bazen, ezin nintkeen lo gelditu. Baina ahantzita nengoen.

Zerk hunkitu ninduen ba hainbestearaino?

Honetxek, nire ustez: haren lekuan jartzen nintzela. Xabier-ek ez zuen inondik ere pentsatu bere heriotza hain hurbil zenik. Halabaina bere akabera gertu zuen. Orobat nik ere heriotzaz bolada hartan oroitu ez arren, bertan nukeen agian. Xabier-ek izan zuen bezala. Banekien hau lehenagotik ere, baina orduantxe konturatu.

Bizkitartean, Aillande-rekin hobetoxe jarri ziren gauzak. Kontrarik ez egitea erabakita, bera bezain goiz joan ohi nintzen burnitegira; eta atarramendu oneko gizonaren biziera zer den, lehenengo aldiz bertatik ikusi nuen. Nazka izugarria ematen zidan berak, noski, baina hartan segi behar nuela sinetsita, onetara hartu eta miriku batek eria dakusen bezala aztertzea erabaki nuen. Amorraturik ere, entretenigarri zitzaidan Aillande-ren zorakeria galantak miatzea.

Haren etxea ikustean igarri nuen dena ederkienik: beraren gelan ez zen apaindurarik batere. Oso garbia eta berria dena, baina kuadrarik ez, esate baterako. Hozta, jela hobe. Bi seme zituen: bost urtetakoa bata, eta hirutakoa bigarrena. Bada ondoratzen zitzaizkionean, ez zekien haiekin jostatzen. Agirian zen: oso gutxitan ikusten zituen segurki; eta ikusten zituenean ere, ez zuela arlo hartan denbora gehiegirik enplegatzen.

Nik behintzat gauza bat esan dezaket eskierki: behin ere ez dudala beraren familiarekin ikusi.

Igandetan ifernuko suak kiskaliko bailuen, aldegin egin ohi zuen Zuntzarri-tik. Jaiegunetan aspertu egiten zen, nik aginduta. Astakeria handia iruditzen zitzaion igandero jai egitea. Zertarako? Hobe genuke egunero lanegin. Berak zionez, «alferrek asmatu zuten jai egitea»; eta Jainkoarengan sinetsi omen zuen zazpigarren eguneko kondua jakin arte bakarrik...

Besteekin gogorra zen Aillande; baina bere buruarekin ere, oso gogorra. Sei bat orduz loegiten zuen; eta egia zena bistan zen. Ez omen zen behin ere nekatzen; eta esnatuta laister hasten omen zen negozio-kontuak aztertzen, eta urduri jarririk, ezin omen zitekeen ohean pausa, eta zortzietarako bazetorren almazenera.

Hau nik frogatuta, gutxi iraungo nuela uste zuen. Nabarmen nekusen egia hau, zeren Aillande-rekin noski ez baitzegoen lanean aguantatzerik.

Harriturik bezala begiratzen nuen nik askotan, piztia arraroren bat legez, eta arrotz zitzaidan goitik behera: berak ez zekien, gonbarazio baterako, gogo-kezka bat zer den, edo bihotz-mina, edo arimaren larrikara. Besterik uste zuen berak. Baina bera harri gogorra zen horietarako.

Noizean behin arratsaldeko bederatzietan, elkarrekin joan ohi ginen itzuli bat egitera. Eta halako batez, hau esan zidan:

— Begira, begira. Ikusten al duk hortik pasa den hori?

— Ez nauk ondo konturatu. Nor da, ba? —nik.

— Horixe duk Ugarte famatua.

— Hara! Entzutea badiat, bai —erantzun nion.

— Noski, Paris-en egon duk hori pintura ikasten.

— Bai, bai, bai.

Oso ezaguna zen Ugarte hura Zuntzarri-n. Eta, askok ziotenez, kanpoan ere bai. Ona omen zen pintatzailer: ez dakit nongo bigarren saria irabazia zuen. Eta hartan eta hartarako bizi zen: diruz oso eskas zebilen; eta aunitzekin zorretan.

Egitia zen behintzat; eta honek bere kulpas asko kittatzen zuen niri iritziz. Jendeak ordea, kasu hauetan gertatu ohi den bezala, ez zettorren bat nirekin; eta dirua zor zuenez gero, hots, munduan dagoenik inportanteena, gaizki kontsideratzen zuten hirian, eta beraren «xebrekeriak» ez ziren oso atsegin.

— Horra hor, hik bezala biziera nahasten eta zailtzen duzuenotako beste bat. Biziera behar bezain gaiztoa ez iruditurik edo, istilu berriak asmatzen dizkitek beren burutik... eta, ikusten denez, hobeto bizi dituk horrela, dirurik gabe, eta beroien zentzugabekeriei inork ere jaramonik egiten ez dielarik...

— Zer uste duk ba hik? —erantzun nion nik bizi xamar—. Asmatu egiten dutela horiek ezer? Ez horixe. Horiek artista dituk. Hi ez izatea besterik duk.

— Utikan, utikan!

— Baina gogorra haiz! Hori bere mundu horretan bizi duk. Eta dirurik ez izatea, artista egiazkoa bada behinik-behin, ez zaiok axola. Bizitzeko lain emaiok, eta kontent saiaturiko zaik honela edo hala pintatzen.

— Begira: alferrik duk eztabaidan aritzea. Hi hura bezalakoa haiz, eta elkarri laguntzen diozue. Zuek txorakeria gehiegi duzue buruan, besterik ez.

Zer itxaron daiteke honelako gizon batengandik? Negozioz kanpo, edozein gauza, txatxukeria, ergelkeria, dirua eta diru-bideak, berriz, mamitsu eta interesante.

Neke bat omen da lanegin beharra. Baina, orduan ikasi nuen guztientzat ez dela hala: lana batzurentzat neke bada, askorentzat eginkizun bakarra da, eta jolasbide bikaina. Egiazko pintoreak, esate baterako, edo olerkari finak, lehenengo taldean daude; eta beroiei neke zaie diru-bidean saiatu beharra. Baina Aillande Luzarraga-k zer egin behar ote zuen gizajoak egun guztian zehar, diru-kontuan lanegin behar izan ez balu? Urkatu egingo zukeen bere burua lehenengo arbolan.

Horregatik Aillande-ek garaitzen dute mundu honetan, eta ez guk, Leartza-ok. Guretzat gogorra da mundua eta bizikera; haientzat berriz ederra, egokia, gozoa. Hona hemen agerkari bat: istripu bat izan omen zuen gaztetan Aillande-k, eta erren-maingu ibili omen zen luzaro xamarrean. Bada, jakin nuenez, lantokira joaten omen zen egunero, etxen bestela aspertu egiten zela-ta... Hura marka! Lanegiteko gauza ez izanik, Lizarreta aldera jo, esaterako, edo auzo baketsu batetara joan?... Ezta pentsatu ere. Zertarako? Dirurik ematen al du hori egiteak?

Nik, ordea, bizimodu hartan berriki hasita ere, nekatuta nintzen: eta bekaizkeriaz beterik begiratzen nituen itsasertzean arrantzan jarduten ziren arrantzaleak. Nik baino gutxiago irabazten zutela? Bai. Baina berak itsasoaren lagun ziren, eta ni burnitegiarena. Pozik egingo nukeen trukea.

Hilabete hartan hemezortzi mila pezeta irabazi nituen. Eta, zer? Heldarnioan gaua, Xabier-ekiko amets beltz hura etor zekidan beldur, eta... lanean eguna. Zertarako dirua? Noizean behin (atseginaren eskasa) eza gutzen ez nuen emakume batekin gaua pasatzeko?....

X

Horrela igaro ziren hilabete batzu. Urte t'erdi agian. Atzera begiraturik, geroz eta gauza kondagarri gutxiago gertatzen zitzaidan, nik uste: lehen, lagunak, neskak, itsasoa; bazen zerbait. «Lupiña»-eneko afariak geroz eta gutxiago gustatzen. Nire koadrilla zaharrear, lehen ez ziren batzu etorrita, hura ez zen nire giroa. Ez nuen hura maite, egia esan, hala aitortu dut lehen ere. Baina jolasbidetzat hartzeko ere, Kepa behar nuen, edo Manu edo Mikel; hauek ongi ezagutzen nituen, eta adarra jotzea erraza zitzaidan. Adiskidetzat, hortaz, bost axola zitzaizkidan denak: zaharrak eta berriak; baina jolasbidetzat nahiago nituen zaharrak. Eta hauek, zoritxarrez, gehienak, ez ziren «Lupiña»n.

Beste aro batetan, noski, beste batzu aurkitzen saiatuko nintzen. Baina orduko hartan ez nuen adiskiderik bilatzeko gogorik, ezta astirik ere oso sobera.

Horregatik, atzera begiratzen nuenean, pasadizu asko aurkitu uste nuen neure gaztaroan, eta gero, azken hiru lau urte hartan, batere ez. Hori zela bide, nire oroimena atze hartan finkatzen hasi zen, eta ni beldurtzen;

zahartzaroaren seinale neritzon-eta antzinan finkatze horri.

Baina hala zen: lehen asti gehiago nuen edozertarako. Aspaldidanik berriz, ez nuen lerrorik batere irakurtzen, esate baterako. Laburtu egin bide zitzaidan eguna, eta ez nuen hartarako betarik aurkitzen. Ezta lehen egin nezakeen beste askotarako ere.

Bihotzaren aldetik ere hotz nengoen. Ahantzi egin zitzaidan maitemina zer zen; eta erabat iharturik nengoen.

Baina etekin ugariak izaten nituela-ta, kontsolabide hartan leuntzen ziren nire hasarrealdiak: hilero hile-ro hogeï mila pezeta eta gehiago irabazten nuen. Eta ohitu egin nintzen dirua erruz irabazten. Eta gezurra iruditzen zitzaidan Barrota eta Etxeberria-ren denbotetako urria.

Baina zertarako dirua? Osasunez hobetoxe ibili nintzen bolada hartan; baina noizean behin amets beldur-garriak izaten nituen gauez, bitan ahul xamar gelditu arte, loegiterik ez baineukan.

Eta, zertarako diru hura? Lehendabizi astean behin egin ohi nion galdera hori neure buruari; gero astean bi bider, eta azkeneko, egunero. Zertarako? Zertarako dirua, biziaz goza ez banendi?

Aurrezki etxean 180.000 pezeta izatera heldu nintzen. Ez nuen ia deus xahutzen, gauez Olazarraga itsusi hartan besterik. Gainerako denbora guztian negozioan ari eta ari, negozio hura Jainkoa bera balitz bezala.

Esan beharrik ez, nazkatuta nintzen zeharo. Beste bide bat nahi nuen, beste zerbait: hura ezin zitekeen gehiago eraman. Zertarako bizi? Burnitegi hark dirua franko ematen zuen, bai, baina besterik ez. Eta arima-

rentzat balio ez duena, ez da gauza bizi guztia hartan gal dezagun. Dirua irabaztekotan egiten denik ezerk ez du horretara behartzen; biziera arimaren hauzia da; eta egiteko honetan erabiltzen ez duenak bere burua hiltzen du. Are gehiago: dirua koberatzen edo erosokeria berezi hori senditzen hasten nintzenean, okazadura mingotsez betetzen nintzen: zer zen-eta sasi-bake hura?

Aillande, beraz, eraile borobila zen. Berak honen garbi azaldu ez arren, bere egintzetan mintzatzen zen; eta Aillande dirua irabazteko bizi zen; besterik ez; eta ez zuen besterik zeren beharrik.

Honatzakoa: misiolariak Indietara dozenean, Jainkoagatik joaten dira: eta inork galdetuko balie: «Bai, demagun, Jainkoarengatik zoazte, baina, Jainkoa zertarako?», hau erantzungo liokete: «Jainkoagatik beragatik. Gehiagorik ba al dago agian?»

Eta hala da, fededunentzat Jainkoa da dena, eta ez dago ezer bera baino goragokorik. Bideek harengan dute helburua, eta helburua: Bera da guztien kakoa.

Ba, Aillande-rentzat, berebat, eta neure hitzak ongi neurtuz diot hau, dirua zen Jainkoa. Zergatik lane-giten zuen? Zertarako bizi zen? Erantzun erraza: dirua irabazteko. Eta dirua, zertarako? Hori bai txatxukeria: dirua, dagoen gauzarik axolatsuena delako. Dirua da absolutua; hots, dirua da guztien kakoa, hasera eta amaia.

Nor berera, baina biak bat. Aillande bezalako diruzaleak, alabaina, zer ari dira? Ez al zen Aillande bere hutsaz konturatzen? Somatu egiten zuen agian, eta beldurrak harturik, beste alde batetara jo nahiago zuen. Bizierak ez zuen jomuga garbirik; baina halere zerbaiten alde lanegin behar da. Gizonak beti egitekoen artean bizi behar du; eta eginkizunik gabe ez litzateke

biziko. Hots, diru-bidean saiatu beharra dago. Aillanderi beldurra ematen zion bere hutsaren ahotsak, eta nahiago zuen zarata eta egin beharretan mugi. Itsutu egin nahi zuen: jakinaren gainean aurrenik, oharkabean gero. Neroni ere hauxe gertatu zitzaidan: ohitu egin nintzela bizitzen, Aillanderekin hasi-berria nintzenean; eta kezkak itzalirik bezala gelditu ziren. Beraz, ez zegoen harritzekorik ezer Aillanderegan.

Behin eta berriz ibili nintzen horrelako pentsamendutan, eta neure bizimodu hark luzatzerik ez zeukala ikusita, Aillanderekin moztutzea erabaki nuen: neure partea eskatuko nion lehenbizi; eta aurrera. Bizi-molde hura ezin nezakeen-eta gehiago jasan: hura ez zen bizitzea. Geure ondasunen jopu egiazkoak ginen. Esan dudana bezala, ez dakit bera zer, baina ni bai. Aginduta.

Noiz egingo haustea?

Aillanderekin hausteko eguna etorri zen. Eta urduri xamar igaro nuen bezpera. Pausu larria zen, alegia; eta bestetan baino gehiago gal nezakeenez gero, beldur nintzen. Gaur ez nuke horrelakorik izango, agian; orduan bai.

Burnitegira baino lehenago Aillande topatu nuen; ni baino hirurogei metro aitzinago zihoan oinez, eta bera harrapatzen ez nintzen saiatu. Harritu egin nintzen halere, ez baitzen askotan hala joaten, automobila izaki. Gabardina horiska zeraman, eta sorbaldaren gainean zeramalako beharbada, oso motz iruditu zitzaidan: gauza harrigarria, zeren ni ez bainintzen behin ere horrelako gauzez ohartzin. Baina barragarri zihoan, belaunetatik gora zuen gabardina alde batera eta bestera kulunka.

Lantegian sartu, eta segittuan Aillanderegan joan eta esan nion:

— Egun on! Axola handiko gauza bat esan behar diat: lan honi uztea erabakita zeukeat. Sakonki aztertu diat, eta tratuan erabaki genuen bezala, eskubidea badiat aldegiteko, heuk ere duan bezalaxe; eta egingo ere diat.

Zurturik begiratu ninduen.

— Baina, adiskide: burutik egina al hago? Abian jarri diagu negozioa, eta oraintxe alde? Baina, motel, non edo nola bururatu zaik horrelako astakeriarik?

— Nahi duana. Gaztaroa galdu diat, eta ez diat denbora gehiago galdu nahi. Behin bizi gaituk, behin bakarrik, eta adiuntza bakar hau ezin zitekek nolnahi honda. Gehiegi duk orain arteraino ere txatxukeriatan xahutu dudan denbora.

— Baina, ez haut ulertzen! Uste baino gehiago irabazten diagu orain. Hara azkeneko hilean: hogeit mila pezeta hik, eta berrogei nik. Ez ote dakik hau preziatzen eta istimatzen? Ez zekiat zer esan, benetan. Hire jokabidea ezin uler zitekek.

— Bai, bai. Erraza duk ulertzen. Hemen erruz irabazten diagu, bai; alabaina, honenbeste edo hainbeste irabaziagatik ere, zer? Zertarako? Hemen dena utzi behar duk, hik egin duan legez: familia, norberaren atseginak eta zaletasunak, asti guztia, dena. Eta gero, horren truke, asko irabazten dela? Noski! Besterik ez zuan falta, alajaina; hemen dena utzi beharra zegok; goitik behera: hots, bizia saldu egin behar duk. Hik truke hori egin nahi baduk, egin zak; baina nik ez. Nik ez diat biziera horrela hondatu nahi.

— Baina, Peru: ez hadila kaiku izan. Astia, astia: beti hago horretan. Baina zertarako nahi duk astirik? Noiz aspertu haiz igandeetan adina? Aitor zak: sekula ere ez. Horra hor astia franko, ordea. Eta higuindu egin haiz, aspertu, norarik gabez nazkatuta. Horixe duk astia: aspertzeko aukera bat. Besterik ez.

— Ez —ukatu niok perrentean nik—; esan duan hori, batzurekiko bakarrik.

— Nola batzurekiko? Eta heurekiko ere bai. Ala liferente ote haiz? —berak zakarki.

— Zer iruditzen zaik atomoa? Zer bururutzen dik erosotasunak? Zerk berezten nau ni zoroetatik edo tximuetatik? Hona hemen egiazko kezakak.

— Baina, zer ari haiz orain? Horixe duk kakoa: hitz politak erabiltzen dituk, eta kitto. Horrela, axola duten hitzak erabiliz, besteok bainoagoa bide haiz, eta akabo. Harrokeriak irents, txorakeriatan asti hori gal, eta gero... geu kaikuongana, diru bila etor. Bapo!!

— Ez, ez, ez. Oraindik ez diat neurea besterik eskatu. Neure partea nahi diat, besterik ez.

— Bazekiat, baina sarritan hala gertatu ohi zaizue horrelakooi: beti ametsetan zabiltzatela, beti mundutik at; eta gero berriz munduratzean, geronengana jo behar izaten duzuela, geure laguntza eskatzera. Ez ote da hori gehiegi? Ergeltzat jo aurrena, eta gero guk kostata irabazitako dirua eska. Eta horrez gainera, erruz ez emanez gero, zikoizkeria aipatu, eta hau eta hura. Hik heuk egin ez baduk ere, askok egiten dik hau. Ez zak uka. Niri ere, zer uste duk, horrelako gauzez hitzegitea eta bizieran pasatzea gustatuko litzaidakek.

Hizketa hura beti zeraman Aillande-k bere diruaren sailera. Eta, konturaturik, berriz galdetu nion zirikana nahian:

— Bai, nahi duana. Baina zer iruditzen zaizkik galaxien fotoak? Zer gogoratzen ditek? Agian tontoarena egiten ari haiz hi hor berrogei mila pezeta horiek irabazten. Zalantza behinik-behin ez al duk behin ere senditu?

— Ba, ba, ba! «Aitzekia ona, gauza ona» omen. Ez

zak ihesik egin. Mundu honetaz ari gaituk: galaxietara ez gaituk oraingoz joango. Zertarako beroriengatik larri?

Eta hau esaten zuela, lasaiago gelditzen bide zen: bere «sarean» harrapatzen ninduen.

— Begira, Peru, neure iritzia: hi alfertzar amorratua haiz, eta aitzekia bikaina duk kontu horietan. Baina hik badakik, nik baino hobeto alferra haizena, gauza guztietan biguina haizena, belaska, eskasa. Egitekorik gehienak bukatu gabe uzten dituk, eta heure buruarekin motela haiz oso. Hik ez duk kemenik, etā, ez frakasatzeko, inori axola ez zaion ihes-mundu horietan izkututzen haiz. Hi ez haiz burrukalari.

Laztu egin nintzen. Arrazoi piska bat bazuen.

— Prueba bat jarriko diat: galaxiak aipatu dituk. Bai. Gauza izango hintzatekea bi orduz haietaz mintzatzeko? Seguru ezetz: burua jokatuko nitek.

Egia zen.

— Hi biguina haiz. Biguina haizelako, ez duk lane-gin beharra maite —ekin zion Aillande-k.

Arrazoi zuen alde batzutatik. Ni alferra nintzen, zabarra eta gertaerei kontra egiten ez nekien. Gazteago nintzenean, egiatzko aitzekia bat aurkitu nuen Giderengan: une bizi, minutuaren gogara abandonatu... ego-kia zen nire alferkeria eta nahimenik eza garbitzeko. Amets egin, atseginak dasta... Hots, burrukarik ez egin, Aillande-k zion bezalaxe. Berriz ere argia iruditu zitzaidan Aillande, beste alde askotatik begiraturik ere er-geltzat baneukan ere.

Baina beraren jokabidea hutsa zen, eskapabide bat, ez besterik. Halere, berak nik baino arrazoi gehiago zuela ematen zuelako, zakarki eta minduta erantzun nion:

— Eta hik maite duk kaskagorra haizelako!!! Hiri

ez zaik behin ere dirua ematen duen lanaz besterik ezer bururatu. (Berotzen hasia nintzen). Hi ezer senditzeko gauza ez haiz! Heu mogitzeko bai; baina haizeak ere hostoak inarrostean dizkik; hosto horiek, ordea, ez dituk ezer probetxuzkorik egiten. Hi ez haiz ezertxo ere sakrifikatzen nik esan ditudan gauzei aldegitoko.

— Ez horixe. Guk senditu egiten diagu; baina ez gaituk sendimenduaren jopu. Senditu arren ez gaituk unearren gatibu, hi haizen bezala.

— Ez, ez, Aillande. Hik uste duk, eta hori oso zabaldurik zegok gaur, mogitzea berez ona dela, eta so egotea berez ere txarra. Alderantziz duk alabaina: higitzea duk txarra, ez egotea. Beharrezkoa dugula esatea besterik duk: baina gizonaren eginkizuna begiratzea duk, betestea hobe; eta gero, begiratze horretan bere bidea agian topatzea.

Ondo defenditzen zen, egia esan.

— Ikusten? Alferrarena berriz ere: so, begira, etzan, egon. Horiexek dituk hire hitzak. Nik ere hartuko nik! —iseka bezala.

— Begira, begira —hotzean erantzun nion—. Hire egitekoak oro gezurrezko eginkizunak dituk. Dirua edukitzeagatik lanegiten duk, ez da? Eta diru hori inguratu duanean, zer egiten duk? Ez duk ezer goxatzen, ez duk lana eteten. Hartuta laister, beste negozio bat asmatzen hasten haiz. Eta horrela beste bat, eta bi, eta mila. Noiz da, ordea, katearen azkeneko maila? Nora lotzen duk bukatu ezinezko kate lantsu hori? Dirua irabazi duk. Eta zer? Beste negozio batetan sartzeko? Demagun; eta jo dezagun hori ere ondo irten zaiala. Eta bi miloi dituala, miloi bat. Eta, zer? Zertarako dena? Segiko al hintzateke lan-da-lan?

— Zer nahi duk ba egun guztian eta egunero egitea? —erantzun zidan Aillande-k...

Huraxe zen gakoa! Zer egin bestela egun guztiko orduetan zehar? Ez aspertzeko, lana: azalpen sakona...

Honegatik erantzun nion:

— Eta sekula ez ote duk pentsatu: eta zergatik aspertzzen naiz ba ni?

— Tira, tira, motel... Utz dezagun, jai duk-eta jarraitzea.

— Horra. Hik halere konturamena edo oharmena duk, galaxiek berek ez dutena... Batzuk bestalde, herorrek agian, arima hilezkor batetan sinesten duzue. Ez dela hala? Eta hau guztia zer? Deus ez?

— Horiek guztiok bizia nahasteko bideak besterik ez dituk. Hemen, Peru, gauza zehatzak dituk: mundua, bizi-beharra, ongi bizi-nahia eta abar. Hauetxek dituk.

Amorratzen hasiak ginen biok, doinuan nabaritzen ez bazen ere. Eta berak esan zidan:

— Baina zer ari gara? Nork berea sinets beza. Hik joan egin nahi duk, ez da? Eta horretxek ekarri hau gaur nigana.

— Bai —nik.

— Astakeria galanta egiten duk. Niregatik ez zaidak axola: hau martxan zegok, eta hi joan arren ondo xamar jarraituko zioat. Astebetean izango duk kontu-kittatzea; eta hire partea emango diat.

Eta halaxe gertatu.

Handik hamar egunetara neure dirua errezebitu nuen: 674.000 pezeta. Guztira zortzirehun bat mila baneuzkan gutxi gora-behera.

Eta Aillande-ri utzita, beste bizi-aro bat hasi zen niretzat.

Geroztik oso gutxitan ikusi izan dut bera. Eta oraindik goizeko zortzietatik gaueko hamarrak artean jarduten duelakoan nago...

Gizajoa!

XI

Gehiago behin ere ez lanegitea erabaki nuen. Hogei-ta-hamaika urte nituen orduan, eta kalkulu hau egin nuen: zenbat iraun dezaket nik? Hogei-ta-hamar urtez? Berrogeiez? Laurehun-eta-laurogei hilabetez gehienez. Beraz, mila-ta-bostehun pezeta baditut hilean...

Baina gutxiegi zitzaidan. Eta orduan konturatu nintzen. Zer ari nintzen ni? Xabier-en heriotzaz oroiturik, horrenbeste konturik ez egitea iruditu zitzaidan bidezkoena. Hura bai zela tentazio bat: «bihar hau egingo dut, eta hura»; «eta geurtz bestea»... Ez. Hori ametsetan bizitzea iruditu zitzaidan. Nola ez nintzen lehena-go konturatu? Gainera, nork sartu zidan neure erraieran lanaren ardura? Atseginari buruz bai: unea ustiatu behar zela uste nuen; baina txolarteetan bakarrik, lanegin ondoren. Zergatik? Banekien: dirua irabazi beharrez. Dirurik ez izateak behartu ninduen, noski, eguneko orduak lanean erabiltzera. Eta, gero, denboran zehar, lilura ez bada ere, eginkizun hertsia eta nagusia bihurtzen da; eta azkenean ohituraren indarrez, ezin utz daitekeen betebeharra.

Niri ere bide horretatixek, Gide eta atsegin-nahi guztiak astian erabiltzeko ideiak iruditu zitzaizkidan, nahiz-eta besterik uste banuen ere. Eta gizon burutsuen printzak nituen noizik behin. Orduan ikusi nuen garbi lehenengoz: etorkizunaz ez dakigu tutik, eta unea usiatu behar da goitik behera: «aldi joana ezta itzultzen», eta galdutako era ere ez. Lanegin beharra, berriz, ez da sasi-eginkizun bat besterik: Aillande topatu arte ez nekien hau.

Eta, dirua? Dirua behar da-ta... Lanegin beharra zigor bat da; baina ez lanarengatik beraren gatik, geure burua egiazko problema izkutatzen digulako baizik. Eta, zein da hau ba? Honatx hemen: denboraren ihesa.

Eta ez nuen gehiago pentsatu: denbora arin doa, eta etorkizuna gaitza da, berez. Erabakitzeke ez zena besterik behar.

Eta horrela bukatu zen nire lan-aldia.

Zuntzarri-ko edertasuna topatu nuen berriz, lehen baino biziagoa nire ustez, gogozkoago, izpiritualago, gaitasunik gabekoa. Edertasun freskoa zen, egunsentiko hai-ze finaren erakoa.

Halako batez, Monique aurkitu nuen Anduaga-Parkean bi haurrekin. Beraren semeak! Hunkituta joan nintzen beragana!

— Zer dugu, Monique? Nola zaitugu berriz hemen? Aspaldi honetan ikusi gabe... —frantsesez esan nion.

Lehendabizi ez bide ninduen ezagutu, eta zer egin ez zekiela begiratu zidan artega. Geroxeago konturatu zen, eta esan:

— Jesus: Peru zara zu! Barka. Oraintxe konturatu naiz. Zer moduz?

Hizketan hasi ginen zutik. Hiru edo lau urtetako mutikoak ez zigun lan handirik eman; eta besteak ere ez,

lotan ari zen eta. Ezin nintekeen ni lasai: harriturik nengozen zeharo. Monique hura ama bihurturik. Ene! Gauzarik normalena huraxe zen, noski: Frintzi-ra ezkondu zela ere banekien aspaldidanik. Baina gure amodio goxo hartaz oroiturik, gezurra iruditzen zitzaidan dena... Olejua hora!... Irribarrez ikus nezakeen azkenez. Zer gertatu ote zitzaion?

Monique-k ez zuen bere xarma guztia gordetzen, baina ni zoratu ninduen bere begirada xamurrak bai; baina... ez zen hura, ez zen «nire» Monique. Hau beste bat zen: denborak aldatu zuena hain zuzen. Barne-zirrara senditu nuen. Zenbat urte pasa zen elkarrekin ibili ginenez geroztik? Bost? Zortzi? Ez nekien. Ez nuen jakin nahi. Ez zidan berak ezer aipatu gure bolada hartaz; baina atsegina biok hartzen genuela uste dut. Atsekabea atsegina zen, gozo mingotsa; denbora pasea zelako tristura hunkigarria. Ni ez nintzen «haren» Peru, ezta bera ere «nire» Monique; haiek biak hilik ziren. Eta gure mina huraxe zen: betirako hil ginen segurantzian zegokiona.

Lau pertsona ginen, ez bi. Ni ez nintzen neure burua; ni bitasun bat nintzen; eta Monique beste bat. Gure nortasunaren batasuna norainoko ipuia den egun hartan aurkitu nuen garbiki. Lau ginen; edo sei, edo zuk nahi dituzun hainbat.

Atzera ezin itzultzeak horregatik ematen zigun mina: gauzak ez ziren noski lehengoak berak; baina gu geu ere ez. Pasa egiten da dena, gauza guztiak itzaltzen dira beti ere: ez dago irauterik! Eta geu ere berdin.

Monique, egiazki hitzeginez gero, ez zen Monique. Monique behin izan zen Monique, eta ni behin Peru; baina orduan beste bi ginen. Eta honetxek ematen zigun larrimina. Esate baterako, gu ez gineteke gehiago-

tan maiteminduko. Zergatik? Bera Monique ez zelako. Gu Blas eta Josune, edo ipin ezazu gogo duzun izena; eta horiek ginen egun hartan. Hots, beste biga; baina azaltzen zail den zerbaitengatik, Josune honek Monique gogoratzen zidan; eta Blas-ek, hildako Peru hura. Besterik ez.

Etxera joan nintzenean oso etsita nintzen: zeren inork ez zuen esaten, baina Monique hura hilik baitzen. Ez zegoen dudarik. Eta hona beldurgarriena: Peru ere, ni bizirik jarraitu arren, hila zen!!! Eta ez nintzen konturatzen. Eten gabe hiltzen nintzen.

Beti hiltzen nintzen!!!

Hura txorabioa!

Dena hiltzen bada, dena akabatzen bada, ezerk irauten ez badu... Zer ote da hau? Zer ote da hiltzen dena?

Nire urduritasuna fisiko egin zen: zirrara ahantziak ziren haiek. Baina pozez bete nintzen: neu bainintzen berriz. Olejua-k, Barrota-k eta Luzarraga-k kolpatu egin ninduten bortizki; baina nire barrenean urduritasunaren garra sutan zen berriz ere.

Gar hori itzaltzen saiatu nintzela oroitu nintzen, baita lotsaz bete ere: arrazoi zuen Xabier zenak. Eta zergatik hil nahi nuen bada gar hura? Azalpen bakar bat zegoela uste dut: nire bizimodu haiek heriotza eskatzen zuten, dirua irabaztea eskatzen zuten —eta. Baina zer da diru-beharra, sasi-behar bat baizik? Zer da jendeak «lana» esan ohi duena, zigorrik gaiztoena baizik? Orain ez naiz harritzen: neure hartan hiltzea zen nire helburu bakarra: era hartan ezin zitekeen ezer desira. Eta desiratzen zenean, arimako goragaleek kezkatasun hura esaltzea eskatzen zuten. Gupida eman zidaten txiro guztiek, ez baitezakete, beren diru-behar gorrian, gizonari dagokion kezka nagusi eta naturala gorde, beren hein

izugarriak bortxatuta. Behartsu eta errumes guzti-
ko senditu nuen izugarrizko errukia, eta maite izan
nituen.

Egun osoa nuen neure gisara ibiltzeko: ordu guz-
tiak libre nituen. Ez lanik, ez betebeharririk. Zama han-
di bat kendu zidaten neure bizkar gainetik.

Baina hura ez zen nik nahi izan nuena. Banuen na-
hi adina astirik, baina hartaz nola balia jakin ez; Olejua-
rekin ari nintzenean egun guztia libre eskaini balidate,
ez dakit zer egingo ez nukeen: egun osoa...

Zoragarria!

Eta bai, hala zen: zoragarria eta edonork desiratze-
koa zen nire egoera hura. Baina, egia esan, ez ote zi-
tzaizkidan gehiegi hogeita-lau orduak egunero? Goi-
zean etxetik alde egiten nuenean, pasean hasten nintzen
alde batera eta bestera; baina eguraldiaren ederra nola
ustia jakin gabe. Hainbeste urtetan neure denbora sasi-
-eginkizunetan enplegaturik, astiaren ohitura galdu
nuen; eta bazirudien zerbait falta nuela. Are gehiago:
gaizki egiten nuela bururatzen zitzaidan noizean behin;
lanik ez egitea faltaren bat bailitzan. Zerbait egin be-
har nuen, zirudienez, neure bizimodu berri hartan hasi
nintzenean batez ere.

Diotenez, horixe gertatu ohi zaie gartzelan luzaroan
gatibu egon direnei: hara nahi dutela berriz, askatasu-
nean egotean, presondegi ilunaren beharra balute be-
zala. Halere, gupidagarriago dira honegatik.

Eta ni ere, neure hartan, lanegin-bèharraren hutsu-
nea senditzen nuela, gartzelatik irten-berria bezala, gu-
pidagarriago nintzen edonor baino. Ez baita eria ohean
dagoena, gartzelatik atera-berria baizik.

Gehienetan, joandako denboran tinkatzen nuen neu-

re oroimena, eta orduak igaro ohi nituen aspaldiko gertaerak neure barrenean piztutzen. Atsegin zitzaidan joana zena gogoratzea: orduan bizi izan nintzela iruditzen zitzaidan; baina harez gero, geroz eta hilago nenbilela.

Beste batzutan (oso oso gutxitan, nahiko etsirik bainengoen) etorkizunean egingo nukeenaz pentsatu ohi nuen. Etorkizunak ikara ematen zidan: oraindik ere berrogei urtez iraungo banu, zertan enplega horren denbora luzea? Egunero honela? «Ai ene: zeinen ederki bizi nintzen ni»... eta abar. Horiek guztiak, bestalde, ipuiak ziren. Ni gaizki bizi izan nintzen gaztaro guztian; eta hartaz tristerik oroitzea, oker bat zitzaidan. Baina beti atzera begiratu behar bolada hartan.

Horrela, azken aldi hartan beti nenbilen desgogara, noizpait Luzarraga-rekiko denboran batez ere alde-rantziz bazen ere; atzean egon, edo etorkizunean, sekula ez nuen bizitzen garaiko unea bera. Ez nintzen trankil. Beti urruti, beti at, beti lekorean. Noiz atzemango nuen oreka eta mementuan pausatzea? Noiz esango: «gera nadin hemen eta orain»? Ez, ordea, beti urduri, beti kezkatu «bihar», «atzo», «han»... Eritasuna zen. Gizon asko hunkitzen duen eritasun harrigarria. Ihes-mina deituko nioke, edo horrelako zerbait. Orainak giharrerik ez, nonbait. Zahartzaroa segurki!

Nire helburuak urrunduz zihoazen: behin ere baino urrutiago nekusen jo-muga. Hedaturik zegoen neure mundua, barne-eremua arrotz egin arte; eta bakarrik senditu nintzen bakardade beldurgarri hartan.

Ihes egin nahi nuen, zeren ingurukorik ezer ez baitzen nire garaikorik. Hura guztia mundua zen, baina ez zen «nire» mundua. Pasata zen bera, eta ni neu ere bai. Adio gaztaro maitagarria!

Baina, halaz ere, zerbaitez konturatzen nintzen: nire

egoera hura ez zela betirako egoera. Handik bost urtetara, edo hamarretara, orduko egun huts eta triste haiek, alai eta bete irudituko zitzaizkidan, eta gero ere berdin!

Denboratasunak tristatzen ninduen ni, ez bestek. Ni neu igaro ala, denborak gezurtaraten ninduen. Baina, nola? Nik denboratasun horretatik at ikusi nahi nuen neure burua. Oharkabea, agian. Eta nola lortzen nuen? Neure burua atzean ikusiz, edo-ta etorkizunean. Oroitzapenetan finkaturik nago neure hartan, jadanik ez naiz aldatzen, ez naiz hartatik bilakatzen eta hiltzen; eta honetatik zitzaidan laket oroitzapenenetan murgiltzea: denboratasunak ez baininduen haietan zapaltzen.

Denboratasuna gorroto nuen. Askok uste duenez, behin hiltzen gaitu denborak: heriotzan. Baina hori ez da egia: egunero, beti, eten gabe hiltzen gaitu. Ez gu bakarrik: gure «nitasunik» ez dago, eta gauzetan ere ez dago ezer dirauenik. Denboratasunak irauten du bakarrik: dena itzaltzen da, berak dena egiten du igarokor eta hilkor.

Horregatik nahi nuen nik bakea: eta bake hura denboratik kanpora aurkitu uste nuen. Oroitzapenetan ezer ez zen aldatzen: oroitzapenek denboratasun hori hil dute, eta hargatik lasaitasuna ematen.

Baina oroitzapenak ez dira gure: gureak izan ziren, bai, baina pasa ere egin dira; eta ni ez naiz oroitzapenetan gorde den irudia, gaur bizi naizen pertsona baik. Beraz, ni ez naiz neure igarokortasun horretatik libratzeko gauza. Uneari loturik nago; eta hartan ez baltz, ez nintzateke deus izango.

Ahatik, alferrik da.

Baina, ohargarria zen hura: denboratasunetik libratzekotan, oroitzapenetan bezalatsu egin behar. Une laburrak ez du ezer ematen, bere izanean bertan baitarama

larrimina eta bere hutsa. Ezin iraun dezake. Gehiago behar al da larrimina nabaitzeko? Kontzientzian barrena, ordea, oroitzapenean bila egiten dugun bezala saiatu banintz, zer?

Burusoil batekin hitzegin nuen. Bere buruaren larru distirantea agirian zuen; eta elkarrekin ari ginenean, bertago zekarren burua, eta neure aurre-aurrean nuen. Nik haren haragia ikusten nuen: troskazko pitxar bobobila zirudien, larrosa kolorea, eta puntu batzutan ile-dun. Eta bat-batean nazka eman zidan. Troska hura berroxko zegoela pentsatu nuela, eta ikutzen nuela bururaturik, keinu bat atera zitzaidan ziplo: alimale soil baten burua nekusen.

Egun batzuez horixe iruditu zitzaidan buruaren kopeta. Batean adarrak zituela ikusten nuen, eta izugarrizko goragalea ematen zidan; beste batzutan katu bat, eta kopeta distiratsua agertzen zitzaiola somatu bezain laister, nolako goragaleak!... Kalparrik ez kopetan! Itsusia benetan! Bepuruak ere halaxe ikusten nituen, ile urriaren antzera: bat banaka ikusten nituen larruan: bat, bi, hiru, lau... ile aski ziren, baina denak elkarren ondoan. Belardi batetan ere, umetan, halaxe ikusi nituen belar-aleak, eta hain artean lur-puskak agertzen zirela oroitzen naiz. Eta etsipen handia nabaitu nuen, nik uste izanik mendia berde zela guztiz.

Eta halako zerbait zen hura ere: ez zen ilea, ile asko baizik, eta kondagarri; ez zegoen, alegia, adatsik edo mototsik: ile edo bilo aleak ziren.

Alimalia soila zen gizona, hortaz, ile asko ez-baina ile gutxi duena. Eta bere ataletan, aurpegia eta kaskoa ditu higuingarrienak.

Zergatik ez dugu beraz bizarra handitzera uzten?

Hobe genuke, geure alimali-larrutasuna pitin bat bederen estal zedin.

Bitan izan nuen amets harrigarri bat.

Nik ez nuen emakume hura ezagutzen. Ezagutu nahian neure arreta guztiaz begiratzen nion aurpegira; baina ezin ikus haren begitartea. Gainerantzeko guztiarengatik, zoragarri zirudien, baina begitartea ezin inola ere ikus.

Atsekabe latzak igarotzen ninduen tiraka horretan, eta emakume hura ez nuen behin ere ezagutu.

Nik oso beroan, eta indarka bizian, besarkatu nahirik besotik heltzen nion; baina bera, indartsua izaki, behin eta berriz askatzen zen.

Eta asko nekatzen nintzen bitarte hartan.

Azkenez, leher eginik egon arren, lepotik heldu eta musu bat eman nion ezpainenetan. Orduantxe aurkitu uste nuen zorionik sakonena. Baina une hartantxe, oinaze beldurgarri bat hasten zitzaidan ahoan; eta segituan, lipar labur batez, nire soin guztia betetzen zuen. Geza pozoitsua zirudien musuak: sartu-ala, kaltetu eta mindu.

Esnatzen nintzenean, izerdi patsetan ohi nengoen: ahaleginaren handia! Eta, atsekabearen mingotsa, gero...

Egun haietan hau pentsatu ohi nuen ere: ez zela maitatzen. Ederra zen, bai, udaberria. Baina hura ez zen, nire ustez, gartzetango nire oroitzapenetan gordetzen zen irudia. Hotzago zen, nonbait.

Seguru asko pentsatzen ari nintzena egia ez zen. Neu nintzen maitatzeko gauza ez nintzena, ez besteak. «Lilietatik» pasa nintzen arratsaldean, Gandera-mendi atzean, eta halaxe: han ziren maitale beroak, elkarri musuka.

Baina halaz ere, mementuan bizi al ziren haiek? Ez

dakit; baina ez dut uste. Berak ere, honetan edo hartan, ihes zebiltzan eskierki: edo gehiago nahiak, edo tokiaren agiriak, edo zena zela, inor ez zen han ere bere hartan bizi. Haiek ere, nire iritziz, urruti, gero, bihar, atzo... Eta berak, ordea, beren une mamitsu hartan bizi ez baziren, nor ote? Zertarako bila?

Marisa-z gogoratu nintzen, beronen lagunaz, Bego-z beraz, eta... huraxe bai egia! Behin ere ez lasai: batarekin edo bestearekin beti egon nintzen kezkatu, urduri, goraka nahian, edo beheraren beldur... Noiz atsedena? Noiz? Ez nuen ezagutzen, egia esan, presenteko betetasunik.

Halaxe zen.

«Lilieta»ko haiek eta Lizarreta-n ikusten zirenek, halere, urduri edo gogait, amodioa maite zuten behinik-behin: zerbaiten bila abiatzen ziren harantz, gero ihesi bazebiltzen ere. Ni, berriz, ez. Bakarrik nenbilen; eta ez nuen ezeren faltarik senditzen, zeren esperantzarik ez bainuen, hitz zaharrez esateko: «zahartzeak deus onik ez du»; eta huraxe nabaitzen nuen nik ere: edozein aldetatik, hau gezurra bazen ere, hobe lehenago orduan baino.

Hosto iharrok zertarako iraun?

Amodioa ez-baina nihaur pasa nintzen. Eta bai azkar!

Betirako!!

Ez nintzen gaztetasunik senditzeko gauza: alferrik zen. Neu nintzen joana.

Betirako bukatua.

Eguraldi ona ari zuenean, itzuli luze bat egin ohi nuen goizean. Etxetik Lizarreta aldera jo; eta itsasertetik beti Gandera-mendi atzera aurrena, Lilieta-ra gero;

eta hemendik aldapan gora kaira baino lehenago Urrez aldera jotzen nuen, haren murru zaharrak helburu harturik. Horrela, almazena zegoen tokiaren ondotik igarro ohi nintzen, baina aurre-aurretik joan gabe: ez nuen Aillande topatu nahi. Beraz, Txaho-ren kalera helduta, eskuin aldera jo, eta Olazarraga-ren azpitik neure etxera iristen nintzen.

Bestetan, bidea aldatzeko, Mendebaldera jotzen nuen; hots, Urrez ondotik Soraluze-ra. Hau oso atsegin zitzaidan: baserriak, gurdi zaharrak, itsasoa han aurrean, eta Hegoaldean Urrez-ko gaztelu famatua. Eta Soraluze-tik Olaburu-rantz gero, eta Lizarreta-tik etxera.

Asko pentsatzen nuen hau egitean; eta ia bide guztian zehar itsasoa zen nire gogoeta guztien lekuko isila. Bizia betirako galdurik nuen ustea, zindoki finkatu zen nigan. Eta asko nozitu nuen.

Egia garratz hori hala ote zen jakite arren, saio bat (azkeneko saioa) egin nahi nuen, eta egiteko erabakia hartu nuen. Sekulako parranda asmatu, eginetara nintzen.

Traba bat aurkitzen nuen: ez nuela jenderik nahi, batetik; baina bestetik, kristauik ikusi gabe, egia esan, halako jairik ezin egin zitekeela.

Pattar botila bat inguratu nuen, eta Xonta-ko harrietara abiatu nintzen bakarrik. Puntta txiki bat da hau, Lizarreta-tik Anduaga-rako bidean dagoena, eta ia «Soloarte»ren azpian. Eta behera hartan, kaminoa itsasotik hogeitak bat metrotara utzita, harkaitz handiak dira. Ekaitza denean, han lehertzen dira olatuak gehienik. Arratsa zen, eta neure barrenean ez neraman kezka bat besterik: lortuko al nuen gaztetango giroa ordu batzutan behintzat piztutzea? Bestetan inarrosi ninduen su-

karra nahi nuen berriz; oraindik ere zeharo galdurik neurre burua ikus ez nezan. Eta, hartarako, edan egin behar aurrenik, erruz edan, banekien. Hartara zetorren pattar fuerte hura. Huraxe bai hilak piztutzekoa!

Harri handi baten gainean eseri nintzen, pattarrezko botila beti lagun, eta zurrutaka hasi. Berehala piztu ziren Zuntzarri-ko argiak, eta uraren ispiluan dardar ikus zitezkeen beroien leinuruak zilar bizian antzo. Itsaso bare barea zen, eta haizea epel. Izarrik ez goi ilunean.

Harkaitzen errainu beltzak Zuntzarri-ko argitasunean agertzen ziren garbiki, eta Lizarreta-ko argi-kollareak zuzi-prozesio isila zirudien.

Ni, zipitzik esan gabe, ari eta ari, botoila hustuz nindoan. Soinu txiki txikia urak, zuloaren batetan sartzean oihartzun ñimiño bereziak eginez...

Gizon bat pasa zen handik. Eta, ene gardiz, izutu egin zen niregatik. Diximulatzekotan makurtu egin zen, nonbait nik ikus ez nezan. Ez dakit nolako itxura nuen bada nik ikusten denez. Arrantzalea zen hura, noski, eta halako garaitan handik joaten ez zen lehenengo aldiz joana.

Edan eta edan errespetua galdu nion ez hiltzeko senari; eta bestetan bezala erorita ere, minik hartuko ez nuela sinetsirik, ezertxo ere ikusi ez arren, arretarik baterere gabe mogitzen nintzen harri zorrotz haien artetik.

Halako batez, irristatu egin nintzen goroldio linburi hartan behera, eta nekez heldu nion inguruan zen harri latz bati, eskuetan min hartuz. Mila puskatan botoila. Ez zen ia ezer entzun: kask seku bat eta kitto. Isila sortu zen berriz. Zurrut gehiago ezin eman; bukatu egin zitzaidan edatea. Burdinazko eskailera zatar batetatik igo nintzen Lizarreta-ra: eskailera hotz eta heze zegoen, eta argi motel hartan berean somatu nuenez, herdoiz

gorritu zitzaidan esku-ahurra: itsasoaren usaia zerion, eta burdinarena ere bai, ez gutxiago.

Arin igo nituen mailak; igo beharrik ez bide zegoen gau hartan, eta nagitasunik ez nuen besoetan, ez hantetan. Bikotea franko ere bai: Anduaga-tik batzu, Anduaga-ra beste batzu. Bekaizkeria. Bego bururatu zitzaidan...

Oso zuzen eta artez ezpada ere, Olazarraga aldera jo nuen Lizarreta-tik. Aspaldidanik ez nintzen hara azaldua. Iritsita laister, whisky bat edan nuen Baiiao-enean; eta han nengoela, Jeanine-k egin zidan begiaz kliska bat; baina ez nintzen gauza bera neurekin berriz eramateko, eta ez-ikusia egin nion. Eztulka hasteko adina ke zegoen. Alkool gehiago behar nuen nik: hankak arinak nituen, baina burua neure buruaren nagusi oraindik. Betiko leloa: nola itzal adimenduaren azkeneko printz horiek?

Pippermint doblea eskatu nuen, eta gero rhum bat: eztarria sutan jarri zitzaidan; baina...

«Maitetxe»ra abiatu nintzen: izenak darakusan hori zen. Gizaseme gehiegi han; baina gutxi irauten zuten gehienek. Egia esan, atera ala, beste hainbeste sartzen ere, eta lumeroa ez zen aldatzen. Pianoa itxita zegoen, eta berorren gainean emakume narratx bat ikusten zen, erretzen ari, eta sasi-manpiresaren antzera. Gazte bat gaiztoki ondoratu zitzaion; baina ostiko batez atzerarazi zuen berak. Hitz zantzar nardagarri batzu entzun ziren, eta aldegin zuten sei bat gaztek. Denaz oroitzen naiz: seinale txarra, egun hartan gero ezertaz ez oroitzea desiratzen nuen-eta.

Etxe hartako sukaldera joan nintzen hango neska gazte batekin: nola zeritzon ez dakit. Nik ordaintzen niola-ta, koñak frantsesa atera zuen, eta biok buruz bu-

ru, berehala hustu genuen. Zahato bat atera genuen gero ez dakit nondik, eta koñaka gehiago hantxe sarturik, hona asmatu genuen jokoa: urrutitik bota behar genion edaria elkarri. Goitik beheña busti ginen biok koñakaz; eta bera berehala mozkortu zen. Ni neu ere, aski.

Ez nuen halere oraina bizitzen, ardo gehiago behar nuen, edo zerbait: ez nintzen mementuan bizi orduan ere. Nahi nuen, bai; baina ezin... Ezin gal «gero»ko edo nolana hiko, irrika etengabe hura.....

.....Biharamonean buruko min izugarria nuen. Jai-kirik, izutu egin nintzen: zulo txiki bat ikusi nuen neure bekokian. Zauriaren itsusia! Gorri-beltz zeuden haren zakarrak, eta higuin ematen zuten. Erori? Norbaitek jo? Antzik ere ez nion ematen. Ez nekien. Eta oraindik ere ez dakit zer gertatu zitzaidan edo nolatan iritsi nintzen etxeraino. Loren-ek, berriz, ez dit hartaz sekula tutik esan.

Egun batzutan ez zitzaidan buruko min izugarri hura pasa. Zauria bai; zuloa ez zen sakona, larrudura bat baizik.

Nire biharamonik tristeena huraxe izan zen. Bezperaz gogoratzen nintzen, eta gauza bat aurkitzen nuen: Olazarraga behin edo behin atsegin izan bazitzaidan, orduan ez zitzaidala halakoa inondik ere iruditzen. Jandak ez ninderaman hara Olazarraga-k berak, ezpada neronen oroimenak, eta nire atsegin-behar etsiak. Atzera bihurtu nahi nuen; baina, berriz ere, ezin. Errefraua zertorkidan berriro: «aldi joana, ez duk berriro itzultzen». Hala da!!!

Eta ni ez nintzen izan nintzena. Agirian zen: Olazarraga-k ez zidan ezer atseginik ematen.

Eta larriminez bete nintzen.

Itzalia zen betirako neure goibelaldietan gatz pittin

bat eman ziona.

Eta, nire ustez, ez zegoen besterik. Marisa, Sofia eta gainerakoak, lekutuz gero, non aurkituko nuen nik atsegina? Atseginik gabe ikusi nuen bada mundua, irenek antzo, eta larrimin izugarria eman zidan etórkizunak.

Non palaka nik zorion-mina?

Aspaldidanik ikusten ez nuen Kepa topatu nuen halako batez, eta ez-ikusia egin nion. Ez zitzaidan atsegin-eta, are gutxiago azken bolada hartan. «Lupiña»ra ez nintzen ia joaten; ezta adarra jotzeko ere. Ez nuen umorerik ezertarako; eta azakeria egiteko gauza ere ez nintzen.

Berak, berriz, ez zuen hau senditzen, eta hotsegin egin ninduen lehendabizi; eta gero, ez-entzuna egiten niola igarrita, niregana etorri zen, eta bertatik egin zidan agur.

Gauza askotaz gogoratu nintzena, eta hotz-hotzean erantzun nuen haren agurra.

— Zergatik ez hator gugana, Peru? Bakartiegi hago; eta gu pozik «Lupiña»ra hi etorrita. Hator hara, motel. Berak, berriz, hitzontzi bihurturik, hau eta hura kondatzen zidan, nik «bai» eta «ez» erantzuten niolarik ere. Asko hitzegin zuen, eta piskanaka ere nire berri jakin. Harriturik zegoen.

— Hi, Peru, ezkondu egin behar duk. Ezkondu artean, beti ibiliko haiz heure horretan: umore ozpindua, sasi-kezkak, eta abar. Nire ustez, hauxe falta duk hi: familia bat, emazte goxo bat, seme-alabak; eta orduan, nik agintzen, heure zentroa aurkituko huke, eta zorakeria guztiei utziko.

Nik zakar erantzun nion: «Ezkondu? Zertarako?»

— Begira, Peru. Zenbat urte duk hik? Hogeitahamar? Hogeitahamabost? Hortxe nonbait. Ba, garaia

baduk aita zentzudun eta zuhurra bihurtzeko. Eta ez zak dudarik egin: naturalezak hori eskatzen dik, eta hik ordaindu artean ez haiz heure bidean jarriko. Begira: oraindik ni ezkondu ez banaiz ere, ezkontzeko zorian negok; eta sinetsita hago: orain bazekiat zertarako bizi.

— Hori duk —nik gaixtoki—, horixe... Eta horixe bai gezurra! Horrela familia bat izanez gero, zerbaiten alde jokutzen duk. Ez da? Hots, hik dioanez, jadanik ez zegok problemarik, ez zegok hauzirik: gizonaren mentura hire ustez, egin-behar honek agintzen dik. Hire bidea horixe duk: zerbaiten alde borrokatu eta lanegin beharra zegok; bestela mundu hau atsekabea eta beldurgarria izango lukek-eta. Ezkontzeak horixe ematen dik: seme-alaben bizi beharra, etxeko kezkak, eta abar. Hots, horra hor bide bat. Gehiago ere: hortxe diagu, Peru, geure bidea.

— Ba, ba, ba —erantzun zidan Kepa-k neure esanak arbuatuz—. Bide guztiak berdinak badira, denak dituk hutsa, eta alferrik duk edozertan saiatzea. Ezerk ez dik merezi, eta hobe duk hil. Eta hil baino hobe, behin ere ez jaio, sekula ez sortu.

Nire erraiak larrikaraz betetzen ziren. Nik hori esan nezake, eta beste guztiek berdin: hots, hobe zuen munduak sortu ez balitz. Biraua zen. Ez Jainkoaren aurka, ez baita Jainkorik. Baina, neroni ere, gogorregi zitzaidan.

— Seme bat bahu, ez huke hori esango. Begira: pozik biziko hintzateke; eta lanaren nekea jasatean, semeaz oroituko hintzateke; eta bat-batean guztiz indarturik, alaiki eramango hituzke biziaren atsekabe guztiak. Hik ez dakik munduari gizon bat ematea zer den. Gizon bat; hots, mundu bat, mundu guztietan interesanteena hain zuzen. Begira...

— Horiek guztiak ipuiak dituk.

Hasarre jarri ninduen Kepa-ren inozokeriak, beti «begira», «begira»... bera erakusle... Eta neure arrapostua osatuz, nik erantsi:

— Ipuiak, bai! Zereginak izateko, aski diagu alanbre batetik ibiltzea. Baina hori ez duk gakoa; bide egiazkoa aurkitu beharra zegok. Biziera pirritta ero bat ematen dik. Eta erokeriarik handiena horixe izango lukek: hik abiadura ematen diok gurpilari eta sasi-mugak aukeaturik, itsu-itsuan aurrera hoa, gurpilaren zurrumbilo eroan bueltaka.

— Hik esan duk —jarraitu nuen— ni ezkonduko baintz, eta seme alabak izango, liferente pentsatuko nukela. Eta balitekek hala gertatzea. Baina hori gerta baldi ere, gauza bat ikus litekek bakarrik: biziaren ziri-mola ero eta arin horrek harrapaturik ninduela. Beste-rik ez.

— Zer?

— Bai, ba. Nire hauzia horretan urratzen bada, hutsa duk bizia. Zertarako bizi izan zen nire aita, hik dioanez? Ez zekian gaztetan, egia esan; gero, ordea, guraso bihurturik, bere bidea aurkitu zian: neronengatik, jakina. Eta ni jaio ninduan. Eta hazi-ala, poza hartzen zian berak. Eta ni haziaz nindoalako atsegin horretan zegoelarik, hil egin zuan; eta bere eginkizuna burutu zian. Bapo!

Nik, berriz, zer? Orain ez diat ezer garbirik ikusten, eta gizonaren hauzia zertan datzan, ez dakidala nabilek zalantza gorrian. Ezkon banadi, ordea, argi. Ez zegok kezkarik. Semea jaio eta horretarakoxe biziko: nire seme hori haz dadin... Baina kate hori noiz bukatzen da? Guraso guztiak bizi izan badira beren semeak hazteko edo hazteagatik, mundu hau ez duk gurpil zoro

bat besterik. Gizonak bere baitan aurkitu dik bidea; eta beregan bertan ez dagoen azalpenek ez ditek deus baliu. «Nortasuna», edo nitasuna nahiago baduk, gauza exkaxa duk, deus ez ia-ia. Baina hori duk gakoa, hale-re, horixe baikara. Gizadi guztia, sakonki begiratur, ez zaidak niri axolarik batere. Niri neure burua zaidak in-porta: besterik ezertxo ere ez. Ni-tasun hori gainditzen duten azalpenak ez zaizkidak deus.

— Gaizki habil, Peru. Horrela pentsatzea, gainera, oso gaizki zegok. Heurekoikeriaz beterik hago.

— Ez horixe. Nire «ni-tasun» hori, nire ustez, oso gutxi duk; eta hala aitortzen diat. Ez zegok, beraz, «ni-keria»rik. Ez zekiat ezer egiazkorik denetz ere. Baina hau esaten diat: nire betekizuna seme alabak izatean baldin badatza, hobe diagu «nitasun» eskas hori hil. Hire iritzia egia balitz... nahiago nitek bideari ez jarraitu. Ez ote haiz konturatzen haren hutsaz?

— Egiazki esaten diat, Peru. Aspaldi honetan ez hindudan ikusi, eta larritzen nauk. Izugarria duk egia ez ikustea. Honegatik ez diat nik gehiegi pentsatu nahi; ez diat harrokerian bakea galdu nahi-eta.

Amorro eman zidaten azkeneko hitz hauek, eta zerbait erantzun nion gogorki. Alferrik zen. Jainkoa berearekin omen zegoen.

Cazave-ren dendaren aurrean gelditu nintzen. Kuadro famatuen irudiak ziren, eta haien artean Sisley-ren bi eder: ederki inprimatuak, oso ederki. Horrario pena nuen egiazko kuadroak ikus ezin nitzakeelako.

Zuhaitz ilara haiek ez ziren mendian ikusten diren bezalakoak: ederragoak dira oraindik, eta amets eragiten dute. Hezatasuna darie, eta atsedena: ixtant olerkitsu bat tinkatu zuen Sisley-k, eta han dago. Igarokor-

tasun hori nabarmentzen da beretan: aldakaitz izan arren, unearen aldakortasuna atzeman du. Denboraren txistua entzun bide daiteke, orainari iheska, eta zahar-tzaroan bezala ikusten da Sisley-k berak bere garaian mementu batetan ikusi zuena. Malenkonia gozoz betetzen da izpiritua.

Noiz? Zerbait gogoratzen zidaten ikuskari zoragarri haiek. Zer, ordea? Noiz ikusi nuen mundua horren olerkitsu eta eder? Hain argi eta tristagarri batera? Ez nekien; baina noizpait bederen, mundu eder hartan sarturik bizi izan nintzela iruditzen zitzaidan. Ezin jakin, halaz guztiz ere, noiz. Noiz izan nintzen zoriontsu? Zeren mundua Sisley famatuaren antzera ikusi ahal izateko, ez ote da behar zorion fin horren eza barrenean noizpait senditu? Olerkari-gogoa esan ohi da. Eta, zer da gogo hori zoriontasuna garbiki senditu duenaren hutsunea besterik?

Zorion-min hori bortizki nabaritu ez duenak, ez du Sisley-ren mundua ulertzen. Ederra eta huts-mina bat dira, eta bataren doloreak ikutu ez duena, ez du besteak ere ikutu.

Luzaro egon nintzen begira eta begira: atsegin bolaradak nabaritzen nituen. Ihes egina nintzen egiatik, eta honetxek pozten. Eta, agian, ez ote den dena, Sisley-k denboratasunik ez duela? Igarokorra da, bai, ikuskaria; baina ez da igarotzen. Tinkatu egin da denboraren isurtze isila, eta eten gabe dago bere hartan berean, eta, batera ere, bere hartatik at. Xarma harrigarria: huraxe da, eta ez da hura bera. Aldatzeke aldatu: bera ez-baina geuk aldatzen geure barrenean. Hots, geronek ematen aldakortasuna, eta Sisley-k dirauena.

Noiz ikusi nuen nik mundua era hartara? Noizpait bai bederen: neronen burua gogoratzen zidan Sisley-k,

lehenean izana nintzena hain zuzen. Baina edertua.

Fite bukatu zen Sisley: oroitzapenak gorde dira, haren inpresio iheskorak bakarrik. Baina hauek, eta mundua oro, joan egin dira. Orduko mementuak hor daude finkaturik, irudimenaz baliatuz bederen guk ere ikus ahal ditzagun; baina, guztiarekin ere... joan egin dira! Bukatu egin dira! hil egin da Sisley-ren mundu osoa. Zeinen laister igaro zen!

— Kaixo, Peru —agurtu ninduen behin Errodrigo-k neure etxearen ondoan—. Goazemak bueltatxo bat ematera.

Ez nuen gogo handirik; baina egun osoan inorekin hitzik trukatu gabe pasa ondoren, neuregandik irteteko era bat iruditu zitzaidan Errodrigo-k eskaini zidana. Banekien, bestalde, zertaz hitzegingo genuen: neska hau, neska hura, neska harekin, neska... Entretengarri, ez zen gaizki. Bera, beti bezala, dotore jantzita zihoan: soinekoa berri, eta den-denean eredu itxuraren aldetik.

— Zer duk? —galdetu zidan—. Oso kolore txarra duk. Ez al haiz konturatu?

Beldurra eman zidan haren aurpegiak. Horren malkal al nintzen, bada?

— Ez zekiat, ba. Ez diat ezer nabaritu —erantzun nion.

— Tira, motel. Zergatik ikaratu haiz?

Egia zen. Ikaratu egin ninduen haren harritzeak.

Eta ene izialdura ahantz-erazi nahian, neska batzuri buruzko gorabeherak azaldu zizkidan.

Eta gero, albiste jakingarria balitzaio bezala, galdetu:

— Ba al dakik nor hil den?

— Ez. Ez zekiat.

Eta, nolatan niri azalduko ahaleginduz, esan zidan:

— Gogoratzen al haiz marinel batez?... Bai, motel.

Burutik egina zegoan azken gerratearen ondoren; eta, oker ez banago, eztabaida bat izan genian denok, eroa ote zenetz. Ez al haiz oroitzen?

— Bai, ba. Itotzeko zorian jartzen zen hura?

— Huraxe.

— Eta, hil al da? —nik.

— Bai. Ez, ordea, larrialdi haietako batetan, ohean baizik. Ez zekiat zein gaitz zuen.

Pentsakor gelditu nintzen. Eta gero, Errodrigo utzi-takoan ere, pentsakor joan nintzen.

Zer pentsatu ote zuen gizajoak hiltzera zihoalarik? Bere ontzia itsasoan hondoratzen zela? Uraren azpitik atera ezin zitezkeela? Bere aldia egin du halere, nola edo hala, eta eman zitzaion epea amaitu.

Eta, zer aurkitu zuen azkenean? Zerk eman zion sentidurik haren bidairi? Ez dakit.

Asko sofritu zuen gizajoak, alabaina. Egunero izaten omen zituen halako ito-aldiak: gogorra zen hura.

Halere, orain dela urte batzu esan nuena esango dut berriz: «egiazko ez ziren bere itsasoa eta ontzia ken balitez, zer?». Berdin hilko, bai. Baina, bizkitartean, atsekaberik ez berak.

Eta gutxi eskertuko al zukeen marinelak. Oraindik bizi izan balitz?

XII

Gaisorik jarri nintzen, Errodrigo-k igarri zidanez. Noiz oheratu nintzen azkeneko aldiz zio honegatik? Ez naiz oroitzen: denbora luzea zen behinik-behin hain gaizki izan ez nintzela. Eritasuna zer den ahantzita neukan; eta gaisorik zegoen norbaitez hitzegiten zidatenean, niri ez zegokidan gertakariaz bezala entzuten nuen dena. Ohitura hartu nuen osasunean ibiltzen, eta eritzean hasarre antzean nenbilen: umore txarra ematen zidan neure egoerak. Eta lehenengo bizpahiru egunetan, hala egon nintzen: zakar, errakor, gozakaitz, erretxin. Edozein huskeriak mintzen ninduen, eta neure onetatik ateratzen.

Gero okerrago jarri nintzen. Sukar handia nuen, eta arratsean berrogei-ta-bat gradoak iritsi omen nituen behin. Egun hura ez zait ahantzi, ezta ahantziko ere. Ezin nezakeen arnasarik har ia-ia, korrika-apustu batetik etorri-berria bainintzen: soin guztiak ematen zidan min, eta ezin atsedetik izan minberatasun hartan: etzan, eta gorantz edo beherantz, beti oinazeak nabaritzen nik, zer egin edo nola jarri ez nekiela.

Nire irudimenak haize ero batek harturik eta astindurik zirudien. Herronka itsuan nahasten ziren egiazko oroitzapenak eta alegiazko asmazioak. Ez nekien nik azkenean zeri lot edo nora atxik, ezta zer zen egia eta zer ametsa. Egiatasunaren sena galdurik, neure barrenean higitzen nintzen, errebelatzen hobe, norarik gabe; eta lilurarik eroenak sinetsiz. Egoera gogoangarria zen hura.

Hotzak nengoen, eta batera ere beroak. Sukarrak. Oso goraki entzuten nuen, ozenki: Loren-ek hitzegiten zidanean, beldur ematen zidan haren ahotsaren orroak; eta, edozein gauzatxo lurrera erortzea, izugarrizko dundada zitzaidan. Zoro ote nengoen pentsa liteke. Entzuteko beldur nintzen; eta berriz ere ohiki entzuten nuen, beldurak harrapatzen ninduen: leheneko entzualdi asaldagarria baldin baletorkit....

Nire bihotzaren taupadekin ere berdin gertatzen; eta gero, arratsean, gauaren beldur....

Buruko mina hasi zitzaidan arratsaldeko bostak aldean. Geroz eta gogorragoa. Loren-i hotsegin nion, leihatilak hets zitzan eskatuz. Halere, ilunpe hartan berean, argirik txikienak galerazten ninduen foko batek hainbat. Ateko tinbreak kanpai-mordo ematen zidan, eta xirrikitu batetikako argiak eguzki distiratsu bat. Sentikor nintzen, sekula ez bezala.

Neure burua azter nezakeen piska bat; baina berehala zetozen irudipenak erruz, eta dena ezabatzen. Handituz zihoan nire buruko mina, eta beheraka hura neronek igartzen nuen: ez zen termometroa jarri beharrik.

Gaua hurbildu ala, ikaraz bete nintzen: noiz etengo ote zen beheraka nabarmen hura? Hala jarraitzekotan, nire iritiz, heriotzaraino joan nintekeen artez-arte.

Eta buruko mina sakonago egin zen: buru osoak

ematen zidan oinaze ikaragarrizkoa, eta muinak berak lehertzeaz ziren.

Gaizki ikusi nuen neure burua; baina amets gaiztoek ez zidaten ezertaz zehatz konturatzera uzten.

Gau guztian ez nuen lorik egin. Ordu guztiak jotzen entzun, eta gaizki guztiz. Mila ordu izan zituen gau beltz hark, baina azkenean argi egin zen berriz, eta buruko mina piska bat ematu.

Biharamon goizean hobetoxe nintzen, eta buruko minik gabe. Eta bezperako kinka gaiztoa aztertu nuen. Egia esan ez nekien deus neure eritasunaz, ez bainion oraindik medikuri hots-egin. Baina gaizki ibilia nintzela iruditzen zitzaidan. Taupadak arin, arnasa nekagarri, irudimena ero, soin guztia hotzez eta minbera... Agian... agian hiltzera... Agian dena amaitzeko zorian... Asalduz bete nintzen: akabatzeko zori-zorian izan naiz beharbada!»! «Eta hil banintz, dagoenezko, hutsa. Dena hila neurekin... Ez baita mundurik ni gabe... mundua ez da ezer ni gabe... Bada zerbait, bai; badakit. Baina ez da. Mundua, nirekiko, «neronen» mundua da, besterik ez... eta ni, gaur banaiz, eta bihar ez. Hots, mundua ere, gaur bada, eta bihar ez. Ba al da ezer mundua bere baitan berean?...»

Baina, burutazio hauek ez ziren guztiz bidezkoak: nihaur naiz bukatzen dena, ez mundua. Baina mundua ere, berebat, ez da bat, ez dirau. Monique aurkitu nuen egunaz oroitu nintzen. Dena pasatzen da, dena doa: denboraren ibaiak ez du azkenik.

Ni hil izan banintz, zalantzan nekusen hil ondoko munduaren iraupena; baina zalantzarik gabe neronen akabera. Eta lastu egin ninduen pentsamendu honek.

Aspaldian, Barrota-rekin nengoenean, esate batera-

ko, ezer ere esango ez zidan ideiak, erraietaraino astindu ninduen egun hartan: agian neure bizian lehenengo aldiz heriotzaren begitartea bertatik ikusia uste nuelako.

Baina gero, beste pentsamendu batetara igaro nintzen; eta honetxek bai ikaratu ninduela. Eta harez gero, behin eta berriz gertatzen zait.

Idea harrigarria zen: zer izango ote litzateke hau guztia mundua izan ez balitz? Eta piskanaka asmatzen nuen ikuskizuna: hasteko, neure burua kentzen nuen mundutik, eta gero beste pertsona guztiak. Hori kendurik, alimalia guztiak, izarbela, izarrak, dena; eta mundu beltz huts izugarri bat nekusen. Ez zen ezer, irudiz. Baina bazen oraindik zerbait; lekua, eremua, espazioa; eta denbora. Ilunpe beltz ito hartan ez bide zegoen sorkaririk; baina baziren lekua eta denbora. Eta, orduan, neure barrenera bildurik, bat-batean kentzen nituen bata eta bestea; eta pentsatzen: ez ni, ez hau, ez hura, ez gaur, ez atzo, ez astelehenik, ez ezer... Badakusat!!! Ezereza!!! Baina une hartantxe, atzematen hasten nintzenean, astindu izugarria nabaritzen nuen sabelean: ezteusaren goragalea. Adimenduak bakarrik ez; gorputz guztiak ukatzen zidan ezteusa ikustea. Eta ezin ikus nezakeen.

Eta berriz ekiten nion: «eta gau guztia ez balitz; dena nire irudimenean bakarrik balitz... Agian ez dago ezer... Ez hau, ez hori: ezer ez, deus ere ez. Eta huts beltz hartan erortzen nintzen; eta erori ala, kentzen nituen ilunpeak berak, eta arteak eta denbora»... Ikaraldi lazgarri bat nabaitzen nuen; eta berriz atzera... «Mundu hau izan ez balitz, ez-eta beste ezer ere». Bereganatu egiten ninduen Ezerezak; deitu egiten ninduen agian; eta, egia aitortzeko, Jainkoaren ideiak baino bortizkiago inarosten ninduen haren hotzikarak.

Ezer izan ez balitz...

Dena itxura hutsa balitz...

Dena hala da gainera.

Zergatik zitzaidan hain atsegin ilunpe haietan behera amiltzea? Neure erraiak berak dardaratzen dira oraindik egun hartako burutazio honekin.

Ezertarik ezer ere ez balitz...

Arratsaldean, gaisoetan ohi den legez, okerrago jarri nintzen. Berriro entzuten nuen dena trumoiari ostotsak bezala: soinuek ikaratu egiten ninduten.

Gaueko hamarretarako oinaze bizian nintzen, poto egina, arnasarik lasai hartu ezinean, ito beharrez... Ez nituen begiak ireki ere nahi: neure lokamutsetan murgilduta nenbilen; eta nekatzen baninduten ere, ez neukan beretarik ihes egiterik. Neure barrenean bizi nintzen: kanpoko guztia ez zitzaidan axola. Kanpoan ez nekusen hotsa eta zarata baizik; eta hauen beldur nintzen. Gainerako guztia ezer ez.

Gizon sendor batek eskuaz heldu zidan neure bihotza; eta estutu egiten zuen. Nik nekea nabaritzen nuen bihotzean, baina ezin nintekeen mugi. Esturaren izugarria! Bihotzaren ziztada ez zihoakidan; eta burukoarekin nahasi zen. Nire bihotza eta burua elkarrekin oinazeak lotuak ziren. Eta bata bestearen ondo-ondoan zirela iruditzen zitzaidan. Leporik ez bide nuen; eta oinaze lokarri fin-fin batez elkartzen ziren burua eta bihotza.

Emakume bat sartu zen, Loren nonbait. Haren oinkadak mailukada eraman-ezinak iruditu zitzaizkidan. Isil zedin nahi nuen, baina amets zorotan harrapatu-rik, ezin nezakeen hauen katea hauts. Pausuak, berriz: dunba, dunba... Azkenean ezer ez zitzaidan axola: atsedena nahi nuen bakarrik; atsedena, arren!...

Geroko egunetan hobetoxe jarri nintzen. Aldegin

zidan sukarrak, eta ohi bezala entzuten nuen. Hogeit bat egun pasa nituen ohean. Loren-ek ondo jokatu zuen, eta bere semea banintz bezalaxe zaindu ninduen.

Ez zen inor etorri ni ikusten. Egun haietan nabarmendu zen nire bakardadea: bakarrik nembilela ohartu nuen. Banekien hau, jakina. Baina besterik zen nire hein hartan hala porogatzea.

Mindu egin zuen horrek nire harrokeria. Zozokeria bat zen: nor etor zitekeen, bada? Inor ez! Nik ez nuen adiskiderik. Betiko hauzia zen; ez ordukoa.

Baina, mendekatu egin beharra zegoen niri egindako burla; eta, berriz ere, sekula baino tinkoago, inorekin ez ateratzea erabaki nuen. Gizadia gorroto nuen: etsai zitzaizkidan denak, eta etsaitzat hartu behar nituen.

Eta horixe egin: harez gero, beti atera izan naiz bakarrik. Loren-ekin hitzegitea bera, berehala gertatu zitzaidan harrigarri. Sinets ezazu: hilabete batzutan, mintzatzeko ohitura bera galdurik, total xamar egiten nuen. Mutu bihurtu nintzela pentsa liteke.

Ez hitzik, ez lagunik... Neure burua, eta kitto.

XIII

Ohetik jaikita, pizkortzen hasia nintzen. Barragarri zitzaizkidan automobilak, eta motorrak batez ere. Apaiz bat hauetako batez ikusi nuenean batik-bat... Minbera eta ahul nituen belaun koskorrak: eskaileretan beherakoan nabaritzen nuen garbienik. Barandari helduz jaitsi behar izan nuen lehenengo egunetan, eta halere nekez.

Alde batetik suerte ona izan nuen, eta eguraldi ona toka zitzaidan pizkortze hartan guztian. Goiz argitsuak, eta arratsalde epelak: kexurik ez, ba.

Lehendabiziko egunetan, oraindio eskas nenbiletalata, ez nintzen sobera urruntzen, eta Lizarreta-n bertan gelditu ohi nintzen. Gero urrutirago heltzen nintzen: Urrez-ko gaztelu zaharra Zuntzarri-tik bi kilometrotara zen. Baina, halaz ere, eta aspaldian oso atsegin izan bazitzaidan ere, azken bolada hartan alderantziz zitzaidan; eta oso gutxitan hara ohi nintzen; eta Soraluze-tik gora oso gutxitan.

Neure pizkortze hartan, berriz, oso gogoko gertatu zitzaidan; eta ez nuen konprenitzen hain denbora luzeaz hara gabe nola bizi izan nintzen. Muino txiki ba-

ten gainean zen, Soraluze ondoan; eta handik Zuntzarri ongi ikusten zen. Urrez zen Zuntzarriko tontorrik altuena. Hartatik dena bide zen hurbil: Soraluze-ko auzoa hantxe zen, eta Olazarraga ere ez urruti. Kaia aurrean ikusten zen; eta, bide erdian, etxe zantar batean ganbioiren bat: ez zen handik ezer berezten. Baina han ikusten zen puntu huraxe zen agian Luzarraga, lanean jo-ta-ke. Atzetik mendi anitz: Artegaña, Ollakaritz, Sueskuntze, Abaillondo, Gami, Erloñe... Eta Matxitxako aldera Iaunko-Puntta berezten zen urdin urdin. Ez zegoen kaminorik, eta bidexka txigor batetik iritsi behar zen. Gaztelu famatua izan zena zeharo zaharrakaturik zegoen: noizpait murru gotor izan zirenak, arteziturik zeuden orduan; eta toki askotan eroriak. Beren barrualdean, belardi goxoan, pozik etzaten ziren hara zihoazen mutikoak eta neskatxoak. Zuhaitzak ere baziren; eta han eta hemen, bakanka, ama batzu josten.

Parke bat zirudien hark, eta biziki gogoangarri zitzaidan hango istoria. Banekien nik izugarrizko lekua izan zela gaztelu zahar hura karlista gerratean, eta barrura sartzen zena ez zela handik bizirik irteten. Zenbat gizajo ez zen han afusilaturik hil? Ez dakit.

Orduko soldaduen aurpegiak asmatzen nituen, ikarak gorrituak, hiltzera joaki; eta besteak ere, iskilua beti lagun... Atsekabe-leku izugarria izan omen zen Urrez. Buru izan zen han bi urtez Irauzki kapitaina: sona handia eman zioten honi bere balentriak. Ez ziren denak, halere, kondatzeko oso egokiak. Gizon zitala izan omen zen; eta bere amorro guztiak Urrez-èn palakatzen omen zituen, astakeriarik gaiztoenak eginez eta eraginez.

Askok, gazteluan zeudelarik, hau pentsatu zuten nonbait: «Bai. Ni baniak beste mundura. Baina ifernu hau beti izango duk, mendez mende, eta sekula guztirako,

gaiztoki bat, ifernuaren irudia. Gauza asko ahanzi duk munduan; baina Urrez-ko bidegabekeria hauek, ezin daitezke ahanzt. Irauzki zital horrek hementxe ezagutuko dik bere galera; eta Zuntzarri-ko lotsagarritzat geldituko duk bere gaztelu madarikatu hau». Halere, ez zen horrelakorik gertatzen. Askok eta askok beren bizia han galdu arren, Zuntzarri-n bertan ez zen inoiz eta inon Urrez-ko gazteluaz hitzegiten. Gerratea bukatu-rik, abandonatu egin zen Urrez, eta zaharrakatzuz eta hondatuz joan da dena ordutik hona. Laurogei urte ziren, halere, ez gehiago. Urte gutxi, egia esan. Sarrera-ko eskaileran, halaz ere, ez ziren mailak berezten, bellarrak estalita. Eta inork ez zekien ezer Urrez-ko gazteluari buruz nire herrian, zaharra zela besterik. Neronek ere, horietarako zaletasunik izan ez banu, ez nukeen jakingo.

Haurrak alaiki jostatzen ziren hormen artean. Ezerk ez zituen asaldatzen: ez amak, ez umeak. Trankil ibil zitekeen.

Hiriko orroa doi-doia entzun zitekeen handik. Baketsua zen hura, eta arimarentzat lasaigarri. Eta, egia esan, huraxe behar nuen nik. Gaisotu baino lehenago, asko irakurri nuen, eta dirua franko gastatu liburutan; eta, horrez gainera, aski eragin nion buruari neure bakardadean.

Gainera, nire eritasunetik honantz bi hilabete baziren ere, ez nintzen oraindik ongi. Urduri nintzen, eta beldurti. Eta hargatik, oso pozik joaten nintzen Soraluzera eta Urrez-a, hango bakean neure artegatasuna lasaitzera.

Gutxi irauñ zuen halere Urrez-a joateak.

Bake hura neska mutilik ez zenean batez ere, gehiegizkoa zitzaidan azkenean; eta izutu egiten ninduen. Isil hartan neure hotsa entzuten nuen; eta txitxarrena bezalako burrunba etengabea nabaritzen nuen neure belarrarian. Neure buruari entzuten nion, neure biziaren burrunba, alegia, nigan barrena zihoalarik. Eta kezkatu egiten ninduen.

Eta, halako batez, han bakar bakarrik nengoenean, are izugarriago egin zitzaidan: neronen burrunban nahasita, neure bihotzaren taupadak nabaritu nituen. Eta, berehala, Xabier-en zerraldoaz gogoratu nintzen: neure larrua zurruntzen nabaritu nuen, larritasunik bizienean; eta iztarrak eta besoak ikutu nituen, gogortzen ari ote ziren jakiteko. Eta nolatan ez dakidala, astakeria galanta baitzen halakorik sinestea, zurruntzen hasia nintzela iruditu zitzaidan. Eta orduan, beldurrak harrapaturik, jauzi bat egin nuen hango murre batetik behera, ihes egin nahian; eta izugarrizko kolpea harturik, mauki eginez jaitsi nintzen, arinago ibili ezin nintzelako beldurrez. Ez dakit nola ez nuen hezurrik puskatu. Egun batzutan min, eta sendo berriz; baina ez nuen inola ere ikusi nahi Xabier bere katabuan taupaka!!!

Geroztik ez naiz joan Urrez-a, ez Soraluze-ra. Bakardade hartan isil handiegia zegoen, eta nire bihotza entzun zitekeen neronen biziaren burrunba etenerrazean nahasita. Eta... ez!!! Nahiago nuen hil.

Bat-batean, hortaz, gizonak elkarrekin egoteko duten gogoia ulertu nuen. Beren buruaren burrunba entzuteko beldur dira-ta.

Gutziz ikaratu ninduen Loren-i entzun nionak. Nirekin mintzatzen ez zelarik, bere lagun batekin baizik, hau esan zidan:

— Oraindik ez diot inori hau esan; baina honela ezin naiteke segi. Norbaiti esan behar diot, eta honetarakoxe deitu zaitut.

— Zer, bada?

— Ene! Urte askotan dut hemen, zuk dakizun bezala, gazte bat. Beti izan da arraro xamarra, egia esan. Baina orain artean ez nintzen beragatik beldurtu. Orain, ordea, gauero hesten dut gela maratilaz; eta, halere, beldur naiz. Gaisorik egon zenetik, eskas dakusat.

Beldurtu egin nintzen, eta belarria atean ondo erantsi.

— Baina, zeren beldur, Loren?

— Ai! Ene! Jesus, Maria eta Jose! Zuri ere esateko beldur naiz.

— Baina, emakume: lasai zaitetz.

Ez nuen haren aurpegia ikusten; agian beldurgarria zuen. Baina nik ere... Entzun beharrez ez nuen ia arnasarik hartzen. Nerau ere Loren-baino izutuago nintzen. Zer egin ote nion ba nik? Ezin asma nezakeen.

— Lehengo egunean —ekin zuen Loren-ek— heranegun, zehatzago esateko, pausu batzuk esnatu ninduten. Gau mina zen: hiru t'erdiak gero jakin nuenez. Urrats astunak. Ez nuen gelako argia piztu ere nahi izan. Neure arnasa etenduz ate aldera begiratu nuen: ez zen han leihoko xirrikitu batetik sartzen zen argia besterik ikusten... Pausu haiek geroz eta hurbilago entzuten ziren, astunki, eta isil hartan ozenago ziruditen. Gelako atea zabalik zegoen, askotan bezala, gaur arteraino ez bainuen nik beldurrik senditu... Eta, horretan nengoe-la, beldurrak igarota, xirrikitu hartatikako argi printza eten egin zen, eta gizon baten isla agertu zen, oso nekez nabarmentzen zelarik... Nire izena aipatu zuen agian, baina ezin agindu. Ezin euts, hein hartan: ga-

rrasi bat bota nuela pentsa lezake norbaitek; baina ikararak harturik, ez nintzen gauza. «Ibiltaria» geldirik egon zela uste dut, pausukadarik entzuten ez baitzen. Ni ez nintzen pertsona: ni ikara hutsa nintzen. Bera dar-dar bide zegoen, eta haren hortzen karraska entzun neza-keen garbirik. «Zer da hotz hau?», galdetu zuen. Ez dakit orduan ikaratu ala lasaitu egin nintzen; Peru zen!! Nire maizterra! Ahotsean ezagutu nuen.

Ez nuen igartzen halere zertara zetorkeen. Ni zaharra naiz; eta ez zetorren, noski, atsegin bila. Eta karraska hura, eta argirik berak ez piztutzea... hura ikara, Jainko maitea!

— Lotan dabil! —eten zuen bat-batean haren lagunak.

— Horixe: lotan jaikitzen da, ikusten denez. Baina zazpi edo zortzi urte badira nire etxean bizi denez geroztik, eta ez nuen behin ere horrelakorik nabaritu.

— Hori beldurra, Jainkoa!

— Horixe bai beldurra! Dar-dar hasia nintzen ni ere, bera bezalaxe. Baina nire karraska ez zen aditzen, maindirectan kosk egiten bainuen nik. Eta hauek ez zidaten hoskirik ematen, ohi bezala. Hotzak nengoen, eta izerdi patsetan. Hezatasun hotz-hotza gorputz guztian.

«Beldurturik ikusten nuen haren islaren zatitxo bat. «Hotzak nago» esan zuen berriz, eta gero ez dakit zer; hau agian: «Zerua hutsa dago eta hotza».

— Eta zer egin zenuen gero?

— Itxaron. Soinurik atera nahi ezik; ezin higi nin-tekeen, neure ustez. Pausuak hasten ziren berriz, astunki, eta urrunduz. Gero isila. Oheratu egin zen nonbait.

«Orduan isil-isilik jaiki nintzen eta, beldurra jario, maratilaz hetsi nuen neure gela. Hasperena. Harez gero ez nuen lorik egin. Eta bart ere, ohera joatean, izu-

garrizko asalduek inarrosi ninduten. Ez naiz, besteko, ezer esatera ausartzen, agian gauzak okerrago jarriko direlakoan; eta hemen naukazu zalantza gorrian, zer egin ez dakidala. Niri beldurra ematen dit berak, eta ez da harritzekoa. Badakit neure aurkakorik ezer ez duela; baina ezin iraun honetan. Eta etxetik bidaltzea ere, oso gogorra zait. Baina, azkenean, ez dut beste erre-mediatorik izango. Ez al duzu uste?

— Bai, hala da.

Gutxiena zitzaidan niri etxea galtzea. Besterik zen gakoa: banekien azkenik zergatik ematen zidan beldurra gauak. Lehen ez nekien; orain bai.

Gaueroko nire ikara handitu egin zen. Ez nintzen gauetz neure buruaren jabe: nigan bi gizon ziren, eta elkar hil zezaketen halako batez. Ez nintzen bat. Lehendik somatzen nuena: bitasun bat zen nigan.

Bekokia ikutu nuen: izerdi hotza niri ere.

Loren-ek ez zidan halere ezer esan. Kalterik egingo ez niolakoan, noski, atea hesten zuen gauero maratillaz. Oso isilik ni kontura ez nendin; eta besterik ez. Beldurra ez zitzaion pasa, seguru asko, baina moldabide bat aurkitu zuen.

Ni okerrago nintzen, eskierki. Eritasunaren ondorio jotzen nituen nik lo-jaikitze harrigarri haiek, zeren ni ez bainintzen sekula altxa gauetz eta lotan.

Medikuek, halere, besterik uste zuten; eta aztertu ninduten hiruek ahobatez bezala esan zidaten: «Zuk ez duzu ezer soinean; ariman bai, agian. Baina hori ez da gure arloa: psikiatra batek argituko lizuke zerbait». «Eta gehiago agian kofesore batek», Unzeta-ren ustez. Iñoza!

Urduriegi nenbilelakoan, toki baketsutara joaten

nintzen, baina ez baketsuegitara, eta Lizarreta eta Lilieta-tik paseatzen nintzen, eta itsasoari so gelditzen ere.

Behin batean Anduaga-ra joan nintzen. Ene! Nola-ko oroitzapenak! Zer ote zen Bego hartaz? Gajoa! Nitaz maitemindu zen, baina nik erauzi egin nuen hase-ratik, han sor zitekeen arbola. Ondo egina, gainera: gertatua ez zitzaidan damutzen.

Egun hartan izan ginen lekuan pausatu nintzen: nolako zirrara! Zergatik? Bego-ren gorputza berria izan zen; baina egite hartan ez zegoen niretzako berritasu-nik. Eta, halaz ere, Bego ez zen Marisa, ezta besteak ere, noski. Bego, nik maitatu ez arren, besterik zitzai-dan. Lortu nuena neronek lortu nuen, eta ez nire di-ruak. Hori zen agian.

Oroimena piztu zitzaidan. Xehetasun asko piztu zi-tzaidan, eta harriturik gelditu nintzen, ez bainuen nik uste horrenbeste gauzaz gogoratzen nintzenik. Egun hu-ra egun goxoa iruditu zitzaidan, eta Bego berriz ikuste-ko gogo nabaritu nuen.

Berriz piztu nahi nuen orduko eguna; baina ez zen posible. Hura pasea zen betirako ere.

Eta pasa zen segurantzia honek berak piztutzen zi-dan gogo, eraman ezinezko bihurtu arte. Atzera ezin hura...

Gogoeta horietan nintzela, betiko gauza bururatu zitzaidan: ni orain Bego horrekin banintz, orduan bai-no aspertuago izango nintzateke. Orduan behinik-behin haren gorputzarenganako lera itsua nuen; gaur ezta hori ere. Eta, une haiek berriz zuzpertzeko? Lilura zen, al-ferrik gainera. Hura ez zen berriz gertatuko: behin ger-tatu zen, eta akabo; sekula guztirako akabo.

Nahasi egiten ninduen honek. Betirako! Betirako!! Igarota, igarota, amaituta hortaz.

Eta zenbat-eta hori sakonkiago senditu, hainbat-eta xamurrago zitzaidan lekua. Olerki jarioa! Ai, egun hartan!

Baina berehala jotzen nuen atzera: «Baina, arrano pola!, Peru: zer ari haiz «egun hartan» esaten? Ez hadi tentazioan eror. Gogora hadi: egun hartan ez hintzen zoriontsu izan. Ez zuan, jakina, gaurko kezka bera, hi gaurkoa ez hintzelako; baina kezkatu ibili hintzen, go-gait, aspertuta ere esango niake»...

Eta halaxe zen. Anduaga-ko nire urrutimin hark lilura batetan zuen oinarria.

Ni ez nintzen Anduaga-n zoriontsu izan: ez, ez, eta mila bider ez.

Hurrengo goizean, neure armairuan miatzen ari, kartoizko kaxatxo bat aurkitu nuen: bilatzen ari nintzena, hain zuzen.

Eta hantxe zegoen Bego-ren erregalua: «Argiloain-go Ama Birjina. Peru-Bego»... Non ote zen bera?... Aspaldi hartan ez nuen ikusi, Zuntzarri-n ez balego bezala... Ezkondua zen seguru asko lau urte hartan, eta handik joana...

Bildu egin nuen dena paper batetan, eta berriz sartu berehala.

Mundu honetan zerbaitetan sinets daitekeen froga bat zen hura. Baina, zer balio zuen? Zergatik maitemindu zen Bego? Ni zerbait egiazkorik nintzelako? Ez, horixe. Mariñel hark bezala, berak sortu ninduen ni, «bere Peru» eginez. Baina «bere Peru» hark eta nik biok ez genuen elkar ezagutzen.

Eta gero, piskanaka piskanaka, bere hutsaz konturatuko zen gajoa, asko sofrituta gero.

O, gizonaren itsutasuna!

XIV

Handik egun gutxitara, banindoan ni, ohi bezala, Lizarreta aldera. Eguraldia bikaina zen, eta aidean kresal-usai sarkorra. Itsasoaren orroa azkarra handituz zihoan ni Lizarretara ondoratu ala; eta, bat-batean, atzetik zetorren soinu batek itzulerazi zidan burua. Nire atzean ziren etxeak, denak, ilaran, une hartantxe erortzen ziren. Kale hartan ez bide zen kristauik. Izugarrizko orroa hartan ez zen garrasirik entzun. Eta behala, so hartan nengoela, nire ondo-ondoko etxe eder bat artezitu zen bat-batean, eta teilak eta harriak erortzen hasi ziren nire ondoan. Laisterrari eman nintzaion izututa, baina nik aldegin ala, behera zetozen etxeak, eta zuhaitzak, eta dena. Korrika nindoan ni, eta Lizarreta-ra ailegaturik, berdin gertatu zitzaidan: Soloeder jauregia nire begi bistan erori zela, eta berdin ere Aspe-Enea eta Soloarte. Ez zen beretatik inor ateratzen hala guztiz ere.

Itsasoaren orroa geroz eta beldurgarriago zen. Harantz begiratu nuen, eta, hura ikusgarria! Zulo eta artezi handiak sortzen ziren plaian, eta olatuek segituan

betetzen. Itsasoa irakiten ari zela zirudien; han-hemenka, zulo beldurgarritan, amiltzen zen ura, hiriko etxeak bezalaxe. Zerua, ordea, garbi, urdin eta bare zegoen.

Izugarrizko ikarak harturik, ez nekien nora jo; baina nire ondoan metro askotako zulo bat sorturik, korrika hasi nintzen; baina izugarrizko lurrikara hura ez zen pasatzen, eta nire aurrean, eta atzean, eta saihets guztietan, artezitu egiten zen lurra. Denbora luzeaz ihes egin nuen; eta azkenean, Iaunko-Puntan-n, hots, Zuntzarritik hamar bat kilometrotara, pausatu egin nintzen, eta nekeaz kordea galdurik erori.

.....

Gero, beldurrak igarota etxera nentorrenean, oso gaizki ibili nintzen. Goizean erortzen ikusi nituen tokietan, ezagutzen ez nituen etxe berriak ziren. Baina, hurrengo egunean, etxe berri haiek berak ere, zaharrakatu eta erori egin ziren. Eta beti, neronen aurrean erortzen ziren.

Loren-i esan nion hau, eta asaldaturik erantzun zidan:

— Peru: lanegin egin beharko zenuke. Denbora gehiegi pasatzen duzu bakardadean, eta badakizu: «Alferkeria negar ainitzen ama da».

Bai. Baina, erantzun: ez al duzu zuk ere ikusi? Erori egin dira etxeak; neronen aurrean. Izututa nago. Eta berriz altxa zituzten etxeak ere, berdin. Zuntzarri honetan dena erori da!

Baietz erantzun zidan berak; baina nekez amore-emanaz bezala.

Halere, sinetsita egon, etxe guztiak erori ziren egun haietan. Gero, ordea, nola ez dakidala, lehengo berera itzuli zen Zuntzarri. Egun gogoangarriak izan ziren, benetan: hiri osoa desegin zen. Neronek ikusia da hau.

Nola sortu ote zen berriz lehen zegoena? Hau ez dakit, eta hala aitortzen dut. Ez dakit nola. Eta besteeke ere horixe esaten dute: askori kondatu diot nik hau, eta denak, lehenago edo beranduago, azkenean bat datoz nirekin: egun hartan nola erori zen Zuntzarri guztia-ta, denek dakite; berriz nola bilakatu zen lehen izan zena, hau ez bide inork entenditzen.

Nik inportantzia handia erasten nion honi, eta oraindik ere ematen diot. Baina beste guztiek besterik uste dutenez gero, ez dut gehiago ekingo, zorotzat jo ez nazaten.

Askizu-ra joan nintzen atsedean bila. Zenbat ibili ote nintzen haraino iristeko?

Etxe mordo bat da, eta ikusgarria benetan. Handik ez bide da denbora pasa. Eliza zaharraren ondoan, mutiko batzu jostatzen ari ziren. Mendebaldera begiratu-ta, itsasoan urruti, Matxixako puntta. Baserriak han-hemenka sakabanatuta; eta denen aurrean itsaso zabala. Zuntzarri ez da halere handik ikusten.

Arratsalde ederra pasa nuen han; eta biziki baretu nintzen. Hango agure zahar batekin hitzegin nuen, eta Askizu-n dagoen taberna bakarrera zihoala esan zidan. Penaturik zegoen, Askizu-ko gazteek handik aldegiten baitzuten.

Itzuleran ez nintzen Getaria-tik pasa; bide luzea nuen-eta etxeraino. Eta mendian zehar abiatu nintzen, egin ahaletan, oraindik ere bostak zirelarik.

Baina berandu egin zitzaidan. Eta gauak bidean harapatu. Ikusten denez urrutiago zen Askizu hau nire Zuntzarritik uste nuen baino. Eta neure martxa arindu nuen.

Ilargi betea zegoen, eta honi esker bidea ikus neza-

keen. Erlojua begiratu nuen: hamabiak... ordu bata... ordu biak... Eta ni, izututa, ibili eta ibili, atsedetik gabe, minutu batez ere gelditu gabe. Hura ez zen ba ametsa: Askizu hura nik ez nuen egun hartaraino ezagutu, eta lehen esan dudana da gutxi gora behera, eta Zumaia eta Getaria-ren artean. Nik ez dut ezer asmatu...

Horrela, ibili eta ibili, goizeko bostak laurden gutxiagotan sartu nintzen etxera. Nola liteke hura? Nola? Nolatan, arren? Zer ordutan irten nintzen ba goizean Anduaga-tik aurrera? Nire erlojua gaizki ez bazebilen, goizeko bederatzi t'erdietan. Nola entendi zitekeen hura, beraz?

Ez dakit!

Hurrengo gauean gertakari harrigarri bat jazo zitzaidan.

Likaz loturik nengoen neure ohean. Nire eskuinean pareta luze-luze bat, eta ezker aldean itsasoa. Pareta eror zekidan beldur, ohetik altxatzen saiatu nintzen lehenengo aldiz. Ezin mugi: lotua nengoen, eta ezin nezakeen ezer egin arnasa hartu besterik. Besoa luzatu nahi nuen zer-baiti lotzeko, baina ezin zen. Burua jaso nahi nuen, eta lepoa itsatsita zegoen, eta ezin jaso.

Hein hartan nengoela, ehun bat munstro beldurgarriak ondoratu zitzaizkidan: erdi hartz erdi tximu ziren. Distiratsu zituzten begiak, eta denek begiratu zidaten niri. Nire ohea hartu zuten bortizki, eta baninderamaten itsaso aldera zalaparta gorrian. Ahaleginak egiten nituen nik nola edo hala handik eskapatzeko; baina ezta inondik ere. Pegatuta nintzen, eta alferrik zen.

Ametsetan ari nintzela igarririk, gau-mahaiaren marmola ikutu nuen, agian iratzarriko nindukeelakoan; eta hotz hura nabaritu nuen, bai; baina ez zen nahikoa. Ko-

petan jo nuen behin eta berriz metalezko neure kutxaz, eta min hartu arren, zeharo zapaltzen ninduten munstroek. Ni iraultzera zihoazen, ba, algara gorrian; eta une hartantxe altxa egin nintzen ni likarik itsaskorren hartatik askatuz. Neke izugarria senditzen nuen, eta hotsa. Polliki-polliki ahal neurrian ibiltzen hasi nintzen; eta tximutzar haiek harriturik begiratzen zidaten, baina hargatik ere ni atzeman gabe. «Bota egin nahi naute uretara» —nion nik neurekiko. Eta toki itxi batetan nengoela antzeman nuen. Bat-batean barrez hasi zen tximu-taldea, eta haien irrien oihartzunak pareta luzean itzuli ziren, ni kezkatuz. Koloka zegoen harkaitz bat aurkitu nuen neure bidean; eta, indarka bizian, irauli egin nuen. Orduan foko argitsu bat piztu zen nire aurrean, eta itsutu egin nintzen. Ez nuen geroztik ezer ikusi ahal. Entzun egin nuen bakarrik segundu batzueez...

Loren-en ahotsa entzun nuen, oihuari ezin utziz. Eta nire ondotik eginahaletan pasa zenean, ikaraz beterik zihoan: ilunpe beltz hartan, haren aurpegi izutua ikusi nuen aurrena, eta munstroei begiratu beharrean, neroni begiratzen zidan tinko. Zer ari zen, ordea? «Esna zaitetz, Peru, arren», esan zidan garrasika. Hala aditu nion nik, eta entenditu ere bai. Baina munstroak hantxe zeuden oraindik niri begira; eta, ihes egin beharrez, Loren-i jarraitu nintzaion. Ni, eskierki, erdi lotan ari nintzelata, ez nintzen eskapabidea topatzeko gauza; eta Loren-en bideari ekin nion. Honek, nire ustez, hobeto asma zezakeen nik baino. Baina jarri egin zuen honek berriz bere tokian nik kendutako harkaitza, eta harrapatua ninduten tximutzar haiek. Ahots asko entzun nuen Loren-enarekin nahasirik; baina berehala munstroen marruma bihurtu ziren...

Ihes egin ezinik, neure burua izkutatzea erabaki nu-

en; eta hango zoko batetara joan nintzen, eta ugari ziren alokaz eta salmaz estali. Hotzaren handia! Kresal usai hark biziago egiten besteko.

Hotzarengatik estali nintzen, bai; baina beldurra-rengatik ere ez gutxiago. Ezin hotz hartan iraun, eta... esnatu egin nintzen...

Gaueko bostak eta hamar ziren. Zeharo nahasia zegoen nire gela. Loren-en argia piztuta zegoen, eta harritu egin nintzen: ez argiagatik beragatik, baina neure gelatik ikus zitekeelako. Nola ikus zitekeen nire gelatik beretik, gauero Loren-ek, berea hetsita uzten zuenez gero?... Jaikita, harantz abiatu, nolako hotzikara nire: kuntzak hautsita, lurtean zen atea... igarri egin nuen ziplo: neronek botata!!! Loren ez zen han. Eskaileran zurrumurrua entzuten zen oraindik, eta Loren-en ahotsa kontari... Negarrari eman nintzaion. Erdizka konturatu nintzen denaz: «Esna zaitez», belarrarian neukan oraindik; eta haren aurpegiaren irudi izutua ere bai. Baina, halere, beste era batez ikusi nituen gertakariak: zuhurkiago jokatzeko ez nintzen gauza izan.

Beldur handia hartu nuen. Egunez neure bitasuna eskura banezakeen ere, gauez ez.

Biharamonen, Loren-ek deitu ninduen, eta gertaera kondatzen hasi zen. Baina berehala moztu nion nik:

— Ez. Ez segi. Denaz konturatu naiz gero. Nahi duzun guztia esan dezakezu.

— Ba... begira... Peru... nik...

Negarrez hasi zen.

— Bai —segi nuen nik—. Ezin naiteke zure etxean egon. Ez da hori?

Ez zidan erantzun, baina huraxe zen esatekoa...

Eta arropak bildu, paper asko zakar-tokira bota, eta,

alde handik. Bego-ren domiña han zegoen ere. Eta gorde egin nuen.

Ez nekien halere nora joango nintzen. Etsita, etxerik etxe hasi nintzen bilatzen; baina etxe bat aurkitzea zailegi izango zelakoan, ostatu eskas batetara joan nintzen: «Pedro-Enea». Toki itsusia, alajainetan, eta Olazarragatik ez oso urruti.

Baina, zer egin behar nuen?

Atsekabe handia hartu zuen nonbait Loren-ek. Ni joanda, bakarrik gelditu zen segurki denbora luzean. Ni seme bat nintzaion. Eta nik handik aldeginda gero, oso tristerik gelditu zen bera. Nik hala uste behintzat.

Ni, berriz, nakar gelditu nintzen. Neure hartan ez nituen horrelako xehetasunak baloratzen, eta ia tristurarik gabe utzi nuen zortzi urtez nire etxea izan zena.

Pena eman zidan uzteak; baina zioak kezkatzen ninduen gehiago. Zer egin ote nezakeen?

«Pedro-Enea»ko nire gela, oso iluna zen. Ez zuen leihorik, eta bazkaltokitik hartzen zuen airea. Sartze-ko eta irteteko berdin egin behar zen, hots hartan zehar; baina ostatuko andere narratxak agindu zidanez, ez zen halere zer beldurturik, gauez atea zabalik utziz gero haize-berritze ona zegoela-ta.

Oso soluzio txarra iruditu zitzaidan hura; baina neure hein hartan, ez nintzen ezeri gogor egiteko gauza, eta amore eman nuen, han geldituz. Besterik zen horratio nik nuen asmoa, zeren gauez neure gelatik solanbulo irten ahal izanez gero, zenbat iraun ote nezakeen han? Ez ote nuen egingo aurki Loren-en etxean bezalako astakeriaren bat? Beldur nintzen behinik-behin.

Argitasun guztizko batek argitu ninduen egun haie-

tan. Neure kinka gorri hartan berean, garbiago nekusen munduaren gakoa behin ere baino.

Asko pentsatu nuen mariñel gizarajo hartaz. Zergatik sofritu zuen? Egiazko ez ziren katramilengatik larritzen eta ikaratzen zelako. Haren itsasoa ez zen itsaso, ezta ontzi ere haren ontzia. Bere mundua berak sortzen zuen, barrutik kanpora; eta bere baitatik kanpora sortutako bere mundu hartantxe itotzen zen. Haren eritasunak, alabaina, sendabide erraza zuen: mariñela komentzitu: «zure itsaso hori ez dago, eta zure ontzia ere ez. Zerorrek sortu dituzu mamu horiek. Ken itzazu, ezaba itzazu, erauz itzazu, eta atsedeen osoa dukezu».

Eta, horra hor gakoa: nik neuk ere berdin egin behar nuen, eta gizon guztiek berdin. Neure «Ni-tasuna», behin eta berriz forogutzen ari naizen bezala, ez da ezer. Nire ametsak ez dira ia egiatik berezten: ez dakit aspaldi honetan noiz ari naizen ametsetan, eta noiz ez. Munduan dagoen guztia itxura da; eta itxura horrek neronek nahi dudan arteraino iraun dezake, mariñelaren munduan bezalaxe. Neronek sortzen dut ni gero zigortzen nauen mundua: neronen egintzen jopua naiz. Hots, mediku bat behar dut, mariñelak bezala; neure sasi-itsaso honetatik begira nazan.

Eta aurkitzeko zori-zorian nagoela uste dut. Baina ez dut oraingoz sendagilea aipatu nahi, ikara lazgarria ematen dit-eta.

Baina nik adimendu argia banuen ere, ez nenbilen ongi.

Argitsu ikusten nuen dena, baina uraren azpian bango bezala: alegia, neure aurrean sekula baino dir-daituago agertzen zitzaidan mundua, leinuru aldako-urretan nekusen; gauzetatik lurrin urtsu batek bereziko

banindu bezala. Laku garden baten hondotik gisa ikusten nuen, higikor, urduri, koloretsu; eta argi artegatan murgildua.

Eta ni neu ere, mundua bezala, koloka nerlgoen, aldakor eta beldurti. Nire barrena argitasunez beterik zegoen baina ikaraz ere ez urriago.

Gauetz hain gaizki loegiten nuenez gero, nekatuta nenbilen, eta ahultzen hasia nintzen begi-bistan. Burutazio harrigarriak nituen geroz eta gehiagotan; eta hauekin batera neure ametsak, eta Zuntzarri-n bolada hartan gertatu ziren gauza harrigarriak bildurik, urduri ibiltzen nintzen.

Ildo edo joera horretantxe, biziki harritu ninduen gertakari batek: ez dakit egiazki ametsa ala gertakaria den, eta ez dut honetaz irizpide gogorrik edo zindorik emango.

Baina, nire ustez, Askizu-n gertatutakoa bezala, hau egiazko gertaera da, eta ez nire irudimenak sortua.

Halako batez, kanpora aterarik, txistu etengabea entzuten nuen, eta buruko mina nabaritu nuen. Ohiturari jarraituz, eta gaixorik ote nengoen jakite-arren, neure lepoko zainean jarri nuen behatz bat, eta... ikararen larria! Neure zainak eta bihotzak berak egiten zuten txistu hura. Ez zen taupadarik berezten: soinu jarraiki bat zen bakarrik, dardara-edo bezalakoa. Baina hura ez zen halere gehienik harritu ninduen: neure taupadak kondatzekotan erlojura begiratu nuen. Alferrikako saio zen, noski; baina arreta beste gauzatan jarriz gero, ohartu gabe begiratu nuen. Ez nintzen haseran harritu, ez bainintzen kinka hartan berehala ezertaz konturatzen: taupadarik gabe bizi ni? Honetxek ninduen erotuta: nire bihotzak ez zuen taupadarik ematen; eta, halere, ni sendo nengoen. Baina... zer zen nire erlojuan? Zirrara ba-

tek astindurik, erlojuaren orratzak ikusi nituen: arin zebiltzan, eta beste txistu-molde bat egiten zuen erloju-txoak ere. Orratz handia azkar zebilen, eta minuturen batetan-edo bira osoa egiten zuen. Txikiak, halaber, hamabi minututan egiten zuen berea. Zer ziren «minutu» haiek, halere? Ez dakit. Baina erlojukoak ez behintzat.

Zurtuta ni, behin ere baino bortizkiago inarrosirik. Nola izan liteke hura guztia? Harrigarria, beldurgarria hobe, nigandik at ere ikusten zena. Berehala iluntzen zen; eta pentsatzen hasi orduko, bazen berriz eguna. Automobilak azkar baino azkarrago zebiltzan, ia-ia ikusten ez zirela. Pertsonak ere, berdintsu. Hura txorabioa! Itsasoaren aldera abiatu nintzen: sei bat minututan egin zen marigora, eta beste seitan maribehera. Jendea ero-moduan zebilen alde batera eta bestera, denborari ezin atxekirik, denboraz baliatu ezin gorrian.

Eta berdin zirauen nire gorputzaren txistuak... Eguzkiak... Eguzkiak itxaferoa zirudien, eta berehalako batez sortzen eta izkutatzen zen: beldurgarria. Ez nuen erlojura begiratzen, erlojuarekin batera baitzebilen dena; baina, neugan begiratzen nuen; eta, nik aginduta, zortzi edo hamar bat minutuz ibil zitekeen egunargiz. Gero gaua zetorren, izugarrizko gau laburra. Eta berriz ere eguna, egunsentirik gabe; eta berriz gaua, arratsik gabe. Asaldagarria zen hura. Jendea ikusteak, batez ere, nolako mina ematen zuen: sartu, atera, atzera, aurre-ra... eten gabe, atsedetik gabe. Neure gelara joan nintzen, neure egun haietako bat gutxi gora-behera igaro zenean; eta biharamonean irtenda, harrituago gelditu nintzen: munduaren kliska zoroak berdin irauten zuen, eta udaberria joana zen. Nekagarria zen hura, benetan: eguzkia, ilargia, bero, hotz, euri, haize... Nolako biraka!

Eta txistua ari eta ari nigan...

Zerbaiti lotu nahian, haizeari heldu nion; baina haizea ikusten banuen ere, ezin finka nintekeen. Eta zerraldo erori nintzen. Automobilak tximistak bezala zihoazen nire ondotik, eta beldurrez bete nintzen.

Jendearekin ez txokatzeko, etxeen hormen ondo-ondotik itzuli nintzen «Pedro-Enea»ra, lauroinka, haizeak eraman nindezan beldurrez.

Eta gelan sarturik, hura guztia pasa artean, berriz ez irtetea erabaki nuen.

Pasa zen azkenean bolada gaizto hura, eta trankilago nenburgin. Patxara handian egiten nuen dena, eta hauxe da ni gelan larritzen ninduen: halako izugarrietara itzultzea. Zuntzarri-n ere hobeki nekusen dena, eta, behintzat, ez zen ezer harrigarrik gertatzen.

«Pedro-Enea»n gaizki: egun asko pasa nuen neure gela kiratsean, gauzak normalago jarri zai; eta horrez gainera, lau pareta itxi haiek ez zitzaizkidan atsegin. Atea irekita uzteko esaten zidan etxeko andereak, asmo gaiztokorik inor ez zegoela-ta; baina nik nahiago nuen arnasarik gabez hil, neure burua agirian utzi baino. Eta usai txarra bazen ere, nahiago nuen halere ate bakar hura kisketaz hetsi.

Horregatik, barruan era hartara egon behar nuelako, alegia, zeharo ase ninduen kanpokorik ezer ikusi gabe bizitzeak; eta, osasunez ondo izanda laister, maiz irteten nintzen «Pedro-Enea»tik: liburu bat harturik, ala hartu gabe, kalera joaten nintzen handik ihesi.

Irail hura zoragarria izan zen; agian neure biziera guztian ezagutu dudan ederrena. Apar ugaria zegoen Olaburu-n, eta olatu handi xamarrek. Zeruan hodei luze zuriak, oso goian; haize freskua, eta itzalak xahu. Paletako koloreak oso ugari.

Egun haiek galduak ziruditen, berez, ederregiak izaki. Arratsalde haien ederrak ihes egiten zuen, zorion-izpiek bezalaxe. Sisley-z gogoratu nintzen: berak tinkatu zituen halako momentuak. Hura atsegina berea! Nik, berriz, finkatu egin nahi nituen ere arratsalde haie-tako bakea eta bikaintasuna; baina ezin... Iheska narbaritzen nuen dena, baita neure burua ere. Eta pena ematen zidan eguraldi haren laburtasunak.

Hark «betikotasun sakona» eskatzen zuen, atseginak bezala. Nietzsche-ren hitzak dira; eta nireak ere bai. Eta bazihoan, ordea, eginahaletan, nigandik ihesi, eta ni harengandik.

Halere, munduak ez zuen niretzako atsegin biderik. Agortua zen dena niretzat.

Argi-argitsu hura burla gaiztoa zen hortaz, pena baino gehiago. Orduko edertasuna tentazio bat zen, beste tentazio modu bat...

Horretan nengoen ni, eta hogeituro urtetako neska pinpirin eder bat igaro zen nire aurretik: ile gorria zuen, eta soineko urdin-urdina. Piztu egin ninduten haren liraintasunak eta ibilera arinak; eta oharkabean jaikitzeko zorian egon nintzen.

Zertarako, ordea? Bizitzeko tentazioa berriz. Hura hutsa zen, banekien; eta atzera jo nuen berehala. Zertarako? Zerk hotsegin zidan? Ederra zen, bai, giroa bezala; eta beraren aurrean eskierki hitzegiten ere ahantzi-ko litzaidake lilura hutsean. Baina, zer? Nire gorputzak joan nahi zuen, ez nik; ni ez bainaiz neure gorputza. Pentsatu aurrean besterik iruditu arren, nik banekien tinko munduak edo emakumeak niretzat ez zutela atseginik. Eta oroitzapenen eta liluren jopu ez nuen berriz izan nahi.

Halztoi-ra joan nintzen, Soraluze ondoan. Baketsu

zen hura, beti bezain baketsu... Ez zen ezer entzuten. Eurikara zen, baina ateri.

Ezerk ez nau neure bizian egun hartan ikusi nuenak adina hunkitu. Isilak ez dit geroztik beldurrik eman, ezta neure taupadak entzuten baditut ere.

Halztoi-ko errekaen gainetik, harrizko zubi bat dago, eta ni han gelditu nintzen erreka aldera begira.

Ura oso garbi zegoen, guztiz gardena hobeki esan, eta hondoa ere berak ikuzita, erraz ikusten zen.

Eta honatx gizonak ikus dezakeen ikuskaririk zoragarriena: eten gabe isurtzen zen ur laister garbi hura zubiaren azpitik. Ibaiaren ondoan harri koskor batzu ziren, beti tinko. Hura bazihoan, baina ondoan harri koskor batzu ziren, beti tinko. Hura bazihoan, baina hondoa ez. Ezer ez zen aldatzen, egia esan, ura ere jaitsi ala baitzeturren goitik ere...

Bazihoan ura, baina ibaia ez! Ibaia halere ez zen ezer urik gabe...

Luzaro egon nintzen begira; eta geroztik ez zait ikuskari hura bizi guztian ezabatuko eta ahantziko.

Ura joan, ibaia gelditu. Ibaia ez da ezer, ordea, urik gabe.

Agian alegiazkoak dira biak; eta ez dira ez bata eta ez bestea... Agian nire desiren errainu besterik ez dira biak!!

Zeren nire gauzak baitoaz, baina ni ez. Ni, halere, ez naiz ezer, nigan zehar igarotzen diren horiek guztiak baizik.

Ibai baztergabe bat iruditu zitzaidan dena: geronen bizia ez-ezen, gainerako guztia ere. Hilkor da dena, eta eten gabe bilakatzen da; egia esan, mundua ez da aldatu eta bilakatu bakarrik egiten, bilakatzea bera ere baita.

Etengabe hiltzen eta akabatzen delako bilakatzen da, hain zuzen.

Ibai horretan, halere, ez da ikusten, nik Halztoi-n bezala, tinko dirauen harri koskorrik. Ibai horretan dena doa. Dena da ura eta ezer ez hondoa. Dena zaharrikatzen da, eta erortzen eta ezabatzen.

Alboetara begiratu arren, ez da lehorrik ez tinkorik antzematen: ibaiko ura doa zabalera guztian behera eta behera. Ibaitek irten nahi dugu; baina munduan ez dago ibai hori besterik. Hots, zer ari gara bilatzen? Eze-reza!!! Zerua ez da behin ere asaldatzen, hutsa dagoelako...

Guztiok ohartzen gara gainera beheraka eta igarotze guztizko horietaz, nola ez dakigularik ere ez baitugu tinko-gunerik aurkitzen. Baina senak esaten digu jaiogiten dela dena, eta azkenik akabatu. Suntsitzen ez denik ez da; hots, ez dago dirauenik.

Hala ere, bai gudan bai gauzetan ere, ba al dago, iduriz, denboran zehar dirauenik ezer? Gudan dagoen zerbaitek pausa gaitzen eskatzen du; baina alferrik. Gelditzea nahi luke: amaitzea ez zaio atsegin.

Eta, zer da hori?

Agian ere, erdi-izate mailan dago hau: nire «ni»a, nire «nitasuna». Nire gorputza, esate baterako, badoa, neronek ere hala nabaritzuz; eta min ematen dit amaitu behar horrek. Ni ez naiz, ordea, nire gorputza.

Halaber ere, ni ez naiz ezagu daitekeenik ezer. Nire edo besteena den guztia piskanaka itzaltzen ikusten baitut nik kanpotik bezala. Hots, nire «ni» hori besterik bide da, eta ez dut ezagutzen. Ezagutu ezina da.

Baina ezagutzen dudan guztia hiltzen baldin bada, nire «ni»tasun hori ez da ezer egiazkorrik, ezagutzen dugun guztia hiltzen baita.

XV

Biharamonean euri gorria erori zen; eta, ni jaikitzean, itsasoak eta gainerakoek odol freskua ziruditen. Zenbait hodeik, horratio, laranja kolorea zuen. Ikuskari ederra.

Lilieta aldean eseri nintzen. Handik igaro zen idi batek begiratu zidan, eta gero jateari eman zitzaion berriez. Zer jan ote zezakeen? Odol antzeko isurgai itsaskor hartatik?

Hodeiak mogitzen hasi ziren izugarri azkar. Ikarak hartu ninduen. Eta letra batzu sortu ziren goi urdinean, laranjaz ildoturik: «Pausa hadi».

Nork jarri ote zizkidan? Nork zekikeen nire kezka heriozkoaren berri?

Ihesari eman, eta gorri labain hartan irristatu, eta erori egin nintzen. Begiak irekitzean artezi bat ikusi nuen zeruan; eta atzean beltza besterik ikusten ez zela. Beltz lodi eta itoa!

Nengoen neure hartan gelditu nintzen, goiari so, eta odola jario, zirudienez.

«Pausa hadi»...

«Pausa hadi» esan dit ahalmen gorderen batek. Non, ordea? Eta, aipatzeak berak dar-dar jartzen nau... Nork izkribatu du hori ortzean? Pausatu egin nahi nuke, ordea... Neure kezka honetan ezin iraun dezaket. Zergatik ez naiz presenteon bizi? Zergatik ez naiz sekula orainean bizi izan? Ezin geldi naiteke, ezin pausa. Pausa-lekurik ez dut topatzen.

Atsegin izango litzaidake, ordea, noizpait gelditzea: atsedena har...

Baina, agirian dakusat, pausatzea eta akabatzea bat dira. Pausatu nahi izatea, amaitu nahi izatea da; ezeren ezer ez baitago geldirik, deus ere ez.

Hortaz, zergatik nahiko nuke geratu? Zerk kilikatzen nau? Zerk hartaratzen? Bakea eta zoriona lortzeko dudan itxaropen zoro honek... Baina, ezin...

Artezia zabalago egin zen ortzea urratuz, eta beltzago beharbada.

Nondik datorkit ba geratzeko eta atsedena hartzeko hirrika hau? Nola bete ote dezaket ortzean bertan esaten zaidana? Nori idarokiko diot neure bidea, azkenean hari lot nakion? Hirrika honek, non du oinarria eta non helburua?

Agian nire adimenduan finkatzen da. Sekula sortu behar ez zuen Oreopitheko bat naiz, munstro bat, tximuei saldukeria egin dien munstroa hain zuzen.

Baina, zein parte da nigan okerra? Adimenduarena, ala Oreopithekoarena? Bi gara-ta. Lo jaikitzeetan nork nor darabil? Eta, orain?

Neure eskuak begiratu nituen. Odola bide zerien; gainezka nuen munduko sasi-odol gorri itsaskor hura. Esku bat az txukatu nuen bestea; eta tanto gorrien artean, ileak ikusi nituen: Oreopitheko-ile bustiak ziren!! Goragalea eman zidan neure alimaletasunak.

«Nork pausarazi nahi du nire buruaren Oreopithekoa?», esan nuen garrasika. «Ile-tasun» honek akabera eskatzen du, iletasuna da-ta».

Baina inork ez zidan erantzun.

«Nire Oreopithekoa badoa, nola ez; den guztia bezala. Iraun-nahia munstrokeria da! Dagoen guztia amaitzen denez gero, amaitzen ez den zerbaitek eskatzen du ez-amaitzea. Baina honek, derrigor, ezin dezake izaterik izan; alegia, ez da. Zerk nahi du ni geratzea? Adimenduak; hots, Oreopitheko sendoa munstro egin duenak!».

Jaiki egin nintzen odol itxurako nahaste hartatik. Lilieta-n ez zen kristauik: hura bakardadea.

Orduan, goratik ekin nuen:

— Askatu egin nahi dut neure Oreopithekoa!!! Nork nahastu zuen? Zerk eman dio bere bitasun asaldagarri hau?

Neronen oihuen oihartzunak garbi entzun zitezkeen gorritasun guztizko hartan.

Goragotik nik:

— Nire adimendua ez da ezer, ezpada Ezteusaren deia!...

«Ezteusaren deia» entzun zen Gandra menditika-ko oihartzunetan.

«Ni ez naiz, halere, Oreopithekoa, ez nire gorputza, ez nigan igarotzen eta itzaltzen denik ezer ere... Ni, gizonok, Ezteusaren dei horixe naiz!!!

Dirdai itsugarri batek bete zituen bazterrak, eta aidean bezala utzi ninduen.

Neure bitasunaren kontra iharduten delako gorroto izan dut denboratasuna. Denborak agertzen digu Oreopithekoa eta Ezteusaren deia ezin elkar daitezkeela.

Askotan frakasatu dut bitasun hori aurrera eraman

nahian. Hil bedi munstroa! Hil bitez denboratasunaren haurrideak!! Hil bitez denbora eta Oreopithekoa!!!

«Ihes egin bezate hilkor guztiek. Zaharraka bitez Zuntzarri-ko jauregiak oro, eta bihoaz elitan eta zapa-saltoka jaiotzen eta hiltzen diren sorkari guztiak. Fin-ka nadin Ezteusean. Bete dezadan neure deia... Bada-kusazkit... neure ondotik... izututako piztiak bezala... zalapartan harantz joaten. Eta neure Oreopithekoa ere... berekin doa. Hemen nire adimendua gelditzen da ba-karrik; eta, mundua hustuta, atzeko ilunpe baten gisa-ra, Ezereza!!!... Elkargana ditzadan!!!, esan nuen deihadarka.

Nekatua nintzen. Eta ostotsak entzuten ziren An-duaga aldetik, joandako sorkarien zalapartarekin nahasiak.

Eta odol-euria berriz hasi baino lehenago, «Pedro-Enea»ko gela ilunera joan nintzen; gorri hartaz blai-blai eginda, eta neure gogoetan barrena tematurik.

Irribarre hotzen bat ikusi nuen nonbait, eta ikaraz bete.

Eta, neure barne muinetatik, goratik esan nuen: «Ez!!! Ez dut nahi!!! Ezin daiteke!!! Ez, arren!!! Ge-hiegi da eskatzen didazuna».

Baina irribarre hotz asaldagaitz hura, ez zen aldatu...

Sekula senditu ez nuen hotzez bete nintzen. «Ez hau, ez hori, ez hura... Ez gaur, ez bihar... Ez denborarik... ez ezer... Eta, ezteus hartan murgil eta neure burua itzal»...

«Gehiegi», esan nuen garrasika.

Eta, kordea galdua, zerraldo erori.

Hurrengo egunean, afal ondoan, liburu guztiak har-

tu nituen, eta bizpahiru joan-etorritan Xonta-ko harri-tarte batetara eraman nituen. «Samyutta-Nikâya», «Milinda Pânha», «Visuddi Magga», «Dhammapada», «Upanishad», eta beste horrelako asko, alde batetik; eta filosofiari buruz nituen beste hamarkada asko ere bai. Haiez gain, etxean nituen nobela guztiak, hirurogei-ta-hamar bat (Gide, Camus, Huxley, Malraux, Moravia, eta abar), Xonta-ra ere eraman nituen. Gelan ez nuen liburu aztarrenik ere utzi.

Pilo handi bat egin nuen hango harkaitz baten gainean; eta, pospolu bat pizturik, su eman nien. Eta berehala, lehorretik itsasora zetorren haizeak puzturik, handituz joan zen sua, eta berehala sutzar bat egin. Soloarte dantza-lekua doi-doi nabarmentzen zen argitasun txiki hartan, dar-dar bezala.

Alaitu egin nahi nuen, baina ezin. Garrak gorantz altxatzen ziren. Beroa nabaritzen nuen, eta begietan hazkura; baina sutzarrera begiratzen nuenean, halere, erdi beldurturik nengoen. Hura ez zen aski; neure burua ere bota behar nuen surtara...

Suak zenbat iraundu ote zuen ez dakit. Erretzen ari ziren liburuak eta beren jakinduria guztia madarikatzen hasi nintzen ni, eta «madarikatuak izan zaitezte betirako» neure indar guztiez esaten ari nintzenean, atxilotu egin ninduten, su egitea debeku zela bide; eta ergel haiek, sua itsasoaren ondo-ondoan zegoelarik ere, handik baztertu ninduten indarka.

Eta «lehenengo aldiz zelakoan», etxera joatera utzi ninduten.

Eta hala egin nuen.

«PedroEnea»ko neure gela iluneko ohean ez nintzen. Iodoformoaren usai sarkorra zen han, eta ezagutzen ez

nituen batzuk begiratzten ninduten. Isil osoa zegoen.

Kepa eta Manu sartu ziren.

— Zer moduz hago? —esan zidan Kepa-k.— Atsedena komeni zaik; beraz, ez ezak gehiegi hitzegin.

Zertara haiek? Zer nahi ote?

— Alde! —esan nien goraki.— Alde hemendik! Zer da komeria harrigarri hau?

Eta ohearen ondoan neukan kristalezko txarro bat harturik, bota egin nien neure ahaleginetan.

Gero jaiki egin nintzen, eta haien ondotik joan, xehe-xehe egiteko asmotan.

— Zer nahi duzue hemen, zitalok? Nork hotsegin dizue? Jarrai zuek zeuen txatxukerietan. Oreopithekoaren alderdia hartua duzenok: alde, alde hemendik! Itsuak zarete, eta zuen eritasuna ez dut ikusi ere nahi.

Eskaileran behera zihoazen berak korrika, eta noizean behin niri begiratzten zidatelarik.

Nik Xabier-ekin hitzegin nahi nuen; ez kaiku ergel huts haiekin.

Biharamonean Zuntzarri-ko kanposantura joan nintzen. Xabier-ekin hitzegin behar nuen. Nolako beharra gainera!

Goibel zegoen zerua. Elosua-ko burontzek beltz ziruditen.

Kanposantuan sartu nintzen. Kristaurik ez han. Hilarriak herrenkada luzetan. Hango bakea urragarri zitzaidan: han-hemenka, hilarrien tarteetan, belar izpi batzu. Hezea zegoen hura oraindik, negarrari utzi berria balitz bezala. «Hemen datza»... «Hemen datza»... «Hemen datza»... Ahantzita han. Are gehiago: jendeak aldegin. Ni neu ere, noiztanik ez nintzen Xabier-en hilobira joan?

Ehortzetaren egunetik beretik, hain zuzen.

Eta han, beste askoren artean, harri urdin txiki batetan, hau irakurri nuen:

«Hemen Xabier Zufia datza».

Alboetara begiratu nuen: ez zegoen inor, kanposantuko izkina batetan ehorzlea besterik.

Orduan, neure baitara bildu ondoren, hau esan nuen:

— Xabier: sekula ez nauk zalantzan jarri. Hire ideiek ez nautek behin ere hunkitu. Heure ideia horiek sinesten hituelako miretsi haut, ez egiazkotzat nituelako. Baina zalantza behar diat, eta heuk dudaraziko nindukek bakarrik. Kinka izugarri honetatik irten behar diat. Hik egia bahuen, orain ere bizi haiz, eta ikus nazakek; eta lagunurkoa maitatzeko heure betebeharrak ni laguntzera behartzen hau».

Eta goragotik:

— Xabier! Arren, Xabier! Mintza hakit!!!

Ezer ez zen entzun.

— Esaidak zerbait, arren! Akabatu al haiz, hortaz? Zalantza behar diat: erruki hadi, Xabier, nitaz!

Hilerriko bakea ez zen asaldatu. Negarrari eman nintzaion, eta Xabier-en hilobiaren ondoan jaurti, zotinka, hasperenka, min etsian. Eta hezatasunaren hotza nabaritu nuen saihetsean...

Berriz esnatu nintzenean, minbera nuen saihetsa. Berriz irakurri nuen: «Hemen Xabier Zufia datza».

Ipuiak! Xabier Zufia bukatu egin da guztiz; hemen ez datza inor, eta dakusadan idazpuru horrek ez du sentidurik.

Ate aldera jo nuen, eta hilarriak irakurriz nindoan.

Eta, bat-batean, zauskada latz batek inarrosi ninduen. Harri eskas batetan: «Hemen datza Begoña Ira-

zubarrena». Bego!!! Hila ere? Noiz hala? Irakurri nuen, eta bost hilabete aurretik hila zen.

«Bego», esan nuen ahapeka. Gainean zituen adaska ihar batzu kendu nituen.

«Gajoa!» —ahapeka.

Iluna zen arratsaldea, eta joatea erabaki nuen.

Eta, bihotza erdibiturik, ez nuen idazpuru gehiago begiratu, beldurrez-eta beste ezagunen bat ager zedin.

Gurpilak ikusten nituen bakarrik, beti jiraka. Dena itzaltzen da, itzaltzea bera ezik. Dena hiltzen da, heriotza ezik.

Guztia bukatzen da, eta berehala ezabatu eta ahantzi egiten da. Atseginak, minak, lilurak... ez dira munduan xegundu labur bat baizik.

Eta ez dago hau besterik!!!

Gure «Ni»a ez da, hain zuzen, alegiazko lilura edo tximist bat baizik: erdi-izate bat, munstro gorrotagarri bat, umekai itsaskor bat.

Sakyamuni-k du egia eskierki.

Galduta nago.

Egun gaiztoak pasa nituen. Neure Oreopithekoa hain okaztagarri ikusiz, ezin nintekeen inora joan, eta lorik ez nuen hartzten. Higuinak bete ninduen, eta gauez hamar bat aldiz jaikitzen nintzen egunero, ezin egonik.

Neure besoetako ileetan usaitzen nuen, eta kirats zitzazkidan. Gizonak kalez-kale ikusten nituenean, kanguruez gogoratzen nintzen: zergatik ahuldu ote zaizkigu honenbesteraino aurreko hankak? Munstroak garelako!

Gizonak barragarri zitzaizkidan ibiltzean: zintzilik daramatzate besoak, eta balantzan; are barragarriago

emakumeak: aurreko hankak bilduta eramaten dituzte. Lauroinka jarri nintzen, eta egoki nituen besoak; baina ibiltzen hasirik, berehala nekatzen.

Pena zen; zeren normalago iruditzen baitzitzaizkidan aurreko neure hankak lurraren gainean ipinita, aidean zintzilik baino.

Etxetik irten nintzen. Eta algara ederrak bota nituen jendea ikusita. Kanguru ugari dotore jantzita: kanguru-ruen inauteria!

Harez gero lauroinka ibiltzen nintzen kanguru itxura hura ez hartzeko, eta berehala ohitu nintzen.

Baina Sakyamuni-ren irudia aurrean nuen lauroinka ibiltzean ere: «Hori ez duk bidea. Ez haiz aberetuko. Oreopithekoa aberetuz, hi ez haizena aberetuko duk, eta ez besterik. Gizonaren Ezteusaren Deia bete behar duk. Horra bidea».

Pentsamendu horiek zirela-ta lehenenkoz gainera, gauetan izugarrizko beldurra pasatzen nuen. Geroz eta biziagoa.

Sakyamuni ager zekidan beldur nintzen. Argia itzali bezain laister, haren irribarre hotza ikusi uste nuen argi epeletan; eta azkenean, eta argia itzali gabe, nekez loakartzen nintzen. Gero, halere, behin eta berriz esnatzen nintzen, neure erraiak berak oka-egin beharrez. Eta ez nuen ezer jaten.

Begi-bistan ari nintzen, beraz, ahultzen eta hiltzen.

Eta, ezin egon hartan, Sakyamuni agertzeko ikara hura neure erraietaraino sartu zitzaidan. Hauxe zen aspaldidanik ni urdurien jartzen ninduen; baina ez nuen aitortu nahi.

Neure burua hiltzea pentsatu nuen. Neure hartan ezin segi. Ezin!!!

Eta gau batez Gandra mendira abiatu nintzen, neure bizia betirako mozteko asmotan.

Gau izartsua. Nik, bidean, bi aldiz bota nuen. Behazun hutsa isurtzen nuen, bospasei egun hartan ez bainuen mokaurik hartu; eta galda gorria behetik gora zertorkidala pentsa liteke. Nolako erredura!

Eta, halere, jangartsu. Huraxe zen harrigarriena.

Bihotzerre kiskalgarriak erretzen ninduen, eta, zerbait hartzekotan, ur freskoa opa bakarrik. Besterik ez. Goragaleak herronka zetozkidan, arnasarik ezin harturik jarri arte. Heriotza behar nuen. Bestela Sakyamuni-ren irribarre jela ikusiko nukeen gau hartan-txe.

Gandra-ko Mateia-Punta altuan eseri nintzen. Beherean leize iluna, eta goian izartegia diz-diz. Gaua bazen ere, beldurrik ez. Han zen harri handi bat nik hartu, eta bota egin nuen. Handik hiru segundotara «klok» entzun zen, eta segittuan isila. Nire gorputzak ere berdin egingo... eta kitto! Jauzi egiteko desira bizia piztu zitzaidan.

Itsaso aldera begiratu nuen: beltza. Azkeneko aldiz... Banindoan ni ere ilunpe beltz batetara... Zuntzarri ez zen handik ikusten. Lilieta eta kaia bai; baina beranduegi zelako, argi gutxi zen, eta ozta-ozta ikus zitezkeen haiek ere, ilargia oraindik aterea ez zen-eta.

«Kemen izan» esan nion ahapeka neure buruari. «Segundo bat duk, eta akabo. Eta geroztik ez duk nabaritutuko penarik, ez goragalerik, ez bitasunik, ez kezkarik, ez ezer. Jaio aurreko bake berbera inguratuko duk berri; eta hori gutxi ez duk».

Baina, zalantza hasi zitzaidan: nahasita zetozkidan askoren izenak: Nagasena... Xabier... Zer zen hura? Nondik nahaskeria hura?

Goragaleak berriz, eta sua iranoian eta urdailean...

Behera begiratu nuen: «Amaitu beharra... Bestela», goragotik ekin nuen: «Gautama!...» «Eta egia balitz»... «Baina, Xabier-en itxaropidea galduta, zer ari naiz ni zalantzan? Sakyamuni! Ez!!»

Eta jaiki egin nintzen, eta atzera joan, abiadura hartzeko. Arinago hasi zitzaidan bihotza, lehertzera bailihoan; eta, amorraturik, oihu egin nion neure bularrean joaz; eta neure ahots betean:

— Isil hadi, zoro hori! Pausa hadi!! Geldi hakit betirako!!!

Pausu batzu entzun nituen atzetik, eta ondoren:

— Geldi hadi heu —ahots batek ziola.— Eta besotik heldu ninduen bortizki zaindari batek, galdetuz:

— Zer ari haiz hemen garrasika? Ero al hago? Hortik eroriz gero, akabo. Haseratik ikusi haut hona haize nez geroztik; eta gaizki habilela uste diat. Marmarka entzun haut lehen, bakarrik egon arren. Eta, orain ere, zer ari hintzen esaten? Hator nirekin, eta akabo.

Askatzeko eginahalak egin nituen, baina alferrik izan zen. Orduan amorruez beterik, eta birau asko esaten nio-la, nik errepikatu:

— Utz nazazu!! Neure burua hil behar dut. Bestela Sakyamuni ikusiko dut gaur gauean, eta orduan bai akabo.

Irakiten ari zen nire odola eta izate guztia.

Berak, orduan, inarrosi egin ninduen zakarki; eta besoetan min ematen zidala, esan:

— Hau burutik egina zegok. Asmatu egin diat atxilotuz.

Eta berarekin eraman ninduen.

Behazun eta larde jario iritsi nintzen haren Buruzagitzara. Gandra-tik jaistean, berak bultzatzen ninduelata, bi aldiz erori nintzen lurrera.

Gela handi batetara pasa ninduten; eta han, mahai zabal batetan, berrogei-ta-hamar urtetako gizon bat zegoen. Komisario hura ere ez zen bestea baino xamurrago izan, eta bere lagunaren kondaira entzun ondoren, hau esan zidan:

— Zer ari haiz esaten Sakamoni edo delako horri buruz? Nor da Sakamoni hori? Edo, zer da? Mamuren bat?... Eta... hori guztia... ordu hauetan... eta Mateian. Konturatzen al haiz?

Bizkortu egin nintzen une hartan, neure zioak azaltzeko era ematen zitzaidalako; eta nire bihotza bera mintzo zela erantzun nion:

— Gautama ager dakidan baino lehenago hil behar dut neure burua! Utz nazazu neure burua hiltzera; eta zeureaz nahi duzuna egin ezazu; baina ez nireaz.

Ez ninduen ulertu. Eta zehaztu egin nion:

— Guztiz akabatzea baldin bada bidea, nik ez dut eskierki jakin nahi! Gizona munstro bat baldin bada, eta bere burua zeharo eta era guztietara akabatzekoa baldin bada, ez dut ezer nahi. Azken honetan, ordea, horretara iristen ari naiz. Hots, agerkunde batetan Gautama ikusiko banu, halaxe izango litzateke; eta, hori gertatu ondoren, ez nuke ihes egiterik izango. Frakasu eta Ezteus-Deia izango litzateke orduan zalantzarik gabe gizonaren betekizuna eta bidea. Eta horra kakoa: horixe gerta dakidan beldur naiz. Ez al zara ikaratzen?

Orduan, hotz-hotzean, hau erantzun zuen komisarioak:

— Arrazoi zenuen. Burutik egina dago. Eraman ezazue hemendik.

AURKIBIDEA

PERU LEARTZAKOA	5
HITZAURREA	7
I	13
II	25
III	39
IV	53
V	69
VI	75
VII	87
VIII	97
IX	101
X	115
XI	125
XII	147
XIII	153
XIV	163
XV	177